

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-06-06
EGUBAKOITZA
599. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Alergiengatik kontsultak gero eta gehiago dira"

Marta Ferrer
Mediku alergoogoa | 8



Miguel Altuna berria 2015ean hasiko dute

Bergarako institutuak
10.000 metro koadro
izango ditu | 16

HEMEN DIRA PAZKOAK!

Bergarako jaien gaineko gehigarria | 31



Arrasateko erdigunean ezarri
aurretik, TAO proban | 12



Antonino Ibarondo musikari eta
konpositore oñatiarra gogoan | 11

Astlehenean, Gure Esku Bidea
ekimenaren gaineko orrialde
bereziak GOIENA paperean.
Goiena Klubeko bazkide ez bazara,
erosi kioskoan 1,10 euroren truke.



BIDEAN EGOTERA, BIDEA EGITERA

Domekan, 18.000 lagun izango dira Kanpanzar-Deskarga tartean;
giza katearen ostean, festa egingo dute Bergaran iluntzera arte | 2

Jasone Giraldo eta Bixente Elortza, Arrasateko Gure Esku Dago taldeko kideak, Arrasateko lehen kilometroaren kartela ipintzen, Otalora Lizentziaduna kalean. | JAGOBA DOMINGO

SINADURAK



Aitte | 9
URTZIAMIANO



9 | Futbola ez besteak
MIRARI ALTUBE




Gure esku | 56
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 6
ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11
KIROLA 26 | KULTURA 28 | ZURE IRAGARKIAK 51
TELEBISTA-IRRATIA 52 | EZKONTZAK 52
ESKELAK 52 | NON-ZER 54

ZURE BIGARREN
VARILUX
LEIAR PROGRESIBOAK
OPARI*

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* kontsulta itzazu zure zentroen kanpainen ezaugarriak.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE


Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Ekainak 8: iritsi da elkarri eskutik heltzeko eguna



- ▶ Durango eta Iruñea arteko 123 kilometroetatik 21 izango dira bailaran
- ▶ 18.000 lagunek hartuko dute parte katean Kanpanzar-Deskarga tartean
- ▶ Hasieran 5 kilometrotan egotekoak, azkenean 7 dira Debagoienekoenak



JULEN IRIONDO | ARRASATE

Hilabete luzeetako girotze aha-
leginaren eta azken asteetako
prestaketa lanen ondoren, dome-
ka izango da horien guztien emai-
tza ikusteko eguna. 50.000 lagun
aurena gutxieneko kopuru; 70.000
bai izena emanda lerrook idaz-
terako azken datuen arabera; eta
milaka batzuk gehiago izango
diren aurreikuspena.

E-posta bidez eta Interneteko
aplikaziotik "milaka eta milaka"
izen-emate jasotzen ari zirela-eta,
"gaina hartuta", sare bidez apun-
tatzeko aukera etetea erabaki
zuen Gure Esku Dagok eguazte-
nean. Hala ere, herrietan orain-
dik jarriko dituzten mahaietan
bete daiteke giza katerako txar-
tela, eta domekan bertan ere bai,
ibilbidean: kilometro bakoitzean
egongo da horretarako postu bat.
Antolatzaileek "oso garrantzitsu"
jotzen dute jendea izena emanda
joatea: "Inorentzat ez dadila, bai-
na, ez joateko arrazoi izan izena
eman beharra".

Autobusak aurrez aurre

10:00etarako iritsiko dira kanpo-
tik datozen autobusak; buelta
horretarako -malgutasun apur

batekin- behar lukete nor bere
kilometroan ere Debagoieneko
herrietako parte-hartzaileek.
09:00etarako Arrasaten, Kanpan-
zar mendate hasieran, egongo
dira Leintz Gatzagatik, Eskoria-
tzatik eta Aretxabaletatik iritsi-
ko diren lagunak, handik gora
kalejiran abiatzeko dagokien
kilometrora- denek ibili behar-
ko dute argi ibilgailuen zirkula-
zioarekin, eta hauek, adibidez,
berezi, aurrez aurre etorriko
baitzaizkie Bizkaitik datozen
autobusak-. Aipatutako herrie-
tako beste batzuk zuzenean auto-
busez joango dira Sara jatetxe
pareraino, eta Aretxabaletan

DATUA
150
AUTOBUS

Kopuru horretatik gora
izango dira Bergarara
iritsiko direnak, katearen
ostean bertan egongo diren
ekitaldi eta festarako.

09:00etan plazan ere egin dute
hitzordua, bizikletaz Arrasatera
joateko.

Arrasatearrek, berriz, 10:00e-
tarako egin dute zita: 21. kilome-
trora joan behar dutenak Muxi-
bar inguruan bilduko dira; 22.
ekoak Kondekuan; eta 23.ekoak
Ferixalekuan. Oñatiarrak ere
10:00 alderako hasiko dira Arra-
satera iristen, 24. kilometrora.

Bergaran 09:30ean jarri dute
euren kilometrora abiatzeko
ordua, Bideberrin eta plazan. Bi
kalejiratan egingo dute bidea
-autobusa egongo da nagusientzat
eta haurrentzat-. Behin kilome-
trora iritsita, dagokien tartean
banatu egingo dira bergararrak:
Ola parean familien gunea egon-
go da, eta ipuin kontalaria eta
haurrentzako jolasak izango dituz-
te giza katea antolatzen hasteko
ordura arte; desguaze aurrean,
beriz, perkusio doinuak entzun
ahal izango dira, eta DJek jarri-
takoak gatz biltegian.

Bergaran bakarrik ez, dena
den, ibilbide osoan, kilometro
guztietan egongo da animazioa:
txalapartariak, dantzariak,
buruhandi eta erraldoiak...
Antzuolan ere girorik ez da fal-

Antolakuntzaren jarraibideak

IZEN-EMATEA Azken
egunotan ere egin daiteke
herrietan; bestela, domekan,
kilometro bakoitzean.

GARRAIOA Pesak zerbitzu
bereziak jarriko ditu giza katea
dela eta (902101210).

IKURRAK Erabakitzeko
eskubidearen aldeko ekimen
da: ikurrak eta leloak denok
eroso sentitzeko modukoak
izan daitezela.

ARDURADUNAK Egin kasu
haiek esandakoei.

ORDUTEGIA

10:00 Bakoitza bere kilometrora
iritea: ordu horretarako helduko
dira kanpotik datozen
autobusak.

11:15 Giza katerako jendea
antolatzen hasi: taldeetan, nor
bere kasa, egongo den jendeari
lehen deia.

11:40 Giza katea osatu: elkarri
eskua eman eta etenik ez
dagoela ziurtatu. Etenik balego,
horretarako jarritako zinta erabili
kateari jarraikortasuna emateko.



12:00 Giza katearen hasiera:
leku-leku, hots
desberdinekin emango zaio
hasiera giza kateari.

12:30 Giza katearen amaiera:
hasteko erabilitako hots
berarekin.

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

HIZKUNTZA ZERBITZUAK
KULTURA ZERBITZUAK
ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK
PARTE HARTZE ZERBITZUAK

www.emun.com

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

DEBAGOIENDARRAK GIZA KATEAN



Askotariko debagoiendarrak, giza katera

INES OSINAGA
MUSIKARIA
ARRASATE



"Momentua da, hau abiapuntua baino ez da, eta herritarron esku dago zer izan nahi dugun erabakitzea. Eta ilusioa elkarri kutsatzen ari gara".

KEPA ERRASTI
AKTOREA
ARETXABALETA



"Espero dut inoiz baino jende gehiago biltzea, helburu beraren alde. Hunkigarria da jakitea jende dena eskutik helduta egongo dela aldi berean Durangotik Iruñera".

EDORTA ARANA
IRAKASLEA
LEINTZ GATZAGA



"Giza kateak oso ondo erakusten du norbanakoen borondatearen gehiketa. Katerik ez dago batak besteari eskua eman ezean edo hutsuneak baldin badaude".

ETOR ARREGI
LANGILEA
ARAMAIO



"Indarrak batzea oso inportantea da, eta uste dut pauso erabakigarriak etorriko direla gero. Askotariko jendea batzeak indar handiagoa emango dio dinamikari".

IDOIA ETXEBERRIA
KAZETARIA
OÑATI



"Gure Esku Dagorena ilusio handia piztu duen prozesua da, eta domekan gustura joango naiz giza katera. Herritarren ahotsa kalera ateratzeko modu bat da".

ANDERE ARRIOLABENGOA
BERTSOLARIA
ARAMAIO



"Uste dut bizi dugun momentuan oso adierazgarria izango dela halako giza kate bat egin eta hainbeste jende elkartzea erabakitzeke eskubidearen alde".

AITOR MENDIZABAL
PILOTARIA
ANTZUOLA



"Gauza positiboa da askotariko jendea batzea dinamika honen inguruan. Antzuolan, gure artean, behintzat, jende askok eman du izena; ilusio handia dago".

MIKEL LASKURAIN
AKTOREA
BERGARA



"Norberaren etorkizuna norberak erabaki behar du; gauza bat edo bestea, baina norberak. Urte asko generamatzan aldarrikapen batekin elkar hartu gabe".

JOSE LUIS EZKURRA
ERRETIRATUA
ARRASATE



"Hor lanean ibili diren pertsonengatik merezi du domekan giza katean egotea. Gauzak ondo egin eta inorentzat kalterik ez badago, beti aurrera".

DORLETA SOLOGAISTOA
ERIZAIN
KUDEATZAILEA
ESKORIATZA



"Hunkigarria da pentsatzea Durango eta Iruñea lotuko ditugula. Ideia desberdinak dituen jende askok parte hartuko du, eta garrantzitsua da hori".

JOSU DE VEGA
SINDIKALISTA
ELGETA



"Izugarriko ilusioa daukat. Oso potentea da; Gure Esku Dago bultzatzen dut, eta nahi nuke gero independentzia lortzea. Ilusio handiarekin ikusten dut jendea".

JOKIN ETXANIZ
PILOTARI OHIA
BERGARA



"Aldarrikatzeko une egokia da. Oso inportantea da ez duela zerikusirik ze alderditakoa zaren; elkartzea da kontua, eta dagokiguna eskatzea, guk erabaki behar dugula".

AITOR URIARTE
MUSIKARIA
OÑATI



"Aukera polita da erakusteko munduari hemen herri bat dagoela eta eskubidea duela aurrera egiteko. Ekimenaren izaera positiboa nabarmenduko nuke".

IDOIA ELEXPURU
DENDARIA
ARETXABALETA



"Gustatuko litzaidake eskubidea gauzatu ahal izatea. Ez dut ulertzen demokrazian ez izatea eskubide hori; hain gutxi gara eta hainbeste inporta diegu!".

IÑAKI URIBE-ETXEBARRIA
LANGILEA
ESKORIATZA



"Nik uste dut ekimena oso potentea izan daitekeela, kolore desberdinetako jende asko batuko duelako; beti lotu izan ditugu halakoak alderdi jakinekin".

tako, noski, eta egunari hasiera behar den moduan emateko, 10:00etarako egin dute hitzordua, San Blas ermitan, salda eta txorizoa hartzeko. Antzuolako lantaldetik jakinarazi dute giza katea amaitzean autobusa egongo dela Bergarako festara joateko.

Bergarakora ez, Etxarrikora joango dira, kasu horretan, aramioarrak. Irurtzunen egokitu zaie kilometroa, eta bidaia luzeagoa egin behar izan arren, lau autobus bete dituzte: abiatzeko, 08:30ean kiroldegian jarri dute ordua.

Kontuz bide bazterretan

Sopela, Barakaldo, Muskiz... Bizkaiko hainbat herri eta eskualdetako lagunei tokatzen zaie, bertakoekin, Kanpanzar eta Desarga arteko tartean egotea, baita Debarrenen herrietakoei ere. Guztiek –eta baita Durango eta Iruñea arteko 123 kilometroak osatu arterako gainerakoak ere– irudikatuko duten giza katea errepidearen ezker aldetik joango da –salbuespenak salbu–. Bidea ez da itxita egongo giza katearen ordura arte, herri barruetako zenbait kaletan izan ezik.

BERGARAKO EGITARUA

PLAZAN

14:00 Ekitaldia.

15:30 Kontzertua: Gose.

17:30 Kontzertua: Esne Beltza.

BIDEBERRIN

16:00 Irrien Lagunak: aurretik eta ondoren, apar festa.

17:30 Herrixa dantzan erromeria.

19:30 Kontzertua: Emon.

*Puzgarriak egun osoan.

ZEZEN-PLAZAN

18:00 Errekortadoreen Euskal Herriko Txapelketa.

*Catering-a egongo da Muniben; Bideberrin, berriz, ogitartekoak eta bakoitzak daramana jateko lekua.

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea

maiatzaren 27tik ekainaren 6ra



Eskaintza akademikoa

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgpe@mondragon.edu
943 73 97 65

'Tertulia'-n ere, domekako katea hizpide

Larraitz Zeberioek gidatuta, Angel Oiarbidek, Zelai Nikolasek, Iñaki Zarrakoak eta Xabier Zubizarretak jardun zuten eguazten iluntzean

Tertulia saioan. Gure Esku Dago dinamika, erabakitze eskubidea eta domekako giza katea izan zituzten hizpide. Guztiak agertu

ziren pozik ekimenak irekitako bidearekin, eta, bide horretatik, erabakitze eskubidea gauzatu den eguna iritsiko dela zioten.

ANGEL OIARBIDE
GURE ESKU DAGO



"Ekainaren 8ra itxaron gabe, dinamika arrakastatsua dela esan dezakegu"

"Helburua beteta dago, kualitatiboki. Ekainaren 8ra itxaron gabe, gaur esan dezakegu Gure Esku Dago dinamika arrakastatsua izan dela: Euskal Herriko 160 herri edo eskualde baino gehiagotan elkarrekin pausoak ematen ari gara sentsibilitate politiko desberdinetako pertsonak, oinarri komun baten inguruan. Irudikatzen ari gara erabakitze eskubidea sentsibilitate guztien topagune dela herri honetan ere; ez gara inozoak, momentu honetan hutsuneak daude topagune horretan, nahiz eta guk denon topagune gisa irudikatu: ez da ezer gertatzen. [Erresuma Batuan ez bezala] Gu atzo hasi ginen demokrazia bidean pausoak ematen. Baina hutsune hauek txikitzen joango dira norabide horretan urratsak egin ahala".

XABIER ZUBIZARRETA
ARRASATEKO ALKATE OHIA



"Menderatu ezin den benetako indarra da bide honetatik doana, herritarrena"

"Herri txikia gara, eta zirkunstantzia asko izan ditugu historian zehar, aurkakoak beti. Hori guztia gaitu, eta herri moduan sinestea geuk erabakia hartzen badugu hau posible dela, ariketa neketsua da behin barneratu arte; behin barneratzen bada, gauzak azeleratu egin daitezke momentu batetik bestera. Hau bezalako ariketa batek birtualitate hori dauka: herri gisa lotzen gaitu eta sinestaz egin diezaguke posible dela. Zentzu horretan pentsatzen dut, gainera, ekimen honi jarri zaion izena, Gure Esku Dago, oso ondo asmatua dagoela: eskubidea gure esku dago, baina eskubidearen gauzatzeko hori da lortu behar duguna, eta konbentzitzen bagara gure esku egongo da. Menderatu ezin den benetako indarra bide honetatik doana da, herritarrena".

IÑAKI ZARRAKO
GETXOKO ALKATE OHIA



"Bizikidetzaren alde izugarritzko lana egiten ari da Gure Esku Dago"

"Bizikidetzaren alde izugarritzko lana egiten ari da Gure Esku Dago mugimendua. Honek gaitu egiten du soilik berdin pentsatzen dugunon artean ondo konpontze hori. Desberdinak izanda ari gara proiektu bat batera lantzen. Bide hauetatik eta demokratikoki jarraitzen badugu, seguru lortuko dugula [erabakitze eskubidea gauzatu ahal izatea]. (...) Kontua da bestea ulertzea, momentua iristean gure herria batuago egoteko, edozer gerta ere denok pozik geratzeko bidea elkarrekin egin dugulako. Eta pentsatu behar dugu agian herriak beste era batera pentsatuko duela geroago. (...)

Eta ni seguru nago estatuak konturatu direla ez dela posible zerbait nahi duen herri bati bere erabakia ukatzea".

ZELAI NIKOLAS
GURE ESKU DAGO



"Ez gaitu bereizten, batzen gaituen tresna da erabakitze eskubidea"

"Erabakitze eskubidearen inguruan pedagogia egin nahi dugu; erabakitze, lehenengo informatuta egon behar da. Urte honetan egin duguna izan da erabakitze eskubidea zer den azaltzea, eta erakustea batzen gaituen tresna bat eta eskubide bat dela; ez gaituela bereizten, aukera ematen digula proiektu politiko guztiak mahai gainean jartzeko eta bakoitzak berea defendatzeko, baliabide berdinekin. (...) Azpimarratuko nuke nola lortu dugun arrakasta hain epe motzean: iruditzen zait herrietan badela hainbat jende beti jakin izan duena zubigintzan lan egiten, egoera latzenetan ere harremanak normaltasun batean mantentzen. Gure Esku Dago izan duen abilezia izan da jende horrengana joatearena".

Giza katea hedabideetan

Euskal Herrikoak lankidetzan

Giza kateak hainbat hedabide batu ditu lankidetzan aritzeko. Goiena dago horien artean. Tokikom-en batzen diren euskarazko beste tokiko hedabideekin batera, ordea, nazio mailakoak ere ariko dira: *Berria*, *Argia*, *Info 7*, *Hitza*, *Ahotsa*... Goizean goizetik ariko dira eta batutako materiala —soinu, irudi zein argazki— eskura jarriko dute, Interneten. Lantaldearen eragina handitu egingo da era horretara.

Bi saio ekoiztuko dituzte: bata, goizean, zuzenean; irudi bidezko irratia. 10:00etatik 14:00etara, Info7 eta Arrosa sareko irratien eskutik eta interneteko plataformetan streaming bidez emango da, baita *Goiena.net*-en ere. Gauekoak, Argiak, Hamaikak, Topatuk, Ahotsak eta Goienak elkarrekin ekoiztuta, giza kateak Euskal Herrian utzi duena kontatuko du. Giza kateak Debagoienean utzitakoaren gaineko saio bereziaren ostean emitituko du Goiena telebista saio hori.

Goienak jarraipen berezia



GOIENA TELEBISTA

Goiena telebista saio berezia eskainiko du domekan, 21:00etan hasita. Eguna Debagoienean emandakoa jasoko du. Horren ondoren, giza katearen Debagoieneko tarte osoa ere eskainiko du. Gero, Euskal Herri mailako saioa, beste hedabideekin elkarlanean ekoiztua. Hortaz, gaueko bederatzietatik aurrera, informazio osoena.

'GOIENA.NET'

Goizeko lehen orduetik, bideoak, argazkiak, albisteak...; Euskal Herriko mapa interaktiboa argazkiekin; zuzeneko streaminga... Bestalde, Goienaren Twitterreko kontuak, @goiena-k, uneoro informatuko du.

GOIENA PAPEREA

Zortzi orrialde eskainiko dizkio asteleheneko GOIENA paperekoak: giza katea, Debagoieneko herritarren ekimenak, Bergarako jaiguneko ekitaldia, balorazioak, inkestak, argazkiak...

HERRITARREN ARGAZKIAK

Goienak dei egiten die herritarrei tokian tokiko argazkiak bidaltzeko. Bi bide daude, Whatsapp edo Telegram erabilita: 688 69 00 17.

TWITTER

'@GureEskuDago'

'#21km', '#22km', '#23km'...

Garrantzi berezia eman diote Twitterri, katea uanean-uean jarraitzeko tresna bezala. @GureEskuDago-k bidalitakoekin batera, 123 kilometroetako bakoitzetik bidalitako txioak jarraitu ahal izango dira, bi traolaren bitartez: egunean jakinaraziko dutena bat eta dagokion kilometroarena bestea.



GURE ESKU BIDEA

2014-06-08

Erabakitze eskubidearen aldeko giza katea
Nazio bat gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarren garaia da!

GU
BAGOAZ

ITURRIETA SAGARDOTEGIA

Iturrieta Baserría • Arraga Auzoa • ARAMAIO
jji.iturrieta@yahoo.es • Tel.: 945 445 385 • 685 721 593

dukiena
JATETXEA

Azkoaga (zabola) • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 86

ALMACENES LASCAR

GASOIL BANAKETA • OILIOAK (REPSOL)
OLIO ALDAKETAK • NEUMATIKOAK ETA GARBIKETAK
a.laskar@laskar.es • www.laskar.es

merkecartuchos

• Toner eta tinta kartuxoen
errekarga eta salmenta
Loramendi kalea 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 31
www.tiendasmerkecartuchos.com

Autoen kristalak konpondu, aldatu eta tindatu

DESACRISTAL

www.desacristal.com

Santalaiz, 6 - 5. Pab. 83 P.K. BERGARA
Tel.: 943 76 36 09 Faxa: 943 76 73 45.

Basabe Jatetxea

ETORRI ETA PROBATU
GURE MENU BERRIAKI!

Basabe poligonoa P.C.1 • Aretxabaleta
Tel.: 943 77 31 19



Eskuz esku bidea eginez, ia urtebete

J.I. | ARRASATE

2013ko ekainaren 8an Irungo Ficoban aurkeztu eta aste gutxiren buruan hasi ziren Gure Esku Dago dinamika Debagoienean ere martxan jartzeko lehen mugimenduak.

Otsail hasierarako ekintza sorta eginda, herri handienetako

–Antzuola ere bai haiekin– lantaldeen ondotik etorri dira azken hilabeteetan gainerakoetakoak, guztietan sortu arte.

Ekintzaz ekintza, bana-banako atxikimenduak batuz, gero eta jende gehiago batu da erabakitze eskubidearen aldeko ekimenaren arrimura.



JULEN IRIONDO

ANTZUOLA Otsailean katea egin zuten Lizargaraten, Bergararik eta Oñatitik igotako lagunekin batera.



ESKORIATZAKO GED

ESKORIATZA Maiatzaren 16an argazki herrikoa atera zuten plazan. Hantxe bildu ziren askotariko eskoriatzarrak, eta argazki harekin babesa adierazi zioten erabakitze eskubidearen aldeko dinamikari.



JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA Asteburuan egin dute Aseztzion giza katea; bi aste lehenago, plazan, herri-argazkia.



J.I.

OÑATI 2013ko ekainean hasi zen martxan Gure Esku Dagoren lantaldea; irailan plazan egindako lehen aurkezpenaren ostean, sinatze ekitaldia egin zuten urtarrean eta bideoklip arrakastatsua grabatu maiatzean.



IMANOL SORIANO

ARRASATE Jendetza erakarri zuten apirilean Kataluniako *casteller*-ek, baita Bergaran ere.



I.S.

ARAMAIO Martxoan egin zuten aurkezpena, Sastiñan, eta ordutik "bikain" erantzun dute herritarrek.



I.S.

BERGARA Domekan bailarako kilometroetan izango diren herrietako ordezkariak batu ziren maiatzeko zubian; Bizkaiko herrietakoak ere etorri ziren, eta giza katera deitzeko egindako horma-irudian argazkia atera.



MIRARI ALTUBE

ARETXABALETAKO Katea osatu zuten herritar ugari eguaztenezan plazan, entsegu modura.



I.S.

URBIA Lizargaraten, Debagoieneko hiru herriren artean egindakoa izan zen ekainaren 8rako giroa berotzeko egindako aurrenekoetakoak; Urbian, Gipuzkoako zein Arabako eskualdeek batera egindakoa, azkenetakoa.

AUKERA BIKAINA **ARRIOLA** herrian (Asparrena - Araba)

ASPARRENGO UDALAK

1.502,02 metroko partzela salgai du.

Urbanizatua, itxiera perimetrala.

Etxebizitza familiabakarra egiteko aproposa

Proposamenak aurkezteko azken eguna: ekainak 27

Informazio gehiago: www.asparrena.net edo

Udal Bulegoetan. Tel.: 945 30 40 06



Oraina zaindu eta etorkizuna sendotu dute BECen enpresek

Debagoienetik hamar enpresa izan dira Makina Erremintaren biurtekoan

MIREN ARREGI | BARAKALDO

Makina Erremintaren biurtekoaren garrantzia azpimarratu dute azoka horretan parte hartzen diharduten Debagoieneko enpresetako ordezkariak. Astelehenean hasi eta bihar (zapatua) bukatuko da topaketa hori; eta hain zuzen ere, eskualdeko enpresek euren bezero direnekin harremanak sendotzeko topaleku beharrezkotzat jo dute bi urtean behin egiten den azoka hori. Horrez gainera, etorkizunerako bideak zabaltzen edo errazten ere laguntzen duela berretsi dute enpresariak.

Mila enpresatik gora

Guztira, 27 herrialdetako 1.314 enpresa erakusketa baino gehiago daude egunotan BIEMH azokan parte hartzen, azken edizioan baino %12 gehiago.

Datu gehiago: 800 makina inguru eta 300 berritasun eta prestakuntza-hitzaldi dabilta izaten. Eta bertan parte hartzen duten enpresen %57 atzerritarrak dira. Herrialde batzuk aipatzearen, Alemania, Austria, Txina,



Imanol Barrenetxea-Arando eta Iñaki Goldmayo, aipamenarekin. | MIREN ARREGI



Antzuolako Oerlikonen stand-a. | M.A.



Elgetako Sisteco-ko ordezkariak. | M.A.

Frantzia, Holanda, Suedia, Hego Korea, Suitza eta Taiwango enpresek bat egin dute Barakaldoko erakustazokan.

Fagorri aipamen berezia

Eskualdetik ere ordezkariak zabala joan da bertara, hamar enpresa: Danobat kooperatiba (Soralue kooperatiba tarteko), Fagor Automation, Fagor Arrasate, Oerlikon Balzers (Antzuola), Sisteco (Elgeta), Sitalu SL (Bergara), Talleres Filber SL (Bergara), Tecnosystem (Bergara) eta Num CNC Highend Applications SA (Oñati).

Biurteko azokaren antolatzaileek, AFM elkarteak (Advanced Manufacturing Technologies, makina erremintaren fabrikatzaileen Espainiako elkarte), erabaki dute aipamen berezia merezi duela Fagor Automatioren: diseinu eta berrikuntza alorreko aipamen berezia. Berrikuntzaren alorrean AFMk antolatzen duen sariketa da hori, eta bi saridun aukeratzeaz gainera, aurrean, Fagor Automatioren aipamen berezia aitortu diote ko ntrol numerikoaren alorrean egindako berrikuntzaren gaitik. Fagorreko ordezkariak makina horren garrantzia azpimarratu dute "etorkizunean bide asko" zabalduko dituen erreminta izango dela uste dutelako.

Aipatzea da, baita ere, BIEMHk berak erakusketari nabarmen zerrandan aintzat hartu dituela Danobat eta Soralue, besteak beste.

Bergaran izan ezik, gainerakoetan langabezia behera

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Apal baina behera jarraitzen du langabezia eskualdean. %12,49ko tasarekin; urteko daturik baxuena da maiatzeko. Hain justu, 2014ko lehen hilabeteetan gora egin eta gero apiriletik maiatzera behera egin du langabe kopuruak herri guztietan, Bergaran izan ezik; han %0,37 egin du gora. Bestela esanda, apiriletik maiatzera, ia 60 langabe gutxiagorekin geratu da Debagoiena. Eta herriei dagokienez, Arrasate jarraitzen du langabezia handien izaten.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	100	%9,17
Aretxabaleta	338	%10
Arrasate	1.643	%15,86
Bergara	867	%12,36
Elgeta	43	%7,93
Eskoriatza	258	%12,67
Leintz Gatzaga	8	%5,93
Oñati	467	%8,90
GUZTIRA	3.724	%12,49

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

CLINICA DENTAL BERGARA

Bidekurutzeta 36 BERGARA • Tel.: 943 76 05 77
www.clinicadentalbergara.es

20 urteko
esperientzia
inplantologian

*Kontsulta eta aurrekontua doan
Zure tratamendua finantzatzen dugu.*

Espezialitate bakoitzerako mediku-talde kualifikatua dugu

ODONTOLOGIA

A. Pastor doktorea
B. Esteban doktorea
U. Artetxe doktorea

ORTODONTZIA

Y. Otero doktorea

PERIODONTZIA

P. Gonzalez doktorea

INPLANTOLOGIA

F. Juarros doktorea
U. Artetxe doktorea

ENDODONTZIA

M. Iruretagoiena doktorea

DKV • MAPFRE • IMQ/ADESLAS • SANTA LUCIA • EROSKI
OCASO • PREVISORA BILBAINA • ORBITA • ACUNSA • AEGON



GBBko kideak Aretxabaletako batzokiaren aurrean. | GOIENA

GBB, eskualdearen egoera bertatik bertara ezagutzen

ENKO AZKARATE | DEBAGOIENA

EAJren Gipuzko Buru Batzarrak Aretxabaletako batzokian egin du bere asteroko bilera. Buruzagitza jeltzalea Debagoiengan izan da, "bertatik bertara ezagutzeko bailararen egoera". Horrela, eskualdeko EAJren barne karguekin eta kargu publikoekin bilera izan dute.

Gipuzkoako jeltzaleen ordezkariak adierazi dutenez, "urte-

bete eskas" falta direnean hauteskundeetarako, EAJk agintaldiaren balantzea egin nahi du eta "heldu beharko dituen erroka nagusiak identifikatu". Besteak beste, "egoera ekonomiko -bailararen ekonomia bultzatu eta enplegua sortzeko aukera ezberdinetan bereziki sakonduz-, egoera politikoa eta gizartearen egoera" izan dituzte "hausnarketaren erdigunean".

Epailleak 'Egunkaria'-ren auzi ekonomikoa itxi egin du, ustezko delituak preskribatuta daudelako

Asteon itxi du *Egunkaria*-ren kontrako auzia Zubimendi epailleak, ustezko delituak preskribatuta daudela iritzita, eta auzipetutakoek izan zezaketen erantzukizuna amaitutzat eman du. Fiskalak bost eguneko epea dauka apelazioa aurkezteko. 2003ko urrian izan zen euskarazko kazetaren kontrako operazioa, eta zortzi hilabete lehenago itxi zuten. Inaki Uria *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkari ohi eta auzipetuak positiboki baloratu du erabakia. Edozelan ere, luze eta zabal jardungo du asteleheneko GOIENA paperekoan.

Uztailerako jabe berriak izan ditzake Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak

Asteon onartu du epailleak Fagor Etxetresnen eta Edesaren likidazio plana

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Pedro Malagon epailleak likidazio plana behin betiko onartu eta hogeigunegun ez bada errekurtsorik aurkezten, Fagor Etxetresna Elektrikoen eta Edesaren likidazio plana dagoenetan geratuko da.

Horrek esan gura du aurreantzean bi kooperatibok erosteko interesa dutenek (Cevital, CNA eta beste batzuk) eskaintza zehatzak aurkeztu beharko dituztela.

Bateratzeak, lehenetsuna

Behin betiko likidazio planean, besteak beste, salmenta bateratuak edo unitate produktiboka egindakoak "lehenetsuna" izaten jarraituko du; atzera botatzen da SAT (laguntza tekniko zerbitzua) unitate produktibo independente izateko eskatzen zuen alegazioa; Edesarengatik eskaintzaren bat baldin badago, "likidazio planean berau adjudikatzeko autorizazioa

eman dakioko, nahiz eta ez dagoen unitate produktibo gisa kontsideratuta", eta abar.

Liquidazio planean formula polinomiko bat zegoen, eta, horren arabera, lanpostu gehien sortzen zituen eskatzaileari puntuazio jakin bat ematen zitzaion. Orain, administrazio konkurtsalal formula hori zertxobait aldatzea onartu du, "enplegu bermea" kontuan hartuta. Ez du onartat eman erosleari aparteko derrigorrezko indemnitazioa eskatzeko alegazioa -erosleak kontratuak egingo balitu eta gero kontratu horiek desegingo balira, alegazio batek indemnitazioa ordaintzeko eskatzen zion, eta epailleak ez du hori onartat eman.

Honako hau gogorarazten du epailleak: "Konkurtsuaren helburuetako bat enpresak edo unitate produktiboak eta lanpostuak aurrera jarraitzea da, baina lan-kontra-

tuak ez ezereztetik abiatzen da hori; ezereztetik badira, ezin daiteke esan lanpostu-jarraipena dagoenik, eta erosleen aldetik (...) lanpostuak sortzea Lege Konkurtsalaren helburuetatik kanpo gelditzen da".

Arrazoi horiengatik, epailleak ez du onartu langile kopuru minimo bat izateko inongo baldintzarik. Horrek ez du esan nahi azkenean ez denik hala izango, eskatzaileek Fagor Taldearekin negoziatu beharko dutelako marken erabilera, eta hor Fagor Taldeak enpleguaren aldeko irizpideak ipiniko dituelako, Goienari konfirmatu zion moduan.

Enpresaren zorrak

Bestalde, epailleak onartutako likidazio planaren arabera, Fagorren edo Edesaren erosle izango denak ez ditu bere gain hartu beharko enpresaren zorrak, ez eta bazkideenak ere.

zerbitzua euskaraz eman nahi dizugu

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetgia erantzuteari eta parte hartu produktu kulturalak erosteko 50na euroko 3 bonoren zozketan



bete hemen galdetgia

eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia



TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

GAI ZERRENDA

EGUNA: EKAINAREN 25a, EGUAZTENA.

ORDUA: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrean.

LEKUA: Ikastolako aretoa (San Juan kalea, 1)

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2013/2014 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea eta, badagokio, onartzea.
3. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2013 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2014 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2014/2015 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea eta, badagokio, onartzea.
7. Gurasoen Kontseiluaren txostena azaltzea.
8. Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Galde-eskeak.

OHARRA:

Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

Oñatin, 2014ko ekainaren 6an

Marta Ferrer | Mediku alergoogoa

"Zenbat eta herrialde garatu eta aurreratuagoa, orduan eta handiagoa alergiak dituztenen kopurua"

- ▶ Arrasateko Kulturateko areto nagusia bete egin da Marta Ferrer medikuaren hitzaldian
- ▶ Alergia kasuen ugaltzeak garbitasunarekin eta ohiturekin zerikusi zuzena duela dio

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Nafarroako Unibertsitateko Alergologia saileko zuzendaria da. Ameriketako Estatu Batuetako hainbat unibertsitate eta osasun zentrotan aritutakoa. Oraingo astean Arrasaten izan da alergiaren gainean berbetan eta ikusmin handia sortu du haren hitzaldia: *Zergatik arago du horrenbeste alergiak.*

Gaur egun lehen baino alergía kasu gehiago dago?

Bai, bai, bai, hori hala da. Eta, gainera, gure bizimoduarekin zerikusi zuzena duela esan genezake; izan ere, mendebaldeko herrialde garatuetan gertatzen den fenomeno da. Zenbat eta herrialde garatu eta aurreratuagoa, orduan eta handiagoa da alergiak dituztenen kopurua. Garatu bako herrialdeetan ez da alergiaren gorakadak sumatu. Hori horrela da. Zergatik den ez dakigu, baina imajina genezake bizimoduarekin, ohiturekin... zerikusi zuzena daukela.

Zertan aldatu dira gure ohiturak?

Hipotesi nagusiak garbitasunarekin dauka zerikusia. Umeek, hazi ahal, eta gaixotasunei aurre egiteko txertoak hartzen dituzten heinean, germenekin kontaktatu txikiagoa daukate eta sistema immunitarioa aldatu egiten zaie; ondorioz, gortzak hainbat substantzia ezezaguntzat hartzen ditu, berez ez direnean ezezagunak.

Ingurumenarekin edo kutsadurarekin zerikusirik ez dauka?

Egin diren ikerketen arabera, ez. Esaterako, ikerketa baten, Suediako eta Estoniako bi hiritako umeak konparatu zituzten. Estoniakoak hiri industrial edo kutsatuago batekoak ziren, Suediakoak aldean, non ingurumena asko zaintzen den. Ikerketak ondorioztatu zuen Suediako umeek alergía-gaixotasun handiagoak dituztela. Beste ikerketa bat egin zuten Alemanian, bi herrialdeen bategitearen aurretik. Ekialdeko Alemanian alergía kasu

gutxiago izaten ziren, baina bategitearen ostean parekatu egin ziren alegía kasuak. Zientifikoki, arrazoi konkretua ez da egiaztatu, baina bizi ohiturekin zerikusia daukela argi dago. Hipotesiak egiaztatzen du neurri bateraino ona dela germenekin, zikinkeriarekin edo base-ri-guneeekin harreman zuzena edukitzea alergiak saihesteko.

Alergia mota guztiak hazi dira?

Botiken aurkako erreakzioekin lotutakoak izan ezik, gainerakoan artean, bereziki, arnasketarekin edo elikagaiekin zerikusia duten alergiak hazi dira.

Hau arazo da?

Bai. Asma edo errinitis kasuekiko prebalentzia populazioaren %15 eta %20 artean dago. Hori oso tasa handia da.

Euskal Herrian, noiz jabetzen zarete arazoaz?

Gaixotasun alergiko asko ume-soian agertzen dira, baina, azkenaldian, 30 edo 40 urteko geroago eta jende alergiko gehiago dago, batez ere udaberrian, normala den moduan. Arrazoiak ikertzen dihardugu eta mundu mailan epidemiologia ikerketa sakonak egiten gabilta.

Zeintzuk dira gauregun alergía komunenak?

Kasu gehienak polenari lotuak daude eta udaberrian izaten dira. Horretaz gain, akaroek alergía dioten ere asko dira. Akaroek giza eskamak jaten dituzte. Etxean daude. Kantauri isurialdean, eguraldi heze freskoarengatik, asko ugaltzen dira.

Zein da soluzioa?

Animalia mikroskopikoak direnez, ezin dira ikusi eta soluzioa da medikuntza: botikak, baina batez ere txertoak, akaroz egindakoak, gaitzak edo alergiak saihesteko edo gutxitzeko.

Oro har, eta batez beste, populazioaren ze zatik dauka alergiaren bat hemen?



Alergien alorrean ospe handiko medikua da Marta Ferrer. | GOIENA

Munduko populazioa aintzat hartuta, %15 eta %20 artean. Hemen, %12-15 artean gaude.

Alergia arazo dira da medikuntzaren eta osasun agintariendako?

Bai, serioa da. Urgentziak edo lehen mailako arretako medikuek diotenez, gero eta gehiago dira alergiengatik kontsultak. Horrek gastu sanitario handia dakar eta, bestalde, pazienteen bizi kalitatean eragin zuzena dauka. Esaterako,

"Laguntasuna behar dute ume alergikoen gurasoek eta ingurukoek"

elikagaiei alergía dioten umeek eta haien gurasoek, bereziki, biziki sufritzen dute gaitzarekin, eguneroan buruhausteak sortzen dizkietelako, eta abar.

Alergia osa daitezke?

Arnasketarekin zerikusia dutenak txertoekin senda daitezke. Immunoterapiaren bidez. Gaixotasuna zenbat eta lehenago antzeman, orduan eta hobeto, eta 3-5 urteren epean senda daiteke: pastillak, tantak... dira erremedioa. Bestalde, elikagaiekin lotutako alergiari aurre egiteko, desensibilizazioa erabiltzen da. Demagun esnari alergía diola ume batek, bada, dosi txikiak eman eta dosia apurtzoka handituz, gaitza daiteke gaixotasuna.

Graminiek eragindako alergiak zelan senda daitezke?

Sendatzeko errazena da eta txertoekin senda daitezke.

Pertsonarendako ondorio larriak izan ditzakete alergiak?

Bai, jakina. Esaterako, liztor baten ziztadak erreakzio larriak izan ditzake pertsona batzuegan, bizitza konprometitzera.

Gizarteak, agintariekin eta medikuntza autoritateekin behar besteko garrantzia ematen diete?

Lehentasuneko arazo izan arren, uste dut ezetz. Heziketa kontua ere bada, gizarteak ez dago arazoak jabetuta eta guztion ardura da. Horrez gainera, alergiak dituzten umeen gurasoek eta ingurukoek laguntza behar dute eta eskoletan eta arazoak berba egin behar da, arazoak jabetzeko eta hobeto ezagutzeko hezi egin behar da. Osasun heziketa garrantzitsua da. Bestalde, ezinbestekoa da ikerkuntzarako baliabideak bideratzea.

Ez dira sasoi onenak ikerkuntzan inbertitzeko...

Baina beharrezkoa da etorkizuneko onurak ekarriko dituen sektoreetan inbertitzea.

Azkenaldian, urteroko kontua da udaberria heldzean entzutea datorrena bereziki larria izango dela alergía dute-nadako. Zergatik da hori?

Udaberria zelakoa izango den jakin daiteke aurreko udazkenean egin duen euri kopurua kontuan hartuta. Azkeneko hiruzpalau urteak polen kontzentrazio txikiak izan dira eta, ondorioz, ez dira oso gogorak izan alergiak dituztenendako. Gertatzen da, askotan, informazio oso orokorra heldzean zaigula eta ez dela berdin Iberiar penintsulako erdi edo hegoaldean gertatzen dena eta hemen gertatzen dena, eguraldia ezberdina delako.

Hedabideetan, gizarteak, oro har, geroago eta gehiago egiten da berba alergiaren gainean.

Bai, geroago eta gehiago dakigu honi buruz, baina onena da mediku espezialistengana jotzea arazoaren gaineko zantzurik baldin badaukagu.

RPS: 68/14



PHONO GUNE

otorrinolaringologia klinika

HEMEN GAUDE:

Udalaitz Mediku Zentroa

Euskal Herria Plaza 3 ARRASATE – 943 79 44 22

Urbietza Mediku Zentroa

Urbietza kalea 58 DONOSTIA – 943 47 01 44

**Otorrinolaringologia kontsulta berria
ARRASATEN (Udalaitz Mediku Zentroan)**

Juanjo Navarro eta Mikel Landa doktoarak

Azterketa diagnostikoa teknologia aurreratuarekin eta ENTZUMEN, SUDUR, EZTARRI eta LEPOko gaixotasunen tratamendu mediku-kirurgiko integrala:

- Gortasuna, zorabioak (bertigoak) eta akufenoak
- Arnasteko zailtasunak. Errinoplastia estetikoak
- Zurrungen eta loaren apnearen tratamendua.
- Ahotsaren patologia eta otorrinolaringologia pediatrikoa

ZABALIK

URTZI AMIANO

goiena.net/komunitatea/



Aitte

Bihar beteko ditu urteak aitak, 66. Gertakari honekin batera hainbat eta hainbat oroitzen etorri zaizkit burura; hunkigarriak gehienak, guztiak ez esatearren. Jaio nintzenez zure bularraren kontra estutu eta ferekatu ninduzun. Ez nintzen konturatzen.

Hainbat mendi tontor igo genituen familian, askotan eskutik helduta, zuk emandako segurtasunak edozein malkar igotzeko kemena ematen baitzuen. Ez nintzen konturatzen.

Umetan bihurri samarra nentorren, emandako ipurdikoak gutxi ziren, gehiago merezi nituen. Ez nintzen konturatzen.

Baserrian eta oporretan pasatakoak ahaztezinak izan ziren. Ez nintzen konturatzen.

Jokatzen eta parte hartzen nuen partiduetara etortzen zinen.

Ondo egitean, handiusteak kentzen zenizkidan eta gaizki eginei inportantzia kentzen zenien. Ez nintzen konturatzen.

Larrialdietan ere beti hor zinen, errieta zein lasaitasuna adierazten zenuen. Ez nintzen konturatzen.

Hainbeste eman eta kendu zidan kirola utzi nuenean, han zinen; nire malkoak zure bihurtu zenituen. Ez nintzen konturatzen.

Ezkontza-egunean eta semeak jaio zirenean ere han zinen, bion aurpegiak harrotasunez bete ziren. Ez nintzen konturatzen.

Gaixotasuna etorri zenean, gizentasunez hartu zenuen, irmo, sendo. Eredua ematen segitzen zenuen. Ez nintzen konturatzen.

Bukaeran, lagunengana joaten ginen autoan batera; batzuetan, isiltasunak hartzen gintuen, ez zen hitzen beharrik izaten, dena esanda zegoen. Ez nintzen konturatzen.

Azken hatsa ez zen bertsoz sakonena izan, baina lau haizetara zabaldu zen. Ez nintzen konturatzen.

Orain ni ere aita naiz eta inoiz baino gehiago sentitzen dut aita naizela. Ez zaude gure ondoan. Joan zinen. Orain bai, aita, orain bai, konturatzen naiz. Zorionak eta eskerrak asko *Aitte!* izanikoa, zarena eta izango zarelako. *Egongo gare.*

"Ez zaude gure ondoan, joan zinen; orain bai, orain konturatzen naiz"

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.com

Futbola ez besteak

Ekainaren 14rako, Brasilen jokatu duten munduko txapelketa hasita egongo da; eta asko hari begira. Aretxabaleta, oster, futbola ez beste kirol mordoaren topaleku izango da *Kirolez busti* jaia dela-eta. Lehenengoz egingo dute, eta poztu egin nau ekimenak. Poztu, herriko elkarte eta talde askok egin dutelako bat UDAl, Udalak eta Aretxarte merkatarien elkarteak elkarlanean antolatutako jaiarekin; eta poztu, kirol mordo egiteko aukera izango delako, futbola izan ezik: gimnastika erritmikoa, judoa, karatea, trialsina, dokea, pilota, frontenisa, lasterketak, kriketa... Erakustaldiak ikusi, txapelketan parte hartu eta, zergatik ez, beste kirol batzuetara zaletu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Futbola: emozioen bahitzailea

Olatz Sanchez

argia.com/blogak/olatz-sanchez/

Egun batzuk baino ez dira falta Brasilen ospatu behar den munduko futbol txapelketa abiatzeko. Txileko kaleak futbolari loturiko iragarkiez bete dira; bidaia merkeak zozketatzen dabilta Rio de Janeirora, sakelakoetan aplikazio bereziak instalatu ahal dira txapelketa jarraitzeko. [...]

Brasilen bestelakoa da giroa: kaleak manifestazioez beterik daude, mundialaren aurka dauden gizon eta emakume ugari txapelketaren ondorioez kexu dira Rioko kaleetan. Mundialak ezer onik ekarriko ez duela jakinik, orain arteko desoreka sozialak areagotu besterik ez ditu egingo. Mundiala ospatzeko eraiki dituzten azpiegitura gehienak bukatu barik daude eta bien bitartean, diru andana xahutu dute hiriaren "garbiketari"; txirolek "garbitu" dituzte turistak begiradatik, ez omen zen itxurosoa eskekoak glamourrarekin nahastea

argazki subrealista batean. Elite batzuentzako negozio borobila sortu da: emakumeon gorputzak salerosketa merke eta errentagarria dira, zenbat eta gazteago, orduan eta prezio hobean erdietsi ahal izango dute neskaten hankartea.

Txileko selekzioan bada Johnny Herrera izeneko jokalaria. Atezain gisa jokatzen du Universidad de Chile futbol taldean; 2009an autoan mozkorrik eta abiadura bizian zihola, emakume bat harrapatu eta bertan hil zuen. Epaiketan fiskaltza, neskatoaren familia eta jokalaria defentsa akordio batera iritsi ziren epaiketaren prozedura bertan behera geratzeko. Hala, jokalaria neskatoaren familiari hogeita bost milioi peso ordaindu zizkion (hogeita hamairu mila euro inguru) eta futbol eskola txirolek kirol materiala emateko konpromisoa hartu zuen.

2012an mozkorrik harrapatu zuten oster, gida baimena faltsuturik; atxilotu eta bost ordura askatu zuten. 2013an ospatutako epaiketa berriari 41 eguneko kartzela zigorra jaso zuen eta gidabaimena bi urtez kendu zioten. Hala ere, ez du selekzioan parte hartzeko eragozpenik izan; fiskaltzak

bere neurrira egindako "zigorra" dela dirudi. Ospea delituak ordaintzeko kreditu txartel berria da.

Futbola emozioen bahitzailea dela uste dut; futbolak gauza asko barkatzen ditu, gehiegi, akaso. [...]

Protagonistek gloria dastatzen dute zelaian, golak dedikatzen dituzte eta ile mozketa modernoak egiten dituzte, datorren asteko aldizkarian portada izango direnak, ziur aski.

Baina eliteko kirolean aritzeak bestelako erantzunkizunak ere baditu, edo beharko lituzke.

Pertsona eredu(garri)ak dira gazte askorentzako, haien jokabidea tribuaren jokabide bihurtuko da ondoren, portaera kultural berrien paradigma. Haien keinuak, berbak, estetika eta izaera kaleko beste heziketa horren erreferentzia izango dira. Herreraren kasuaren aurrean zigor morala arintzeko kapazak dira, txapelketako gola (eta gloria?) justizia baino garrantzitsuagoa delako haien emozioen zurrumbiloi; Brasilgo matxinaden berri izan eta partidak ikustera joango gara, futbolak gure oinarriko emozioak bahiturik dituen bitartean bai, bederen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendaria Iban Arantzabal

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezilab, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ONATI

Antonino Ibarondo gogoan

- ▶ 100 urte beteko lituzke eta omenezko diskoa, liburua eta kontzertuak prestatu dituzte
- ▶ Bilboko Udal Musika Bandaren zuzendaria ere izan zen Oñatiko semea

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Antonino Ibarondo Oleaga musikari eta konpositore oñatiarrak 100 urte beteko lituzke ekainaren 12an. Mendeurren hori aitzakia hartuta, haren omenezko diskoa grabatzen ibili dira azken bi aste hauetan Oñatiko Udal Banda, txistulariak eta abesbatzak. Azaroko musikaldia haren omenezkoa izango da eta ordurako egongo da prest. Liburua ere aurkeztuko dute eta hiru kontzertu entzungo dira orduan.

Tituluduna

Antoninoren semea, Iñaxio Ibarondo, ibili da diskoaren grabaketa zuzentzen. "Gure aitak 300 obratik gora ditu, transkripzioak aparte. Pieza batzuk arinak dira eta beste batzuk, fuertek. Horregatik, diskoa hiru talde edo zatitan banatzea pentsatu dut. Talde baten pieza gogorak egongo dira eta horiek Oñatiko Udal Bandarekin grabatu ditugu. *Oñati* eta *Aloña Mendi* piezak eta habanera bat, berriz, abesbatzekin batera grabatu ditugu. Kantuan jasoko diren piezak dira horiek eta neuk moldatu ditut okasiorako. Bestalde, txisturako ere lan asko egin zituen aitak eta herriko txistulariekin fandango bat eta arin-arin bat grabatu dugu", azaldu du Iñaxio Ibarondok.

Santa Ana antzokian grabatu dute diskoa, zatika, azken bi aste hauetan. Azaroan aurkeztuko dute. Gainera, orduan egingo dituzten kontzertuetako baten ere hiru talde horiek hartuko dute parte. Hirugarrenean.

Antonino Ibarondoren omenezko lehen kontzertua azaroaren 9an izango da, Santa Anan. Haren seme Felix Ibarondok egindako



Oñatiko Udal Bandako eta abesbatzetako kideak eguazteneko entseguan, Iñaxio Ibarondo eta Xabier Ugarte aurrean dituztela. | JULEN BIAIN

piezak entzungo dira. "Gure etxean musikak presentzia handia izan du beti. Nik esaten dut anaia fraide joan zela musika ez ikasteagatik, baina begira noraino heldu den. Munduko bazter guz-

tietara heltzen da", dio Iñaxio Ibarondok.

Bigarren kontzertua Bilboko bandak emango du, parrokian, hango zuzendaria ere izan zelako Antonino Ibarondo.

Pedagogo ona

Haren biografia jasoko duen liburua ere azarorako bukatu gura dute Jose Antonio Azpiazuk eta Xabier Ugartek. Hura ezagutu zutenek, haren ikasleek eta etxekoek emandako informazioa jaso dute; materiala badute, eta forma ematen ari dira orain. "Bere biografia izango da liburuaren muina eta musika ere ezinbestean agertuko da. Gipuzkoan titulua zuten hiru musika zuzendari zeuden lehen: Miguel Gonzalez Bastida bergarra, Francisco Escudero zarauztarra eta Antonino Ibarondo. Maila handiko musikaria izan zen", adierazi du Jose Antonio Azpiazu historialariak.

Antoninoren izateko era eta bertute edo abileziak ere jasoko ditu. "Banda zuzendari moduan gogoratzen dugu askok, baina pedagogoa oso ona izan zen. Oñatiko musikarien %90 inguru haren eskutik pasatakoak dira. Adibidez, azterketa kanpoan egin zuten oñatiar batzuei ea ikasketak non egin zituzten galdetu zieten, maila handiko azterketa egin zutelako. Bere etxera ere musika egiten bai, baina idazten ez zekiten asko etortzen ziren, laguntza eske. Oñati oso ondo ezagutzen zuen eta txoko bakoitzerako pieza bat egin zuen, adibidez. Horrelako pasarteak ere jasoko ditugu liburuan", azaldu du Xabier Ugarte musikariak.

ESANAK

"Gipuzkoan tituludun musika zuzendari gutxienetako bat zen hura"

JOXE ANTONIO AZPIAZU | MUSIKARIA

"300 piezatik gora egin zituen gure aitak, transkripzioez gainera"

IÑAXIO IBARRONDO | MUSIKARIA

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net



Hasteko, Ferixalekuan jarriko dute TAO sistema; 50 bat ibilgailurendako lekua dago bertan. | JOKIN BEREZIARTUA

TAO sistema udazkenean helduko da Ferixalekura, erdigunera hedatu aurretik

- Proba moduan jarriko da, astelehenetik zapatara
- Doakoa izango da; helburua da errotazioa bultzatzea

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

TAO sistema Arrasateko erdigunera helduko da udazkenean. Proba moduan helduko da, Ferixalekura, eta doakoa izango da. Gune horretan 50 ibilgailu inguru sartzen dira eta sistema ezartzen denean gidariek gehienez 90 minutuz aparkatu ahal izango dute bertan. Izan ere, helburua ez da dirua lortzea, baizik eta ibilgailuen errotazioa bultzatzea. Sistema indarrean jartzen denean ordutegia izango da 08:00etatik 14:00etara, astelehenetik zapatara. Unibertsitatean ez moduan, bertako bizilagunei ez zaie egoiliar txartelik banatuko, helburua delako erdigunean bizi ez diren herritarrei erosketak bertan egiteko erraztasunak ematea.

"Ezaugarriak ezberdinak dira"

Hori erabaki zen, besteak beste, martitzeneko osoko bilkuran. Bilduren eta Aralarren aldeko botoekin eta EAJren eta alderdi sozialistaren kontrako botoekin onartu zen.

Unibertsitate inguruan sistematik oso ondo funtzionatzen duela dio Udal Gobernuak, baina bi

guneetako beharrak ezberdinak direla iritzita, erdigunean ere poliki-poliki ezarri gura dute TAO sistema: "Erdialdeko eta unibertsitate inguruko eskaerak ez dira berdinak. Badakigu eragile batzuek erdigune osoan jarri gura dutela TAO sistema, baina unibertsitate inguruan eman diren hutsune eta gabeziak ekiditeko poliki-poliki joan gura dugu", adierazi du Udal Gobernuak bozeramaile Maider Morrasedek.

EAJren arabera, arrasatearrek eta Ibai-Arteko merkatariak "aspaldi" eskatu zuten TAO erdigune osoan jartzea: "Pentsatzen genuenean behingoz erdigunean jarriko zela, ez dugu ulertzen proba gehiago egitea aparkaleku txiki horretan", dio jeltzaleen bozeramaile Juan Karlos Garitanok.

PSE-EEko eledun Aritz Arrieta ere jeltzaleen iritzia berekoa da: "Beharrezkoa da TAO erdigune osoan ezartzea, herritarrek eta Ibai-Artekoek hala eskatzen dute-eta. Arazoa ez da konpontzen TAO Ferixalekuan bakarrik jartzen. Probak egin dira beste eremu batzuetan".

Enplegurako ahalegin berezia

Osoko bilkuran onartu ziren gai garrantzitsuen artean, enplegua sustatzeko jardura berriak nabarmendu behar dira. Enpleguaren eskumena Jaurlaritzarena izan arren, Arrasateko Udalak ahalegin berezia egingo du aurten enpleguari begira. Lau ildo ireki dituzte: Udalak herriko langabeak kontratatuko ditu interes publikodun proiektuak garatzeko, Arrasateko enpresei diru-laguntzak emango dizkiete herriko langabeak kontratatzeke, enplegu azoka antolatu dute eta titulatu berriei bekak emango dizkiete praktikak egin dezaten. Lau ildo horietarako 350.000 euro bideratu dira eta martitzeneko osoko bilkuran aho batez onartu zen proposamena.

Bestalde, udalbatzak aho batez onartu zuen Aukea kirol erakunde autonomoa desegin eta kirol zerbitzuen kudeaketa Udalak bere gain hartzea. Aldaketarekin "eraginkortasunean eta koordinazioan" hobetu gura dute, besteak beste; erabiltzaileek ez dute aldaketarik igarriko.

"Josurekin egiten ari direna eskandalagarria da"

Inazio Azkarragaurizar alkateak Uribetxeberria aske uzteko eskatu du asteon egindako bisitan

U.M. J.B. | ARRASATE

Etxean preso dagoen Josu Uribetxeberria arrasatearra bisitatzen izan ziren eguaztenean Udaleko eta Arrasateko Herri Bilguneke ordezkariak, haren egoerarengatik kezkatuta dudelako. Bisitaren ostean, besteak beste, manifestazio deialdia egin zuten ekainaren 13rako, Uribetxeberriaren askatasuna eskatzeko.

Hala, alkateak uste du Uribetxeberriarekin egiten ari direna "eskandalagarria" dela: "Ez dugu onartzen Josu etxean espetxeratzea, eta bere bizitzaren azken fasea duintasunez igarotzen uztea eskatzen dugu. Aplikatu diezaiotela legea eta utz dezatela libre, eta harekin batera gaixorik dauden preso guztiak. Euren eskubidea da". Edozelan ere, Uribetxeberria "animoso" ikusi zutela azpimarratu zuen Inazio Azkarragau-

rizarrek. Eta jakinarazi zuen gaur egungo egoera politikoa-ekin lotuta Uribetxeberriak honako mezu hau helarazi zuela: "Jarrai dezagula konponbidearen eta bakearen alde egiten, bide onetik goazela".

Prentsaurrekoa Monterronen Alkatearekin batera Uribetxeberria bisitatzen izan ziren Arrasateko Udaleko bozeramaile Maider Morrasedek, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Arrasateko Herri Bilguneke ordezkari Ramon Urrizalki eta preso arrasateararen anaia Jabi Uribetxeberria.

Denborak ez du etenik, gaixo larriak kalera! Iosu askatu! lelopean egingo dute hilaren 13ko manifestazioa, Arrasaten. Manifestaziora joatera deitzeko, prentsaurrekoa egingo dute hilaren 10ean Monterron parkean (19:30).



Herri Bilguneke eta Udaleko ordezkariak, Uribetxeberriaren anaiarekin. | U.M.

'Mondragoe beirazko plaketan' erakusketa gaur irekiko dute

Arrasateko argazki zaharrenek biltzen dituen *Mondragoe beirazko plaketan* erakusketa gaur irekiko du Arrasate Zientzia Elkarteak Kulturarteko klaustron. "Jende gaztea ere etorriko dela uste dugu", adierazi du Xabier Bengoak. Bada, uztailearen 6ra arte egingo da zabalik.

Zerua behatuko dute gaur Laubiden eta Udala auzoan

Ilartegi elkarteak eta Udaleko Gazteria Sailak zerua behatzeko saio praktikoa antolatu dituzte gaurko. 19:00etatik 21:00etara, Laubide plazan elkartuko dira eguzkiaren behaketa egiteko eta 22:30etik 00:30era, berriz, Udala auzora igoko dira ilargiaren gaineko xehetasun guztiak ikasteko.

Portaloi elkartearen 10. urteurreneko bazkarirako txartelak, hilaren 10era arte

J.B. | ARRASATE

Portaloi kultura elkarteak hamar urte bete dituela-eta, ospakizun berezia egingo dute ekainaren 14an (zapatua). Deialdi irekia da eta bazkarian parte hartu gura duenak 20 euro ordaindu behar du Laboral Kutxako kontu korrante zenbaki honetan: 3035 0001 52 0010100336. Ekainaren 10a baino lehen egin behar da

ordainketa. Pintxo-potearekin hasiko dute eguna (11:00) eta gero kantu-jira egingo dute. Ondoren, kantaldi nagusia egingo dute Herriko Plazan (13:00) eta 14:30 aldera Biteri plazara joango dira bazkaltzera -eguraldi txarra bada, Gaztelupe gunean egingo dute, San Viator Handin-. Amaitzeko, 17:30 aldera, erromeria egingo da Herriko Plazan.



Chatarrería
Mondragón, s.l.

Era guztietako txatarra eta metalak erosten ditugu.

Pabiloiak, ganbarak... garbitu, eraikinak bota...

Makineria handia dugu.

Txurrisena poligonoa, 1. lokala.
Musakola auzoa, Pesako garajeen ondoan.
Arrasate
Telefonoak:
943 04 44 03 eta 605 75 70 04.



- MUSIKA HEZKUNTZA EGOKITUA-ALTERNATIBOA
- Gitarra, piano, ukelele eta baxu eskolak.
- Ikasi musika hizkuntza modu ludiko eta esperimentalean!
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.
Tel.: 627 13 26 14 • olatzurkia@gmail.com



Iazko Garagardo Azoka; aurten, orain arte egon ez diren garagardo marka berriak dastatu ahal izango dira. | IMANOL SORIANO

Garagardo Azoka bihar arte, kalitatea bereizgarri

Aurten sei garagardo marka berri; bihar karpa egun osoz egongo da zabalik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Asteon Herriko Plazatik pasa den herritarrek badaki Arrasate Rugby Taldearen Garagardo Azoka ospatuko dela aste bukaeran. Astelehenean muntatu eta atzo ireki zuten karpa, pintxo-pote bereziarekin eta MUKO Kirol Zerbitzua-rekin batera antolatutako herri kirolekin; bihar arte egongo da zabalik.

Azokaren 16. edizioa da aurten, eta sei garagardo marka berri egongo dira salgai. Guztira, 1.800 litro garagardo eskatu dituzte, eta, antolatzaileek aditzera eman dutenez, garagardo marketako batzuk berriak izango dira. Hau da, aurreko edizioetan ekarri ez diren garagardoak egongo dira aurten.

Goi mailako edana eta jana

Urtero moduan, jatekorik ez da falta izango: besteak beste, opilak, oilaskoak, saltxitxak eta txerri-ukondoak dastatu ahal izango dira. Bihar izango da egun han-

dia. Izan ere, goiz eta arratsaldez egongo da zabalik karpa –bertan bazkaltzeko aukera egongo da– eta Mojategin jokatu den Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketako sari banaketa ere bihar egongo da, 21:00etan. Ondoren, jokalariek guztiek elkarrekin afalduko dute.

Bestalde, herritar batzuk kezu agertu dira karpak Herriko Plaza hartzen duelako. Horietako batek honako hau dio: "Plaza ehunka umek, gaztek eta helduk egunero erabiltzen dugu eta urtero ekaineko zazpi egunez ekimen pribatu baten okupazio ulertezina pairatzen du. Karpa erraldoi bat jarri nahi badute, aukera dezatela beste kokapen bat. Herriko Plaza guztion erabilerarako da".

DATUA

1.800

LITRO GARAGARDO

Azokaren 16. edizioan orain arte egon ez diren garagardo marka berriak dastatzeko aukera egongo da; guztira, 1.800 litro.



SERGIO AZKARATE

'Errenteriako esperientzia' Kulturaten, Lokarri esker

J.B. | ARRASATE

Lokarrik, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak, Errenteriako alkate Julen Mendoza gonbidatu du Kulturatera. *Adostasunak landu. Errenteriako esperientzia* izenburupean egongo den solasaldiaren helburua askotariko usadio politiko eta alderdi sozialerako pertsonak biltzea da, Foro Sozialaren gomendioetan jasotzen diren funtsezko gaien gainean berba eta gogoeta egin dezaten.

Solasaldia ekainaren 11n izango da, Kulturaten (18:30). Leku aldetik mugatua izango denez, izena ematea ezinbestekoa da. Antolatzaileek bi bide ireki dituzte izen-ematerako: 943 50 60 59 telefonora deitzea edo *bizkaia@lokarri.org* helbide elektronikora mezu bat bidaltzea.

Umeen danborradarako arropak

Ekainaren 14an egongo da umeen danborrada. Maiatzaren 10ean hasi ziren entseguak, Arizmendiko Gaztelupe gunean (San Viator Handi). Bada, SUDC elkartekoak hasi dira arropak banatzen. Ekainaren 2an hasi ziren eta hilaren 11ra arte banatuko dituzte, Nafarroa etorbideko egoitzan –17:00etatik 18:30era–. Konpainia bakoitzaren datak jakiteko, Jesus Mari Egidazuri deitu: 646 45 22 83.

Herri Eskolaren jaia gaur eta Ikastolaren Eguna hilaren 13an

J.B. | ARRASATE

Arrasate Herri Eskolak gaur egongo du ikasturte amaierako festa, Biteri plazan. Hainbat ekintza egongo dituzte: magia tailerra, musika tailerra, grafiti tailerra, eskulanak, aurpegi margotzea... Gainera, jatekorik eta edatekorik ez da falta izango; Eusko Label oilasko izterrak eta hamburgesatxoak jateko aukera egongo da.

Festa-guneko jolasez aparte, merienda (17:00), Ikusi Makusi taldearen ipuin musikatua (17:30), *Sabel dantza* ikuskizuna (19:00), La Banda del Abuelo musika taldearen kontzertua (19:30) eta disko-festa (20:00) egongo dira Biteri plazan.

Ikastolak ere egitarau zabala

Arizmendik ekainaren 13an ospatuko du Ikastolaren Eguna. Biteri plazan tailerrak, puzgariak eta artisauak egongo dira, 17:00etatik aurrera. Era berean, Seber Altube plazan olinpiadak, jolas tradizionalak, herri kirolak eta musika emanaldiak izango dira, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako eskutik. Umeendako "momenturik politena" 19:00etan helduko da, orduan egongo diote-eta ongietorria Argitxori. Gainera, ipuin kontaketa eta magia saioak ere egongo dituzte. Amaieran, abesbatza, BH Klip bideo lehiaketako sari banaketa eta Mery May musikariaren kontzertua egongo dira.

Edertasunaren eta ongizatearen hilabetea, Ibai-Arteren eskutik

Ibai-Arte merkatarik elkartea eskaintza berri batekin dator. Edertasunaren eta norberaren ongizatearen arloan lan egiten duten elkarteko komertzioek 50 euroko 50 bonu zozketatuko dituzte Ibai-Arte txartela erabiltzen duten bezeroen artean. Eskaintza uztailearen 15ean amaituko da.

Izena eman daiteke 80 urtetik gorakoendako omenaldirako

Alkatetzak aditzera eman duenez, San Juan egunean urtero egiten den 80 urtetik gorakoendako omenaldirako eta bazkarirako izena eman daiteke oraindik. Interesatuak BAZen eman beharko dute izena, ekainaren 19a baino lehen. Beharrezkoa izango da Nortasun Agiria aurkeztea.

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
 - Pet
 - First
 - Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batxilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es



Arrasate Kanpanzarreko hiru kadetek Espainiako txapelketan hartuko dute parte

Eneko Carrascal, Daniel Martinez eta Ibai Fernandez Euskadiko Selektzioarekin batera lehiatuko dira

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kanpanzarreko hiru atleta gazteak Euskadiko Selektzioaren baitan Huelvan, ekainaren 12an, jokatuko den txapelketan izango dira. Kanpanzar taldeko hiru atletak Euskadiko taldearekin joan den asteburuan Valladoliden jokatu ziren autonomia arteko txapelketetan jarduteko aukeratu zituzten. Hiru lasterkariek marka apartak egin, eta Espainiako txapelketarako txartelarekin itzuli ziren etxera.

Carrascalek errekorra

Hiruretatik, marka onena Eneko Carrascal gazteak eskuratu zuen. Salto hirukoitzean, 13,93 metroko saltoarekin urrezko domina lortu zuen Carrascalek eta Gipuz-

koako marka berria ezarri du. Espainiako sailkapenean lehena da orain, gainera. Ibai Fernandezek brontzezko domina ekarri zuen etxera 100 metroko lasterketan. Aurkako haizearekin egokitu zitzaion korrika egitea eta horrek ohiko denboraren azpitik jarri zuen atleta gaztea. Hain zuzen, haize gogorak egun hartako denborak kontakteta ofizialeetatik kanpo utzi zituen, gogorregi jotzen zuen-eta. Azkenik, Daniel Martinezek 600 metrokoan egin zuen lasterka eta podiumetik postu batera geratu zen, laugarren, 1.27 minutuko marka eginda. Denbora ona da, halere, Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxienez iritsi baita Valladolideko emaitzarekin.



Carrascal, Martinez eta Fernandez atletak. | FERNANDO ZUFIRIA

Zaldibarko finalean bihar Dribling eta Sonografos

J.B. | ARRASATE

Txapelketako puntako bi talderen artekoa izango da aurten finala. Nor baino nor gehiago jardungo dute 17:30 zapatuan Sonografos eta Dribling taldeek, eta, ezer izatekotan, borrokatua izango da garaipena, duda barik.

Sonografosok Aldatz taldea kanporatu zuen (6-3) aurreko jardunaldian eta Driblingek, berriz, Haizea laga zuen lehiaketatik kanpo. Azken hori aurten ezusteko taldea izan bada ere eta amaierara bosteko berdinketarekin iritsita, penaltietan huts egin eta finala Driblingekoen eskuetan utzi zuten joandako zapatuan. Ezin uka neurketa baten zein bestearen kasuan, finalerdietako talde guztiak azken unera arte lehiatu zirela finale-rako txartela lortzeko.

J.B. | ARRASATE

Garage eta punk doinuek hartuko dute gaur gaztetxea (22:00), Sumision City Blues eta Yakuzas taldeekin. Gitarrak mezuak bezain zorrotz, grina erakustaldia izango da gaurkoa.

Sumision City Blues, Gasteiztik, *Golden* izeneko disko berriarekin itzuli da oholta gosez, etena egin ostean. Bi munduren arteko talka batek bereizten du gasteiztarren soina, jazz munduko musikariak rockaren izerdiak zaildutako kideekin egiten du-eta bat Sumision City Bluesen. Bazterkeria eta inuzitiari rockezko amorruz erantzuten dio taldeak eta ezer baino lehen abestiak, indarra eta mezua jartzen dituen taldea da. Obligacioneseko Pela da bandaren gidaria eta inor epel ez uzteko moduko jarrerarekin aurkezten den horietakoa da. Madrildik Yakuzas garage estiloko taldea etorriko da. Espainiako hiribu-

Lan berria aurkeztuko du Yakuzas-ek gaztetxean



Yakuzas taldekoak diskoaren aurkezpenean, Madrilén. | YAKUZAS

rako Chamberi auzoko rock-and-roll kolpagarri zein *castizo*-a da eurena eta apirilean labetik atera berria dute *Matogrosso* EPA, eta aurkezpen birako bigarren emanaldia izango da Arrasaten egingo dutena. Ibarrean jardun bikoitza egingo dute eta domekan, barrikukoa galdu edo errepikatu gura dutenentzat, Oñatiko Pakon ere joko dute.

Eskulanak zapatuan

Asteburuko jardueri dagokienez, bihar, zapatua, tailerra egingo dute gaztetxeok. Birziklatutako gaiak erabilia sormen tailerra antolatu dute (17:30). Lepokoak, apaingarriak eta, besteak beste, diru-zorroak egiten erakutsiko dute gazteek eta deialdi irekia egiten dute nork bere sormena askatu eta eskulanean jarduteko. Asteburukoekin batera, AGAKOK domekako Gure Esku Dago ekimenaren giza katera batzeko deiarekin ere egiten du bat.

Zabalik, Arrasate Musikaleko matrikulazio epea

J.B. | ARRASATE

Ikasturte amaierako emanaldiekin jarraitzen dute Arrasate Musikalekoek eta gaurkoa perkusio ikasle diren neska-mutikoen txanda izango da Monterrongo eskolan (18:00). Doakoa da kontzertua. Hain zuzen, oraingo astean, eguenean, klarinete eskole-takoek ere egin dute urte amaierako musika erakustaldi berezia.

Horrekin batera, eskolatik jakinarazi dute datorren ikasturterako matrikulazioa zabalik dagoela. Ekainaren 20ra arte egin ahal izango dira 2014-2015 ikasturterako izen-emateak. Zarugalde kalean du egoitza Arrasate Musikalek eta bulego-ordutegia 10:00etatik 12:00etara eta 16:30etik 19:30era da. Edozein zalantza argitzeko, 943 77 05 40 telefonora dei daiteke.



Jokalarien jardun ona eta dedikazioa saritu ditu Mondrak

Sariak eman zituen Mondrak joan den zapatuan Sara Merenderuen. Kiroltasuna, konpromisoa, laguntasuna eta halako balioak saritzen ditu taldeak. Sari bereziak ere banatu zituzten.



Horietako bat Ander Ruiz de Azuari egokitu zitzaion (lehen argazkian, Ander Garairekin), bizitza osoko dedikazioarengatik. Beste argazkian, Uxue Ezpeleta, kadete sariduna.

Pintura ikasleen lanak gaur arratsaldean Seber Altuben

Kulturateko pintura eskole-tako ikasleei ere iritsi zaie urtean zehar ikasitakoak erakusteko txanda. Horrela, gaur arratsaldean egingo dute urte amaierako ohiko erakusketa. Seber Altuben ipiniko dituzte lanak ikusgai, 18:00etatik 21:00etara bitartean. Urtean zehar egindako margoekin osatuko dute mostra.

Reyes Azkoitiak txupinazoa botata hasiko dira gaur Pentekosteak

- ▶ Plazan Imuntzo eta Beloki eta txosnetan Glaukoma, Kashbad eta Adams Party egongo dira gaur
- ▶ Erraldien topaketa, 'Iparraldea Bergaran' kontzertua eta Gure Esku Dagoren giza katea dira berrikuntzak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Guztia prest dago gaur, 20:00etan, jaietako hasiera emateko. Reyes Azkoitiak botako du aurten txupinazoa udaletxeko balkoitik, eta, Seminarioko teilatutik jaitasi ostean, ondoan izango du Bitorianatxo –Blanca Narbaizak emango dio bizia aurten ere–. "Harriduraz hasieran", baina "pozik" hartu zuen Azkoitiak txupinazoa botatzeko Udalaren eskaria. Pazkoak gustuko ditu eta martitzenera arteko egunak kalean ekitaldiez gozatzeko igaroko dituela aurreratu du. Eta hori opa die herritarrei ere: "Jaiak ondo pasatzea, disfrutatzea".

Denendako moduko egitaraua

Jaietako zapia lepoan jarri eta denendako moduko egitaraua antolatu dute Udalak zein Herri Mugimenduak jaietz disfrutatzeke. Eta eguraldiari dagokionez ere, iragarpenak onak dira –askok gogoan dituzte iazko euriak.

Gau eta egun euskara lagun leloa darama aurtengo jaietako



Reyes Azkoitia, Leire Iruin, eta Blanca Narbaiza. | MONIKA BELASTEGI

zapiak, eta, tabernetan eskuragarri badago ere, gaur eta bihar postua jarriko du Jardun euskara elkarteak San Martin plazan. Zapiak hiru eurotan eskura daitezke.

Aurtengo berrikuntzei dagokionez, bereziki hiru azpimarratu ditu Leire Iruinek, Kultura zinegotziak: batetik, zapatuan egongo den erraldien topaketa: "Erraldien konpartsak Katalu-

niako talde batekin egindako elkartruke batetik abiatuta, hango konpartsa bat etorriko da eta Mutrikuko eta Hernaniko bana ere bai. Eta bi kalejira egingo dira, gainera, goizean eta arra-

tsaldean". Zapatu gauean 23:00etan San Martin plazan egongo den Iparraldea Bergaran emanaldia ere azpimarratu du: "Ohiko erromeria barik, eserita lasai entzuteko kontzertua izango da Iparraldeko zenbait bakarlarirekin. Aulkiak jarriko ditugu plazan".

Eta, nola ez, domekarako Gure Esku Dago dinamika antolatutako giza katea ere izan du gogoan: "Egun ederra izango da. Kanpotik jende asko etorriko da, Bergara egun horretako gune garrantzitsuetako bat izango delako. Ekintza asko egongo dira, eta horrek guztiak Pazkoekin bat egitea oso polita izango da".

Txosnagunea ere dotore

Txosnagunea izango da, urtero bezala, jaietako gune nagusietako bat, eta askotariko ekitaldiak egongo dira bertan gaur, 20:30ean hasi eta martitzenera arte. Hiru txosnak, lasai jateko mahaiek eta aulkiek eta agertokidun karpak osatuko dute gunea. Udalak San Martin plazan jarriko duen txosna ere haiei egokitu zaie.

Zazpi eragilek jardun dute guztia prestatzen: "Egun guztietara zabaldu dugu eskaintza eta egitarau euskaldunaren bila joan gara", esan du Aitzol Gandiagak, Herri Mugimenduko kideak.

Glaukoma, Kashbad eta Adams Party taldeekin abiatuko dute gaur egitaraua, 23:00etan.

Pazkoetako egunez eguneko informazio guztia zenbaki honetan bertan kontsulta daiteke, 31-49 orrialdeetan.



Mirari

Ibargarai hiribidea 14 • Bergara • Tel.: 943762393

2015. urtean ekingo diote Miguel Altuna berriari

Data zehatzik ez dagoen arren, beranduenez 2018-2019 ikasturterako ekingo da lekualdaketa

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Urteetan gelditu egon eta gero, Bergarako Miguel Altuna Institutua Otsein lantegiaren ingurura eroateko proiektua 2015. urteko aurrera hasiko da betetzen. Martitzenean Jaurlaritzako ordezkariak aurkeztu zuten proiektua institutuan, eta, data zehatzik eman ez zuten arren, beranduenez 2018-2019 ikasturterako mar-txan egotea espero dute.

"Data jartzea ez da lan erraza, baina datorren urte hasieran lizitatu nahi dugu proiektua", azaldu du Olatz Garamendik, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak. Zaila izango den arren, ahal izanez gero, Jaurlaritzak urte honen bukaeran lizi-

tatu nahi du Miguel Altuna berriaren proiektua. "Funtsezkoa den proiektu bat da eta ahalik eta bizkorren garatu nahi dugu", argitu du sailburuordeak.

Proiektu ezaguna da; izan ere, Patxi Lopezren gobernuak garatutako proiektua da azkenean Candy Hoover enpresaren alboan eraikiko dena. "Lizitazioa burutu

eta gero, 20 hilabete beharko dira obra guztia egiteko", zehaztu du Garamendi sailburuordeak.

Guztira, 10.000 metro koadro izango dituzten bi eraikin izango ditu institutu berriak, eta, Ibar-garai kaleko eraikinak bezala, berriak ere bi guneak lotuko dituen zubi bat izango du. Proiektuak 12,5 milioi euroko aurrekontua dauka. "Lehen proiektuak apartakalekua eta solairu bat gehiago zituen, baina arlo ekonomikoa asko zaindu behar den une honetan, pozik gaude proiektuak aurrera egingo duelako", argitu du Miguel Altuna Institutuko zuzendari Josune Irazabalek. Jaione Isazelaia ere antzerako iritzia dauka: "Udal Gobernu taldeak pozarren hartu du obrak laster hasiko diren berria". Eta gaineratu du udalkide guztien kezka iturri dela eta izan dela lanbide heziketa eskolak duen egoera.

Horren inguruan egindako lanaren adierazle izango da astelehenean Legebiltzarreko Hezkuntza batzordeak Miguel Altunara egingo duen bisita. "Udal talde guztien izenean institutuko arazoak bertatik bertara ezagutzera etortzeko gonbita egin genien parlamentariari", dio alkateak.

Kokaleku eta eraikin berriak institutuaren aukera eta eskaintzak ere handituko ditu, industriarekin zerikusia duten modulu berriak eskaintzeko aukera izango dute-eta bertan.

Ibargaraiko eraikina

Lekualdaketa egiten denean, Seminarioko patioan dagoen eraikina Udalaren eskuetara pasako da, eta zubiaren beste aldean dagoen institutu zatia, aldiz, Jaurlaritzaren eta Udalaren artean kudeatuko dute. Bigarren zati hori etxebizitza promozioetarako gordeta dago, 2.200 metro koadro Lakua-arentzat eta 1.100 Udalarentzat.

Langilezain eskaeraren epea ekainaren 13ra arte luzatu du Udalak

Bergarako Udalak Obra eta Zerbitzuen brigadarako obretako langilezaina kontratatzeke epeari buruz Udalak bidalitako informazioa ez zen zuzena. Eskaintza horretan izena eman nahi dutenek ekainaren 13a arte izango dute aukera. Langilezain eskaintzarekin batera eskaintako beste bi lanpostuetako datuak, aldiz, ondo daude.

Herria ezagutzeko ibilbidea egingo du San Joxepe elkarteak

Hilaren 19an izango da eta izen-ematea 12an amaituko da. San Joxepetik abiatuko da ibilaldia, 09:30ean. Handik Mekolaldera joango dira, beheko trenbidetik. Buelta Goiko trenbidetik egingo dute eta bidean hamarretako egongo da. Bazkaria ere egongo da, 14:00etan elkarteko jatetxean, eta bazkatzera joateko izena ematea ere beharrezkoa da.

Koru parrokiak 'Salve Regina' abestuko du bihar

Gaur hasiko diren Pentekoste jaiei hasiera emateko, bihar, arratsaldeko zazpitan, Rosa Narbaizaren zuzendaritzapean, H. Eslava konpositorearen *Salve Regina* obra abestuko du koru parrokiak San Pedro parrokian. Antolatzaileek zehaztu dutenez, meza ostean egingo duten emanaldia ikusgarria izango da.

ESANAK

"20 hilabete beharko dira eraikin berria egiteko"

OLATZ GARAMENDI
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO SAILBURUORDEA

"Pozik gaude proiektuak aurrera egingo duelako"

JOSUNE IRAZABAL
MIGUEL ALTUNAKO ZUZENDARIA



Jaurlaritzako ordezkariak Miguel Altunako arduradunekin institutua bisitatu. | IMANOL GALLEGO



IXAUN Jatetxea

Elosu auzoa 6 - Bergara
Tel.: 680 77 69 33

- Gosariak
- Bazkariak
- Afariak
- Sagardotegiko menua
- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta
- Ogitartekoak
- Pintxoak
- Enkarguak

Iturgintza - Berokuntza *Ondo pasau jaixak!*

Laskurain




- Energia berriztagarriak (biomasa, aeroterminia, solarra,...)
- Kalefakzioak (lur-radiantea, radiadoreak,...)
- Minusbaliarako adaptazioak
- Altzariak, manparak, osagarriak, iturriak, ...

Barrenkalea 44 • Tel.: 943 76 24 89

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara
943 76 07 92

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

SUBIJAI

0 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat arropa















Irizar Pasealekua 1 - BERGARA
Tel.: 943 76 42 41



BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Eguaztenean egin zen lehen baserritar azoka. | IMANOL GALLEGO

Bertako produktuak bultzatuz, hasi da Oxirondo osatzen

Herriko kulturak eta gaztetxoei zuzendutako tailerrek ere tokia izan dute lehen baserritar azokan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Eguaztena egun handia izan zen Oxirondoko azokarentzat, hura biziberritzeko dinamikatik sortutako baserritarren azoka estreinatua baitzen; eta nola, gainera!

Inguruan aparkatzea inoiz baino zailagoa zen, eta jendeak era masiboan erantzun zuen. "Bazen garaia", zioen azoka

aurrean zegoen erosle batek. Jendeak, tartean gazte askok, azoka erabiltzeko gogoia zuen, eta eskaintza eta ordutegia ere aproposak izan ziren: "Lanean gaudenontzat primerako ordutegia aukeratu dute eta produktuak, bertakoak direnez, zaila da zerbait ez erostea", azaldu zuen beste herritar batek. Baserritar azokak

izandako harrerak txundituta laga zituen gertuko ekoizleak. "Lehen eguna zela-eta produktu gutxi ekarri dugu, baina jende asko etorri da", argitu zuten Barrenkaleko Velez de Mendizabal ahizpa gozogileek. San Blas auzotik jaitsitako Kristina Ugarte ere baior zen: "Lehen eguna izateko jende asko gerturatu da eta poliki-poliki bagabiltza eka-rritakoa saltzen".

Ama Mia jatetxeko sukaldariak azokako produktuekin egindako tabernarekin batera, gaztetxoei zuzendutako tailerra izan zen arratsaldeko izarra. "Ideia ona izan da, umeekin gurasoak etorri dira-eta", argitu zuen beste saltzaile batek. Bertakoa bultzatzeko Aser Polvorosak herriko idazle eta musikarien lanak ere eroan zituen azokara.

Betiko saltzaileak

Haiek ere nabaritu dute baserritarren azokak erakarritako jendetza. "Azokak horren beharrezkoa zuen burrunbada entzuten da orain", aipatu du saltzaile egonkor batek. Mertxe Altubek, baina, jende gehiago ibili zela aipatu arren, nobedadea eta jendea erdian geratu zela argitu zuen. "Gurera betiko erosleak gerturatu dira", dio saltzaileak.

Lagun kuadrilla gehienetan entzuten zen esaldia zen: "Ea honek jarraipena duen". Jende ugari erantzun zion azokatik egindako gonbitari, eta saltzaile, erosle eta antolatzaileek ezin zuten euren poztasuna ezkutatu. "Zapatuetan bezain beste jende etorri da, eta hori adierazle ona da", azaldu zuen Andoni Larrañagak, Bagarako kideak.

Estreinaldiaren ostean, baina, hitzordua egonkortzea da hurrengo erronka. Eguaztenean ikusitako erantzunaren ostean, ez da erronka zaila izango.

Poteo Izarrak eta Diego Valor taldeek jokatu dute Labegarrietako areto futbol txapelketako finala

Ligan bikain ibili ostean, eta Minimou taldea *play-off*-etan kanporatu eta gero, bi taldeek ez dute aurkaririk izan. Antolatzaileek aipatu duten moduan, gaur 20:30ean jokatu duten partiduan pikea bizi egongo da. Poteo Izarrek, baina, aurreko astean kopa irabazi eta gero, faborito etiketarekin iritsiko dira finalera. Ordu bete lehenago, Komando Piperrak eta Irama Elgeta hirugarren postuagatik lehiatuko dira.

Pentekosteak direla eta, ekainaren 7tik 10era, biak barne, Agorrosingo kirol instalazioak itxita

Bergarako Pentekoste jaiak direla eta, bihartik eguaztena arte, biak barne, Agorrosingo kirolguneko instalazio guztiak itxita egongo dira. Pentekoste jaiak irauten duten bitartean kirola egin nahi duten herritarrek, baina, izango dute horretarako aukera. Hain justu ere, Labegarrietako kiroldegia zabalik egongo da egun osoan, 08:45etik 21:30era. Denerako aukera izango da, beraz, Pentekosteetan Bergaran. Festarako bai, eta kirola egiteko aukera ere bai.



HANKA-LABANKA

Azken postua, baina pozik

Duela bi urte ekin zioten Hanka-Labankakoek Hockey Lineari, eta aurreko zapatuan Labegarrietako kiroldegian izandako txapelketan azken postua eskuratu arren pozik daude: "Beste taldeen maila izugarria zen", dio taldeko kide Joan Ander Egañak. Senior mailako txapelketarekin batera, gazte mailakoek, harrobia indartzen joateko asmoarekin, lagun arteko jokatu zuten.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Kyokushin
kontzentrazioa eta entrenamenduak.
Asteburua Espejon.
Giartzu klubak antolatua.



ZARE
FRUTA-DENDA

Irizar Pasealekua 3
BERGARA
Tel.: 943 76 38 83



Ondo pasau jaixak!



Jai zorientsuak bergarar guztiei!

Banakako eskola teorikoak

Ordutegi malguak:
teorikoak / praktikoak

Fraiskoziuri 5 behea.
E-posta.: autoeskola@urresgoi.com
Tel.: 943 03 78 05

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Arte udalekuetarako izen-ematea zabalik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aurten ere arte udalekuak antolatu dituzte gaztelekuan. Ekainaren 30etik uztailaren 24ra izango dira, goizez, eta izen-ematea zabalik dago ekainaren 20ra arte.

Arte udaleku horiek Lehen Hezkuntzako seigarren mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetan ari diren adineko gaztetxoendako izango dira, eta beharrezkoa izango duten material guztia gaztelekuak jarriko du.

Monitoreak kontratatzeko deialdia, berriz, gaur, egubakoitza, bukatzen da. Irakasleak aukeratu ostean egingo da udalekuetarako plangintza nagusia. Ez da udaleku hauek antolatu dituzten lehen aldia, eta aurreko urteetako esperientzia oso ona dela aitortu dute antolatzaileek. "Talde txikiak sortu izan dira, gazteenak, eta oso giro ona egon da. Gaztelekuetik kanpo egindako ekimenak ere gustukoak izan dira: Guggenheim museora irteera, kalean egindako gauzak, erakusketa..."



Torreauzoko lursaila, atzean Errekalde ikusten dela. | TXOMIN MADINA

Aisialdirako ortuak, urte bukaerarako

Torreauzon eta San Martinen daude horretarako prestatuko diren lursailak

T.M./O.E. | OÑATI

Autokontsumo osasuntsura bideratutako aisialdirako ortuak eskaini gura die Udalak herritarrei, hainbaten eskariari eran-

tzunez. Hainbat aukera aztertu ostean, bi gune ikusten ditu proposak horretarako: San Martin auzoan bat eta Torreauzon bestea. "Zumeltze dorrearen inguruko

lursaila, esaterako, jabeago pribatukoa da. Harremanetan egon gara jabearekin eta errenta eta baldintzak zehazten ari gara orain. San Martingo eremuan, berriz,

bi lursail publiko eta pribatu den beste bat daude. Aztertzen ari gara", dio Udaleko Nekazari-tza teknikari Aitor Gerenabarrenak. Interesa dutenek gune bat edo bestea nahiago duten erabaki beharko dute, eta horren arabera erabakiko du Udalak gune bakarra edo biak egokitu.

Auzolana

Udalak emakidan eskainiko ditu lurrak eta ezaugarri dagokienez, sail txikiak 30 metro koadro izango ditu, eskatzailearen beharren arabera gehiago izan ditzakeen arren. Bestalde, erabiltzaileek sarrerako kuota bat ordaindu beharko dute (50-70 euro) eta baita urteko beste bat ere (70-90 euro). Asmoa da beste herrietako esperientzietan oinarrituta, ortuzain guztiendako azpiegitura komunak jartzea; txabolak edo uraren banaketa, esaterako. "Horrek eskatzen du nolabait elkarbizitza bat zure ondoko ortuzainarekin. Erabiltzaileek, gainera, elkarte bat osatu beharko dute Udalarekin harremanak izango dituen", azaldu du Aitor Gerenabarrenak.

Auzolanaren bitartez baratzeez eraikuntzan ere parte hartu ahal izango dute ortuzainek.

Udaletxean

Interesa duten herritarrek ekainaren 20a aurretik eman behar dituzte datuak udaletxean: izen-abizena, helbidea eta Nortasun Agiri zenbakia. Bi guneetatik gustuko den zena izango dute ere bai.

Uraren aferak aurrez aurre jarri ditu berriro ere Bildu eta EAJ

Maiatzeko osoko bilkuran izandako egoeraren harira prentsa agerraldi bana egin dute, astean, udalbatza osatzen duten alderdi politiko biek

O.E. | OÑATI

Uraren tarifazio berriaren behin-behineko onespina bertan behera uztea alderdi biek onartu zuten azken osoko bilkuran, maiatzekoan. Puntu horretan, baina, alkateak kritikatu zuen 2008. urtean EAJren Gobernuak uraren kudeaketa Gipuzkoako Urak enpresaren esku utzi izana, Udalak eskumenak galduta. Orduko erabaki hura "txarra" izan zela uste dutela esan zuen Biainek, eta inbertsioak egiteko enpresak hartu zuen konpromisoa ez dela bete. Uraren faktura %64 igo dela ere esan zuen. Hori ez dela horrela erantzun zion Lourdes Idoiaga jeltzaleen bozeramaileak, eta eztabaida sutsu baten ondoren eta Bilduko zenbait zinegotziren portaerarekin ere kezku, osoko bilkura utzi zuen oposizioak.

Aste honetan, udalbatza osatzen duten alderdi biek egin dituzte prentsa agerraldiak osoko bilkura haren harira.

Bi alderdiek

Alderdi jeltzaleak eguazten goizetako zuzen deituta, ur ordenan-

ESANAK	
<p>"Larria deritzogu oposizio-buruak hartutako jarrera oldarkorrari"</p> <p>MIKEL BIAIN BILDU</p>	<p>"Ez gara aterako Bilduren probokazioak erantzutera"</p> <p>LOURDES IDOIAGA EAJ</p>

tzari buruz berba egiteko. Bilduk, berriz, martitzen arratsaldean egin zuen. Koalizioak adierazi zuen sakoneko arazoa dela 2008ko abenduan hartutako erabaki bategatik uraren kudeaketaren eskumena galdu izana, eta gaineratu du gobernuko ardurak dituztenek kritikak hartzen jakin behar duten moduan, iraganeko gobernu ardurak izan zituztenak ere hartu zituzten erabakien arduradun direla. "Larria deritzogu errespetuz eta lasaitasunez eman ziren datu objektiboen aurrean, datuok konfrontatu beharrean, EAJko oposizioburuak hartu zuen jarrera oldarkorrari", gehitu zuen.

Urarena ez da, gainera, adibide bakarra, EH Bilduren iritziz.

Lourdes Idoiak adierazi zuen EAJ ez dela Bilduren "probokazioei" erantzutera aterako eta oposizio "zorrotz eta konstruktiboa" egiten jarraituko duela. "Udal Gobernuak ur ordenantza berriaren onspina bertan behera utzi izanaz" pozten direla esan du eta horri gehitu dio "urtarrilean EAJk proposatutakoa egingo" dela. orain..

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Euskal Memoria taldeko kideak eguaztenean kultura etxean. | MAIALEN TORRES

Orain dela 20 urteko Uruguai gogora ekarriko dute Oñatin

MAIALEN TORRES | OÑATI

Oñatiko Euskal Memoria Taldeak hainbat ekintza antolatu ditu duela hogeita urte euskal iheslariak Uruguaiako El Filtron bizi izandakoak gogoratzeko. Datorren astean hasiko dira ekintzok.

80ko hamarkadaren bukaeran iritsi ziren lehenak Uruguaira. 1992ko maiatzean, hamahiru atxilotu zituzten Montevideon, eta, urtebete pasatu baino lehen gehienak aske utzi bazituzten ere, Jesus Mari Goitia *Manueltxo* oñatiarra, Luis Mari Lizarralde eta Mikel Ibañez ez zituzten libre utzi. 1994ko udan, hiru presoak Espainiako Estatura

estradiatutako zituztela iragarri zuten. Protesta gisa, hamalau egun iraun zuen gose eta egarri grebari ekin zioten hirurek eta Montevideoko El Filtro ospitalera eraman zituzten.

Ekainaren 10etik

Uruguaiarrei eskainitako babesa eskertzeko antolatutako ekintzen artean, martitzenean, gertakari buruzko liburua idatzi duen Jon Mintegiagak hitzaldia egingo du kultura etxean, eta egubakoitzean bertso jarriak izango dira Arranon. Hilaren 17an dokumental emanaldia egongo da eta 20an, afaria eta tertulia *Manueltxo*-rekin.



Aloña Mendiko kideetako batzuk lasterketa bukaeran. | I.A.

Hamahiru taldetatik onena Aloña Mendi, Euskal Herria mendi erronkan

Esaitetik antolatuta, 65 kilometroko mendi lasterketa Leitzaan jokatu zen

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskal Herria mendi erronkako irabazle izan da Aloña Mendi, taldeka. Maiatzaren 31n lortu zuen titulua, Leitzaan.

Lokatza

Euskal Selektzioaren ofizialtasunaren alde, Esaitetik antolatutako proba izan zen. Euskal Herria mendi erronka zen proba horren izena eta Leitzaan jokatu zuten joan den zapatuan, maiatzeko azken egunean.

Leitzaan (Nafarroa) hasi eta bukatu zen proba horrek 65 kilometro zituen eta Gaintza, Gorriti, San Miguel eta Lekunberri zeharkatu zituen, besteak beste. Parte-hartzaileak 725 izan ziren, tartean oñatiar asko. Lasterketa bukatu, baina, 500 inguruk egin zuten.

Hamazazpi lagunek osatu zuten Aloña Mendi taldea lasterketa hartan. Marije Zubizarreta taldekidearen esanetan, pozik daude

lortutakoarekin. "Bigarren aldiz antolatu dute proba eta aurten ezagutu dut. Hain lasterketa luzea egin dudan lehen aldian izan da, gainera, eta gustura nago, pozik. Eguraldi txarra zegoen iragarrita, baina, azkenean, ez zuen hain txarra egin. Lokatza bai, lokatza pila bat zegoen ibilbide osoan", azaldu du Zubizarretak.

Hamazazpi

Lasterketan hamahiru taldek hartu zuten parte, eta taldekako txapelketa irabazi zuen Aloña Mendik. "Taldea bat talde moduan hartzeko, derrigorrezkoa zen kideetako bat, gutxienez, emakumea izatea. Hala, hamahiru taldek hartu zuten parte. Denborak neurtzeko moduan, berriz, talde bereko lehen hiru gizonen eta lehen emakumearen denborak hartzen dituzten kontuan; lau denbora horiek batu egiten zituzten talde bakoitzaren denbora zein izan zen jakiteko", azaldu

du Zubizarretak.

Aitor Otamendiren, Aitzol Guridiren, Iker Agirrebaltzategiren eta Marije Zubizarretaren denborak batu zituzten Aloña Mendiren denbora jakiteko. Horien batera taldea osatu zutenak izan ziren: Maite Anton, Asier Urdanpilleta, Joxe Mendiola, Iñaki Mendizabal, Aitor Zugasti, Eneko Madina, Joseba Igartua, Xabier Larrea, Joseba Agirre, Ander Zabarte, Andoni Guridi, Pablo Arejolaleiba, Luis Urigoien eta Iban Isasti.

Hurrengo erronka

Lasterkari horiek, orain, Hiru Haundiak proba dute buruan. Gehienek hartuko dute parte datorren asteburuko proba horretan. 100 kilometroko mendi lasterketan, Gorbeia, Anboto eta Aizkorri igoko dituzte. Kirol horrekiko zaletasuna Oñatin badagoen seinale.

Aralarrera izango da ekaineko mendi irteera

Aloña Mendik antolatuta izango da hilaren 15ean, eta eguena aurretik apuntatu behar da

O.E. | OÑATI

Aralarrera irteera antolatu du Aloña Mendiko mendi sailak ekainerako. Datorren domekan izango da, hilaren 15ean.

Ekaineko irteera horren ibilbideak hamazortzi kilometro inguru izango ditu, 1.300 metroko desnibelarekin. "Gogorra baina zailtasunik gabea" izango dela aurreratu dute.

Amezketatik

Aloña Mendiko mendi saileko kideek adierazi dutenez, Amezketatik igoko dira Aralarrera eta hara abiatuko dira, autobusez. Amezketara heldu ostean, goiko lautadara igoko dira, handik Ganbo tontorrera iritsi eta Larraitzen bukatzeko.

Prezioak

Joan gura dutenek datorren eguena, hilak 12, baino lehen eman behar dute izena. Bada, bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek 13 euro eta langabeek, berriz, 5 euro.



Maiatzeko irteeran, Karrantzako Pico del Moron. | ALOÑA MENDI

Presoen sakabanaketa salatzen pilotariak egingo dituzte bihar, zapatua, plazako frontoian

17:00etatik aurrera jokatuko dira pilota partiduak bihar Foruen plazako frontoian. Duela 25 urte hasi zen presoen sakabanaketaren aurka Oñatiko Etxerategi antolatutako *Pilotakadaz Pilotakada* ekimenaren barruan izango dira. Bertsolariak ere egongo dira. Amaieran, kalejira joango dira Olakua auzora. Egun, lau oñatiar etxetik 640 kilometrora, batez beste, daude preso.

Txakurren erakustaldia eta Twister erraldoia, besteak beste, asteburuan Olakuako jaietan

19:00etan botako dute jaiei hasiera emango dien etxafuegoa Olakua auzoan, eta domekara arte iraungo dute. Gaurko kontzertuaz gain, bihar, zapatua, txakurren erakustaldia egongo da eguerdian. Gauean, berriz, erromeriaren ostean, jolasak eta Twister erraldoia, txosnan. Domeka eguerdian euskal parrila egongo da herri kirolekin batera.

Aloña Mendiko bederatzi txirrindulari lehiatuko dira domekan Oñatin izango den lasterketan

Euskadiko txapelketaren barruan sartzen den txirrindularitza lasterketa egingo da domekan, Olakuako jai batzordeak eta Aloña Mendik elkarrekin antolatutako proban. 200 txirrindulari inguru izango dira irteera puntuan, tartean Ulma-Aloña Mendiko bederatzi. Erlojupekoan, Gipuzkoako txapelketaren dirakadete mailako etxeko txirrindulariak.

Oñatiko arrantza txapelketan parte hartzeko, hilaren 12a aurretik eman behar da izena

Ekainaren 14an, zapatua, egingo dute Oñatiko arrantza txapelketa, Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatuta. San Pedroko zubian izango da, 16:00etatik 19:00etara. Parte hartzeko, baina, izena eman behar da Alzu dendan hilaren 12a aurretik. Bost euro balio du apuntatzeak. Arrantzale guztiei aseguru bat egingo zaie. Parte-hartzaile guztiendako egongo dira sariak.

Hiru domina etxera, Euskadiko txapelketatik

Maiatzaren 31n Gasteizen jokatu zuten Euskadiko Kirol Eskolako karate txapelketa eta Aloña Mendiko karatekek hiru dominak lortu zituzten. Bestalde, joan den maiatzaren 25ean Azkoitian jokatu zen Gipuzkoa mailako Udaberri txapelketan beste lau domina lortu zituzten Aloña Mendiko karatekek.



ALOÑA MENDI

Kiroldegiaren egoerak eztabaida eragin du

- Mozioa aurkeztu zuen EAJk osoko bilkuran konponbidea eskatzeko
- Alkateak erantzun zien konponbide bila dabilzala, "betiere lege barruan"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Mozioak izan ziren protagonista astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran; sei mozio, hain zuzen ere.

Udalaren eta Aldundiaren artean hitzarmena sinatzea onartu zuten lehenengo, mendekotasunak dituztenen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko. Eta horren ondoren, mozioen txanda etorri zen. Euskal presoen aurkako sakabana-keta politikoak 25 bete dituela eta Bilduk aurkeztu zuen lehenengoa, eta eskatu, besteak beste, presoei aplikatzen zaizkien salbuespenezko espetxe neurriak indarrik gabe uztea.

Fracking Ez! mugimenduak ere mozioa aurkeztu zuen, eta eskatu: *fracking*-arekin egin daitzekoen azterketa eta ustiaketarako baimen guztiak bertan behe-ra uztea; *Fracking gabeko udalerria* izendatzea Aretxabaleta; eta horren aurkako sinadurak jasotzeko erraztasunak ematea.

Euskal kutxen etorkizunaren gainean ere eztabaidatu zuten, pribatizazioaren aurkako mozioa aurkeztuta. EAJko kideak ez ziren bat etorri, ezta zinegotzi sozialista ere. Euskal Selektzioa ofizialki nazioarteko txapelketetan lehia dezan ere aldarrikatu zuten, baita Gure Esku Dago dinamikarekin bat egin ere.

Kiroldegiaren egoera

Eztabaidarik sutuena eragin zuen mozioa, baina, kiroldegiaren egoeraren gainean EAJk aurkeztutakoa izan zen. Horiek jakinarazi zuten 2.100 bazkidetik gora dituela kiroldegiak eta zerbitzuekin "oso gustura" daudela horiek, baina oraindik autofinantzaketarik ez dela lortu. Gaineratu zuten, kiroldegia kudeatzen duen hiru enpresen arteko elkar-tekak behin eta berrero esan diola Udalarari "ezin duela jarraitu galerak beregain hartzen". "Baina Udal Gobernutik eta Kirol batzordetik gaia kudeatzeko inolako proposamenik ez da iritsi", zioen Mikel Uribetxebarriak.



Ibarra kiroldegiaren aurrealdea. | MIRARI ALTUBE

Horregatik, eskatu zuten hamar egunen bueltan kiroldegia kudeatzen duen enpresak aurkeztutako aukerak aztertu eta proposamen "serio" bat egitea. Eta Udal gobernu hiruko horrekin elkartu eta egungo proiektuari irtenbideak topatzeko "esfortzua" egitea.

Alkatea ez zen inondik inora bat etorri Uribetxebarriak esandakoekin. "Behin eta berriz" saiatu direla egoera bideratzen esan zuten, eta "atzerapenak" beti kiroldegia kudeatzen duen enpresaren aldetik etorri direla: "Bate-tik, kostatzen zitzaiolako onartzea

hirukoari arazoa zein zen; hau da, abonatu kopurua 3.000ra ezin iritsi izana eta hortik galerak", zioen. Eta bestetik, "proposamen seriorik" ez zutelako aurkeztu. Hain zuzen astelehenean elkartu zirela bi aldeak, Udalaren abokatua eta hiruko enpresarena, jakinarazi zuen. Eta zera utzi gura izan zuen argi: "Defizitarioa da kiroldegia eta irtenbidea topatu behar diogu, baina beti ere legearen barruan. Eta kiroldegia ez da itxiko". Mozioa ez zen onartu, nahiz eta Aralarrek eta EAJk alde bozkatu.

Atez aterako ontziak hilaren 17tik 27ra bitartean hartu beharko dira

Iturri gorri pilotalekuan egingo dute lau ontzien banaketa eta atarte bakoitzak egun bat izango du izendatuta; horren berri bando bidez emango die Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Atez ateko hondakin bilketa sistema abian jartzeko gertatze lanetan dabil Udala. Hala, azken zintzilikarioak jartzea bakarrik geratzen da. Guztira, 55 bilketa-gune egongo dira herrian, eta horietan 170 zutabe inguru.

Orain, herritarren txanda dator, eta bilketa sistema horretarako beharrezkoak diren ontziak jasotzea dagokie. Ekainaren 17tik 27ra bitartean izango da hori, Iturri gorri pilotalekuan, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Banatuko dizkiete: bi ontzi marroi; bat urdina; eta beste bat grisa. Poltsa horiak ere banatuko dituzte, eta gida eta hiztegia.

Atarte bakoitzari egun bat ezarri diote ontzien bila joateko; bando bidez iragarriko dute. Beste egunen baten joanez gero ere emango dizkiote, baina ez du lehentasunik izango. Bila joateko nortasun agiriren bat eraman behar da; eta bertan, helbidea eta telefono zenbakia ere jakinarazi beharko ditu. Egunduko edukiontzia marroien erabiltzaile direnek ontzi marroia eta giltza itzuli beharko dituzte.

Landa-guneak

Landa-guneetan bizi direnek bost gune dituzte hondakinendako: Bainuetxe; Izurieta; Oro; Otala Zelai; eta Markoleko larrialdi-gunea (Apotzagaetxebarri auzokoen-dako). Haiek giltzarekin edo txar-



Lore Martinez Axpe zinegotzia eta Ana Bolinaga alkatea argibideak ematen. | M.A.

telarekin, dagokion edukiontzira botako dute hondakin bakoitza.

Komertzio eta industrialde-tara dagoeneko hasita daude ontziak banatzen, baina aukeraketa data barruan egin ez zutenek biltegira joan beharko dute.

Atez atekoa uztailean

Data oraindik ez dute zehaztu udal ordezkariak, baina atez ateko bilketa sistema uztailean abian izango da. Ontziak 19:00etatik 06:00etara bitartean atera ahal izango dira, dagokion egunean. Organikoa: martitzen, egun eta domekan, ontzi marroian (gura duenak poltsa konpostagarria jarrita barruan). Ontzi arinak: eguaztenean eta zapatuan, plastikozko poltsetan. Papera eta kartoia, astelehenean, ontzi urdinean (pol-

tsarik gabe). Errefusa, egunean, ontzi grisean; eta pixoihalak, konpresak eta antzekoak eguneroko atera ahal izango dira plastikozko edozein poltsa erabilita. Poltsa konpostagarriak herriko hainbat dendetan jarriko dituzte salgai 1,40 euroren truke.

Beira (edukiontzi berdea), ehunikiak (edukiontzi zuria) eta olio orain arte lege jasoko dituzte. Ingurumen zinegotzi Lore Martinez Axpek jakinarazi du, gainera, ehunkiendako beste hiru edukiontzi jarriko dituztela, eta orain daudenak txukundu.

Argibideak Udalaren webgunean jarriko dituzte eta Hondakinen Informazio Gunean eman (943 25 06 82, hondakinak.aretxabaleta@debagoiena.com). Ontziak banatzeko laguntza ere eskatu dute.

Konbo taldeek jarriko dute abian 7x7 ekimena

Musika eskolakoek emango dute kontzertua Mitarten, Kultura Kalean egitasmo barruan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Musikaz gainezka dator gaur Udaleko Kultura Sailak antolatutako 7x7 ekimena. Kultura kalera ateratzeko helburuarekin, eta ohikoak ez diren herriko plazetara eta guneetara eramateko asmoarekin, hain zuzen ere. Hala, kontzertua eskainiko dute Leizarra musika eskolako konbo taldeek.

Mitarte kalean elkartuko dira musikariak, arratsaldeko zazpitan. Hainbat taldek egingo dute emanaldia, eta, hain zuzen, guztietan gitarra doinuak izango dira protagonista, gitarra klasikoak eta elektrikoak. Eta horiei lagun egiten egongo dira bateria, pianoa eta trikitia, besteak beste.

Txotxongiloak

Eguaztenean, hilak 11, osterata, txotxongiloak izango dira protagonista kalean. El Tenderete-TTR taldeak *Urrun erreinua*

eskainiko die 6 eta 10 arteko neska-mutikoei, Gipuzkoa plazan (19:00). Aldartek, Lesbiana, Gay eta Transexualen arretra zentroak, abian jarritako *Txotxongiloak aniztasunaren alde* delako kanpainaren barruan sortutako lana da, eta familia egitura eta gizarte eredu ezberdinen arteko elkarbizitza sustatzea du helburu.

Bandaren emanaldia 13an

Datorren egubakoitzean, osterata, musika eskolako bandaren kontzertua izango da Arlutz osteko kantxan.

Eta eguaztenean, hilak 18, Bihar txotxongilo taldeak *Ipuin magikoak* lana eskainiko die neska-mutikoei, Santa Kurtz kaleko plazatxoan.

Hilaren 20an, harpa eta perkusio emanaldia izango da Gurearen atzeko plazan; Ana Artetxe izango da harparekin eta Iñaki Letamendia perkusioan.

Herri kontsulta eskatzeko sinadurak jasoko dituzte bosgarren edukiontzia aldeko plataformakoek

Atez ateko hondakin bilketa sistemarekin ez datoz bat bosgarren edukiontzia aldeko plataformako kideak, eta, besteak beste, honako arrazoi hauek eman dituzte: "Garestiagoa izanik, edukiontzi sistema baino eraginkortasun handiagoa ez du erakutsi". Hori horrela, herri kontsulta egitea eskatzen dute, eta horretarako sinadurak jasoko dituzte. Bihar, zapatua, mahaia jarriko dutela Durana kalean iragarri dute.



Ekainaren 13tik 15era egingo den kirol jaia antolatu duten hainbat taldetako ordezkariak, Herriko Plazan. | JAGOBA DOMINGO

'Aretxabaleta kirolez busti' jaiak kirola herritarrengana hurreratuko du

Ekainaren 13tik 15era izango da eta UDAk eta Udalak antolatu dute herriko talde askok lagunduta

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kirolaren bueltako jaia antolatu dute lehenengoz gurean. Ekainaren 13tik 15era izango da eta kirol mordoak ezagutu, ikusi eta egiteko aukera eskainiko dute. Kirol mordoak, bat izan ezik, futbola.

Kirola lagun, herria bizi-bizi

"Aretxabaleta kirolez busti da leloa, eta asmoa kirola herritarrei gerturatzeko eta herritarrek kirola hurbiltzea", jakinarazi du Aretxabaleta kirol elkartearen ordezkari den Gorka Etxabek, eta gaineratu: "UDAko kideen burutazioa izan zen; kirol ezberdinak ezagutzera emateko eguna antolatzekotan hasi ginen lanean eta gero zabaltzen joan zen egitasmoa. Horregatik egun bakarreko kontua aste bukaera osora luzatu dugu". Hala, herriko talde mordoak egin du bat jaiarekin, tartean honakoak: Aretxarte mer-

katarien elkarte; Basotxo erretiratuaren elkarte; Herrira; Murruxiko mendizale elkarte; Zaria mendizale taldea; Loramendi elkarte; Leikaxoka bertso eskola; Trialsin taldea; Boulder taldea; Aresko saskibalo taldea; eta Desoreka judo kluba. Eta horiekin batera UDA barruan dauden kirol sailak: Karatea, Gimnastika erritmikoa, Txirrindularitza, Atletismoa eta Pilota. "Guztiok elkarlanean herria bizi-bizi mantendu gura dugu aste bukaera guztian", dio Etxabek.

Kirol mordoak eta ezberdinak

Gimnastika erritmiko taldeko gaztetxoek egubakoitzean, hilaren 13an, egingo duten erakustaldia-ekin hasiko dute jaia.

Zapatuan, ostera, gura beste kirol egiteko aukera izango dute herritarrek, horien artean mendiko bizikleta irteera, UDAko txi-

rrindularitza taldearekin; mahai-joko eta doke txapelketak, erretiratuak antolatuta; pilota, pala eta frontenis txapelketak, Herriko Plazan eta UDAko pilota taldeak antolatuta; eta lasterketak ume eta gaztetxoendako, UDAko atletismo taldearekin.

Beste batzuek, ostera, erakustaldiak egingo dituzte kirol hori ezagutzera emateko. Hona izango direnak: judoa; karatea; trialsina; kriketa (Auzoko egitasmo kideekin); boulderra; eta gainera, saskibalo topaketak. Iluntzean zozketa egingo dute parte-hartzaile guztien artean Mitarte plazan, eta gainera, eguna girotzeko kirol-pintxoak eta edariak eskainiko dituzte Aretxarteko tabernariak.

Domekan, lehenengo kirol jaiari bukaera emateko, Murruxiko bi urtean behin antolatzen duen mendi martxa izango da.



FELIS BELTRAN DE HEREDIA

Jokatzea ez zaiela ahaztu erakusten...

Futbol partidu bizia jokatu zuten UDAko neska betanoek eta Arizmendiko kadeteek, Ibarran, joan den zapatuan. Neska betanoek botatuko erronkari erantzun zioten ohorezko kadeteen mailara igo berri diren Arizmendiko gaztetxoek. Umore ona izan zen lagun, baina irabazteko ahaleginetan jardun zuten bi taldeek; bukaeran, gaztetxasuna nagusitu zitzaion betanotasunari (4-2). Betanoak, hala ere, ez dira konforme geratu eta udazkenean errebantxa hartu gura dute.

Batukada, bazkaria eta pailazoak Kurtzebarri eskolako jaietan

M.A. | ARETXABALETA

Ikasturtea bukatzean dago eta Kurtzebarri eskolako kideek jai dotorea antolatu dute aurten ere. Bihar izango da, 11:00etan hasi eta iluntzera bitartean.

Batukadak eta hankapaloek egingo diote ongi-etorria egunari, Herriko Plazan hasi eta Irabalbarri plazaraino joko dute, handik Gernika plazara egiteko. 12:45ean buruhandiek eta erraldoiek bat egingo dute hankapaloekin eta batukadarekin Herriko Plazara itzultzeko kalejiran. Han, *Bihotzez ikasi* dantzatu dute ikasle, guraso eta irakasleek elkarrekin.

Eguzkiari agurra ikuskizuna izango dute 13:00etan eta

handik bazkaltzera joango dira Iturrigorri pilotalekura. Bazkalostean tarta lehiaketako irabazlearen berri emango dute eta 16:00etatik 17:30era bitartean dantzaldia izango dute pilotalekuan bertan. Gurabarri guraso elkarteak txokolata eskainiko die bitartean, eta 17:30ean, Potx eta Motx pailazoaren ikuskizunarekin agurtuko dute jaialdia.

Haurren Astea

Bestalde, Haurren Astea egin dute astelehenean hasi eta atzo bitartean. 2 eta 5 urte arteko neska-mutikoen ikuskizun dotoreak eskaini dituzte; atzo, esaterako, zirkua egin zuten.



M.A.

Etxean ez geratzeko aholkua

Rafael Kortabarria oñatiarra izan zuten lagun martitzenean Basotxoko erretiratuak. Zahartzaroan sortzen diren arazoak gainean jardun zuten, eta itsu geratu zenetik bizimodu berrira zelan egokitu den azaldu: "Lehenengo, txakurra izan nuen lagun eta orain, bastoia". Etxean ez geratzeko ere aholkatu zien elkartutako hamar bat lagunei.

'Txipli Txapla' antzezlanak dute gaztetxoek domekan

Tomaxen Abenturak taldeak *Txipli Txapla* ikuskizuna ekarriko du Arkupera domekan (17:00); sarrera, 3 euro. Oraingoan, Tomax eta Muxugorri bikotea hondartzara joango da abentura bila, eta abentura horiek neska-mutikoekin batera bizi izango dituzte kantuan eta jolasean eginda.

Musika eskolako gitarra eta perkusio emanaldiak daude

Leizarra musika eskolako ikasleek emanaldi bi egingo dituzte datorren astean Arkupen (18:00). Martitzenean gitarako ikasleek egingo dute erakustaldia eta eguaztenean, perkusioak. Ekainaren 17an, martitzena, ostera, ikasturte bukaerako jaia izango dute Herriko Plazan.



Amaia-Berri S.L.

Iturgintza

Iturgintza
Berokuntza instalazioak eta mantentze-lanak
Gas instalazioak
Energia berriztagarriak
Aire erauzketa eta aireztapen instalazioak
Irisgarritasuna

Otalora 18 - ARETXABALETA
Tel.: 943 77 06 49
www.amaiaberri.com
amaiaberri@amaiaberri.com

Lehen asteotan hondakinen %81 gaika jaso direla jakinarazi dute

Norabide egokian doazela aipatu dute Hondakinen Mahaiko kideek

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Dagoeneko bi hilabete pasatu dira herrian atez ateko sistema martxan jarri zenetik, eta Hondakinen Mahaian jarraitzen duten kideek orain arteko balorazioa egin zuten martitzenean. Lehenik eta behin, eskerrak eman zizkieten eskoriatzarrei izandako jarreragatik. Horren harira, honakoa aipatu zuen Beñat Herce alkateak agerraldian: "Aldaketak beti suposatzen du esfortzua, baina uste dugu, esfortzua izanda ere, merezi duela".

Lehen asteotako datuak jakinarazi zituzten jarraian. Bereziak izan direla aipatu zuten, tartean Aste Santua eta Maiatzaren Ieko zubia egon direlako; eta hortaz, "tentuz eta zuhurtziaz" egin behar direla horren gaineko adierazpenak. Hori kontuan izanda, alkateak iragarri zuen hiri hondakinen %81 gaika jaso zirela. Honek baloratu zuen esandako datua: "Oso datu positiboa da hori. Hondakinen Mahaian hitzartu genuen helburua %70 zen, eta, ondorioz, alde nabarmenarekin lortu da helburu hori".

Hiru puntu nabarmendu zituzten: batetik, zabor organikoari



Martitzenean Ibarraundin egindako agerraldia. | TXOMIN MADINA

dagokionez, "nahikoa" eta, gainera, "kalitatezkoa" jaso izan dela gaineratu zuten; bestetik, gaika jasotako beste hondakinek ere gorakada "nabarmena" izan dutela azaldu zuten, bereziki ontzi arinek, arropek eta paperak eta kartoiak; eta hirugarrenik, eta alkatearendako "garrantzitsuena", nahastutako hondakinen edo birziklagarriak ez diren

horien kopuruak "jaietsiera izugarria" izan duela.

11.400 kilo zabortegira

Azken horren harira, honakoa nabarmendu zuen Herce: "Horrek esan nahi du zabortegira doan tona kopurua izugarri jaitsi dela. 2013ko erreferentziatzeko beste hilabete batekin alderatuz gero, orduan 67.000 kilo eramane ziren,

eta aurtengo apirilean, soilik, 11.400 kilo. Oso datu adierazgarria eta positiboa da azken hori". Datuzen hilabetei begira joera horrek "mantendu edo hobera" egitea espero dutela adierazi zuten Hondakinen Mahaiko kideek: "Norabide egokian goaz".

Dena dela, hobetu beharrekoak ere badaudela onartu zuten. Besteak beste, hondakin bakoitza modu egokian ateratzea eskatu zuten. Esaterako, edukiontzi marroietan erabili ezin daitezkeen plastikozko poltsak jartzea. Kasu horretan, herriko dendetan salgai dauden poltsa konpostagarriak erabiltzea eskatu zuten; eta ohar-tarazi zuten plastikozko poltsak erabiltzen jarraituz gero, ez dutela edukiontzi hori hustuko. Horrekin batera, gogorarazi zuten papera eta kartoiak ezin direla plastikozko poltsetan atera.

Bestalde, egutegia eta ordu-tegiak errespetatzeko dei egin zuten. Horren harira, gogorarazi zuten zapatuan ordutegi berezia dagoela, 19:00etatik 23:00etara. Egun bakoitzean dagokion gaia ateratzea ere eskatu zuten.

Isunak

Azkenik, alkateak nabarmendu zuen badaudela "oso gutxi batzuk" sistema berria nahi ez dutenak, eta hondakinak lurtean uzten dituztenak. Atez ate erabiltzeko gonbita egin zien, eskoriatzar guztiondako "onuragarria" izango delako. Hori egin ezean, araudia betetzen hasiko direla azpimarratu zuen, isunak jarrita.

OHARRAK

BERBALDIA

Amaia Diaz de Monasterioguren adituak *Osasuntsu elikatu zahartzaro ona izateko* izeneko berbaldia egingo du gaur, 10:30ean, herriko zaharren egoitzan.

GAZTELEKUA

Bideo-muntaia grabatzen ikasiko dute oraingoan gazteek. Gaur eta bihar ibiliko dira zeregintza horretan.

GURE ESKU DAGO

Etzi, domeka, egingo den giza katera joateko autobusen ordutegia honakoa da: Arrasatera autobusean eta Kanpanzarrera oinez igo gura dutenak 08:30ean irtengo dira Gorosarriko autobus geltokitik; eta Kanpanzarreraino autobusez joango direnak, aldiz, 09:00etan. Bestalde, bihar ere metroa erosteko aukera izango da Ferixien.

PREGOILARIA

Aurtengo San Pedro jaietako pregoia zeinek edo zein taldek egitea gura duten proposatzeko aukera izango dute eskoriatzarrek etzi arte, domeka. Proposamenak 943 71 46 88 telefono zenbakian egin daitezke, kultura@eskoriatza.net posta elektronikoz edo zuzenean kultura etxera joanda.

Hitzaldiak, bazkari mexikarra eta kontzertuak 14. Aste Zapatistan

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Badator Aste Zapatistaren 14. edizioa, eta, urtero legez, hamai-ka ekintza izango dira astelehenean hasi eta domekara artean, Tepez elkarteak antolatuta. "Helburua da Txiapas herriko hainbat proiekturi eta komunitate zapatistei laguntzea eta, era berean, horiek ezagutzera ematea", argitu du elkarteko kide Oihana Irazuk.

Astelehenetik domekara

Egunero izango da ekintzaren bat edo beste. Hala, astelehenean *Udaberri paseoa* egingo dute zaharren egoitzatik Santa Marina plazara (17:30), eta han izango dira capoeira erakustaldia, kanta mexikarrak eta te dastatzea Auzoko egitasmoko kideekin.

Martitzenean hitzaldia egingo du Oscar Garcia adituak kultur etxean (18:30): *Innovando las relaciones laborales*. Eta eguaztenean bideo-konferentzia izango da (18:30) Colectiva Cereza taldeko kideekin. Eguenean, skate erakustaldiak daude Herriko Plazan (18:00), eta ondoren, *Gazta porra eta Porron* eta *Txiapas txapelketa*. Eta egubakoitzean, batzarra egingo dute Jorge Arzuagarekin, *Otro mundo es posible, aprendamos del zapatismo* gaiaren gainean.

Zapatua, hilak 14, da egun handia, eta hauek izango dituzte: herri bazkari mexikarra Rosa Sanchez kantautorearekin; antzerkia; eta kontzertuak. Domekan bukatuko da astea, txapel jaurtiketa eginda.

'Extra! Extra! Extraordinarias!' antzezlan eskainiko du Ausartak taldeak bihar Huhezin

Amuska emakume taldearen bueltan sortutako Ausartak antzerki taldeak azken lana estreinatuko du bihar, zapatua, Huhezin (20:00): *Extra! Extra! Extraordinarias!* Dagoeneko hirugarren antzezlan da, eta erredakzio bateko gorabeherak taularatuko dituzte oraingoan sei emakumek. Betiko legez, umore ona izango dela nagusi jakinarazi dute kideek: "Bukaera emateko kantuan egingo dugu". Hala, barre egin eta tarte atsegina pasatu gura duten eskoriatzar guztiak animatu dituzte bertaratzera.

Artisau produktuz eta askotariko saioz beteko dira bihar herriko kaleak

Arizmendi Ikastolak Ferixie gertatu du hemezortzigarrenez; tartean, ehun bat postu, txapelketak, herriko taldeen emanaldiak eta herri bazkaria izango dira

M.B. | ESKORIATZA

Ekaineko lehen zapatuarekin batera, Arizmendi Ikastolak urteroko Ferixie egingo du bihar. 09:00etan hasiko dira ekintzak, etxafuego jaurtiketarekin; eta ordu erdi geroago txistulariak hasiko dira kaleak giroten.

Azokaren irekiera 10:00etan izango da. Ehun postu inguru jarriko dituzte; urtero moduan, baserriko eta artisau produktuak eta tresneria erosteko aukera izango dute bisitariak eguerdira bitartean. Aurten ere Urkabustaizko Joaldunak arduratuko dira azoka alaitzeaz. Azoka zabaldu bezain pronto, 17. Txorimalo Lehiaketa hasiko da. Umeen txokoa, berriz, 11:00etan zabalduko dute Santa Mariñe plazan; puzgarriak eta tailerrak izango dira bertan.

Kroxeters

Ordu berean, Kroxeters taldeak *Urban knitting* izeneko ekimena eskainiko du plazan. Gantxilloa edo crocheta egitea gustatzen zaien hamabost bat debagoien-darrez osatutako taldea da hori. Bestalde, VII. Gazta Dastatzea eta Txapelketa 11:30ean hasiko



Joan den urteko Ferixie ikusten jende asko izan zen. | GOIENA

da ikastola parean, eta ordubate geroago, Arizmendi Ikastolako Abesbatzarekin *Herrixa kantuen* saioa, toki berean. Eguerdian, gainera, trikitilariak ibiliko dira herriko kaleetan.

Sari banaketak

Eskoriatzako dantza taldeak emanaldia egingo du, 13:00etan, plazan; eta 14:00etan, sari banaketan txanda izango da: hain justu, azokako postu eta txorimalo lehiaketaren sari banaketez gain,

errifa zozketa ere egingo da ikastola parean.

Jarraian, herri bazkaria izango dute Joseba Inurrategi pilotalekuan; 200 lagun inguru batu-ko dira mahaiaren bueltan. Azkenik, egunari amaiera borobila emateko, IV. Txapel Jaurtiketa Txapelketa egingo dute, 19:30ean.

Urtero moduan, Jose Arana guneak izan du jai antolatze-ko ardura Eskoriatzako beste eragile batzuekin batera.



Etxaniz eta Sasieta, Nafarroako bi ordezkarekin Oviedon. | PILAR ETXANIZ

Herri eskolako hezkuntza eredua aztergai Oviedon egindako kongresuan

Eskolan ikasleen garapen integrala eta bakoitzaren garapen pertsolana dute irakaskuntzaren oinarri

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Maiatzean Oviedon egin zuten Elkarte Autonomo eta Estatu-ko Eskola Kontseiluen 22. kongresua. Herri eskolako bi ordezkari izan dira han: Pilar Etxaniz zuzendaria eta Eugenio Sasieta ikasketaburua. Izan ere, Euskadiko Eskola Kontseiluak Antzuolako eskola aukeratu du aurten. *Arrakasta-eskolak: ezaugarri eta esperientziak* izenpean, autonomia bakoitzak aukeratutako esperientzia bat jaso dute Oviedoko kongresuan.

Ikasleak oinarri

Euskadiko Eskola Kontseiluak arrazoitu duenez, Antzuolan ikasleen garapen integrala da ardura; horretarako, ikasle bakoitzaren izaera dute lanaren ardatz. "Ikasle bakoitzak sortzen dituen ideiak, harremanak, sentipenak... kontuan izaten dira, ikaslearen oreka pertsonala eta taldearen aberastasuna bilatzeko", argudiatu dute.

Ideiak eta erritmo pertsonalak errespetatzen direla eta umeen interesak kontuan hartzen dituztela diote: "Eskolak laborategi

batzen itxura du: hormak prototipoz beteta, gelak ekintzaz mugilduta, toki komunak produkzioz beteta... Psikomotrizitatearen, eraikuntzaren, zientzia-ikerketaren, matematika esperimentalareren eta komunikazioaren bidez, elkarrekin bizi izaten modu naturalean ikasten dute". Irakasleen eta lantaldeen lana susmatzen dela gaineratu dute: "Hezkuntzaren garrantzian sinesten dute eta herriko umeekin sortzen dituzten harremanak eta familiekin lortzen duten konplizitateak asko laguntzen dute horretan".

Gaztetxoak Aiherrara joan dira harremana sendotzeko asmoz

M.A. | ANTZUOLA

Aurten Aiherra-Antzuola sendotzeak 30 urte beteko ditu. Sendotze horri jarraitzen eta indarra emateko asmoz, herriko eskolako umeak, laugarren eta bosgarren mailetako gaztetxoak, Aiherrara joan dira. 37 ikasle eta lau irakasle egun goizean abiatu ziren bi egunerako. "Ikasleei ilusio handia egiten dien irteera da; gogotsu

daude", diote irakasleek irteeraren aurreko egunetan.

Harremanak sendotuz

Antzuolako helduek orain dela 30 urte abiatutako harremana indartzeko eta sustatzeko helburuarekin antolatuta dute. "Orain dela bi urte egun-pasa joan ginen; orain, harreman estuagoa izan dezaten, gaua pasako dugu Aiherrako familiekin".

Arano eta Leitza arteko mendi ibilaldia ekainera atzeratu du Arrolak, eguraldiagatik

Maiatzean egitekoa zen Aranon, Urepelen eta Leitza barrera mendi irteera. Eguraldiagatik, baina, bertan behera geratu zen irteera hura. Orain, ekainaren 15ean, domeka, egingo dute lau edo bost orduko ibilbidea. Izena ekainaren 9an eman beharko da, 19:00etatik 20:00etara, Olaraneko lokalean. Edo aurrez posta elektronikoa bidali arrolamt@gmail.com helbidera.

Landatxoeko erretiratuek Karrantzara irteera eta elbarritasunaren gaineko hitzaldia antolatu dituzte

Pozalaguara, Karrantzara, joateko, izena eman daiteke ekainaren 10ean eta 11n, 16:00etatik 18:00etara. Irteera ekainaren 18an da. Prezioa, 30 euro. Bestalde, ekainaren 17an, Hector Prieto aretxa-baletarra etorriko da menpekotasunaren eta elbarritasunaren gainean berba egitera. Olaranen izango da, 18:30ean.

OHARRAK

KIROL UDALEKUAK

Ekainaren 30etik uztailaren 17ra egingo dira kirol udalekuak. Informazio gehiago, Antzuolako Udal Gimnasioan.

TXIRRINDULARITZA

Bihar, zapatua, Txirrindulari *challenge*-ko Iralako kronoigoe-*r* egingo da. Proba 12:00etan hasiko da.

LOMCE legearen aurka protesta egubakoitzero

Herri eskolako irakaskuntza ereduarekin LOMCE ez dela bateragarria salatzen dute irakasleek

M.A. | ANTZUOLA

Egubakoitzero 12:15ean Antzuolako herri eskolako irakasleek elkarretaratzea egiten dute LOMCE legearen aurka protesta egiteko. "Jaur-

liritzak helegitea aurkeztu du; baina, LOMCE legeak nola ulertzen dituen edukiak, ebaluaketak eta curriculumak, horren aurka ez da azaldu", kontatu du Pilar Etxaniz

eskolako zuzendariak. Izan ere, Antzuolako eskolarako irakaskuntza estiloa "zeharo kontrakoa, ezberdina" dela argitu du Etxanizek. "Guk ez ditugu azterketak egiten ebaluatze; umeek aukeratzeko dituzte gaiak eta ez dute aurrez programatutako zerrenda bat jarraitzen. LOMCEk azterketei garrantzi handia ematen die eta gure ikasleak ez daude *galdera-erantzunak* estilora trebatuta".

Etxanizek adierazi du gaur egun adituek diotela gaitasunak lortzeko

ez dela beharrezkoa eduki jakin batzuetara trebatzea.

"Edozein eduki landuta, gaitasunak guretzako —ikasten ikastea, elkarrekin lan egitea, jarrera iker-tzaileak sustatzea...— dira oinarriak. Etxanizek eta beste zientzialariek diote, oinarria ez dela buruz ikastea, informazioa gaur egun leku guztietan dago-eta. Ikasi behar da informazio marea guzti horretan ezagutza elaboratzen, aukeratzeko eta testuinguruan jartzen. LOMCEk 40 urte atzera egiten du. Guk gure

eskolako estilo pedagogikoa mantentzea nahi dugu. Izan ere, zeharka behartuta egonez gero legeak jarritako froga horiek gaitzitzen, gure hezkuntza eredua kontrajarrirritatzen da LOMCEren ereduarekin", azaldu du.

"Orain ere, laugarren mailan egiten dira beste konnotazio bat duten azterketak. Guk, baina, azterketa horiek kritikatzeko ditugu ez dutelako zerikusirik irakasleek ikasten dutenarekin. Jaur-liritzak parte hartzen du horretan".



LOMCEren aurka, egubakoitzean egindako agerradia. | PILAR ETXANIZ

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA




Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Udalbatza bozkatzeko, azken osoko bilkurako une baten. | JOKIN BEREZIARTUA

Plan orokorra eta biomasa berbagai azken bilkuran

HAPOn barruan Diputazioak eskatutako funtsezko aldaketak jendaurrean jarriko dira; biomasa proiekturako sentsibilizazio kanpaina "laster" hasiko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAP) izan zuten hizpide, besteak beste, maiatzaren 30eko osoko bilkuran. Diputazioak Foru Agindu bidez eten zuen Udalaren proposamena, eta jendaurrean jartzea adostu zuen udalbatzak, aho batez. Aldundiak eskatutako "funtsezko aldaketan" artean aipagarrienak dira Arrasatetik Aramaiorako errepidearen bi aldeetara -herrira sartzeko azken zuzenean- dauden lursailen kalifikazioa aldatu egingo dela. Hala, IB-13 gunean -Salazan baserriaren altueran, baina errepidearen beste aldean- ezingo da industrialderik jarri, Diputazioak uste duelako bertan ezin daitekeela eraiki. IB-10 gunean, berriz, -Salazan baserriaren ondoan- eraikitzeak aukera egongo da.

Bestalde, Oletarako Udalaren proposamenak ere ez dira onartu. Hala, Udalak aldaketa horiek guztiak jendaurrean jarriko ditu, herritarren alegazioetarako.

Biomasa, diru laguntzen zain

Era berean, biomasa proiektua ere izan zuten hizpide osoko bilkuran, azken orduko gaien artean. Maiatzaren 30ean Udaleko lau ordezkari, Ramon Ajuria alkatea barne, Jaurlearitzako, HAZIKo eta Energiaren Euskal Erakundeko ordezkariekin bildu ziren, proiektua azaldu eta finantzazioa nola kudea daitekeen aztertzeko: "Plan-

teamendua aurreratuta dago, baina zalantzak dituzte diru laguntzak emateko orduan. Arauek diote Energia Zerbitzu Enpresei [ESE] laguntza zati bat eman behar diotela eta erakunde publikoek beste bat. Euren jarrera ona da, baina dokumentazio guztia aztertzekotan geratu dira", azaldu zuen Ramon Ajuriak.

Alkateak dioenez, herritarren inplikazioa "ezinbestekoa" izango da proiektuak aurrera egin dezan eta horretarako sentsibilizazio kanpaina "laster" abiatuko du Arteman Komunikazio enpresak. Eskuorriak etxe etxe banatuko dira, eta, horrez gain, hitzaldiak eta erakusketak antolatuko dira.

Bestalde, batzorde informatiboetan zehar aldaketa onartu ziren, eta baita Aramaioko Udala Goiena Taldeko Errektore Kontseiluan sartzeko ere. Aurrerantzean Ramon Ajuria alkatea izango da Udalaren ordezkaria Goienaren Errektore Kontseiluan.

ESANAK

**"Biomasa
planteamendua
aurreratuta
dago; besteak
dokumentazioa
aztertzekotan
geratu dira"**

RAMON AJURIA | ALKATEA

Domekara arte eman daiteke izena Orixolek Europako Mendietara antolatu duen irteerarako

Europako Mendietara irteera antolatu du Orixol elkarteak ekainaren 14ko aste bukaerarako. Hilaren 14an sei orduko ibilaldia egingo dute eta hilaren 15ean, aldiz, zortzi edo bederatzi orduko martxa. Izena eman behar da ekainaren 8a baino lehen; 3035 0161 28 1611005178 kontu korrantean egin behar da ordainketa, konzeptu moduan izen abizenak jarrita. Orixoleko bazkideek 70 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, 75 euro. Ekainaren 14an 06:30ean irtengo dira autobus geltokitik.



Europako Mendiak. | CAMPING COVADONGA

'Fracking'-aren aurkako erakusketa ikusteko azken egunak gaur eta bihar, Sastiña ermitan

Fracking-aren aurkako erakusketa ikusteko azken aukera izango dira gaur eta bihar, Sastiñan. Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta bihar, zapatua, 12:30etik 14:00etara. Bihar, hilak 7, izango da azken eguna. Erakusketan lurra ustiatzeko modu horren gaineko panel informatiboak ikusteko aukera egongo da, besteak beste.

Gure Esku Dago taldeak puntualtasuna eskatu die etzi Irurtzunera joango diren herritar guztiei

Gure Esku Dago antolatutako Gure Esku Bidea giza katean Irurtzunera (Nafarroa) joango dira aramaiorarrak. 08:45ean irtengo dira autobusak, kiroldegitik: "Izan puntualak, autobusek ezingo dute itxaron". Giza katea 12:00etatik 12:30era izango da eta ondoren Etxarriko jaigunera joango dira. 20:00etarako bueltan egongo dira. Edozein zalantza argitzeko hiru telefono eman dituzte: 610 26 62 32 (Etor), 605 76 07 57 (Mikel) eta 660 98 55 80 (Txema).

Pertsona edadetuenen zaintza eta alde aurreko borondateen gaineko hitzaldia hilaren 10ean

Alaiak elkartearen eskutik, Jaurlearitzako Alde Aurreko Borondateen Erregistroko arduradun Jose Luis Vidalek hitzaldia egingo du hilaren 10ean kultura etxean (16:30). Alde aurreko borondateez gain, pertsona edadetuenen zaintza ere izango du hizpide Vidalek. Arabako Diputazioaren eta Udalaren laguntza jaso dute. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Peru Abarrategi | Arabako Eskola Arteko bertso txapelketako irabazlea

"Datorren urtean txapela defendatu beharko dut, niretzat azken urtea da-eta"

Bertsolari aramaiorarrak Araba ordezkatu du Euskal Herriko Eskola Artekoan, ekainaren 21ean

J.B. | ARAMAIO

Badira zazpi urte Peru Abarrategi (Aramaio, 1998) bertso eskolan hasi zenetik; bertsolaritza txikitatik darama zainetan. Legution jokatuak Arabako Eskola Artekoaren finalean gozatu egin zuela dio, eta ilusio handiz ordezkatu duela Araba Euskal Herri-

ko Eskola Arteko Txapelketan. **Hasteko, zorionak txapelagatik! Gustura geratu zinen finalean egindako lanarekin?**

Eskerrik asko! Finalean, finalerdian egindako lanarekin baino gusturago geratu nintzen. Presioa handiagoa izan arren, finalurrekoan baino akats gutxiago egin



Abarrategi txapelarekin. | P.A.

nituen; oso pozik nago txapela jantzi nuelako. Datorren urtera arte ni izango naiz eskola arteko txapelduna; beraz, datorren urtean defendatu egin beharko dut, nire azken urtea izango da-eta.

Zeintzuk izan ziren finalean egin behar zenituen lanak?

Hasierako agurra, zortziko handian bina bertso ofizioka, zortziko txikian hiruna bertso ofizioka, puntuka eta bakarkako bi bertso.

Ondoen bakarkakoa egin nuela esango nuke, baina puntuazioak ez zizkiguten eman...

Euskal Herriko Txapelketarako sarrera lortu duzu. Ze asmo dituzu txapelketa horri begira?

Orion jokatu da eta polita izango da, hori ziur. Euskal Herrikoan ere hainbat lagun ditut. Saio polita egitea da asmoa. Gozatzea, ez daukat beste helbururik. Ikusiko da noraino hel naitekeen.

Aramaiok hainbat eta hainbat bertsolari ematen ditu oraindik ere. Osasuntsu dagoen seinale?

Esango nuke baietz. Aramaion betidanik egon da bertsoarako zaletasuna eta ni baino gazteagoak direnetako batzuk ere bertso eskolara joaten dira. Araban ere hazten doa; Gasteizen, Legution... Ez dago Gipuzkoako zein Bizkai-ko egoerarekin konparatzerik, baina gorantz doa. Poztekoa da.

"Trebea da ideiak josten"

Abarrategiren irakasle Xabi Igoak "ikasle fina" dela dio: "Gustuko du bertsoan jardutea eta nabari zaio. Ideiak eta puntuak josten trebea da. Lehen, perfekzionistegia zela esango nuke, eta horrek bertsoa pentsatzen denbora gehiegi ematea eragiten zion, baina asko hobetu du zentzu horretan". Abarrategiz gain, herrian bertsolari "bikainak" daudela dio Igoak: "Giroa eta gazteek bertso eskolan landutakoa gorai patuko nuke".

ELGETA

Ortu publikoak eskaintzeko aukera aztertzen ari da Udala

Interesatutako herritarrik badagoen jakiteko izena emateko epea zabalik dago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aste honetan aurkeztu dute Elgetan Baratze Parke Sarea. Hain zuzen ere, Kutxa Ekogunearen egitasmoa da, eta Gipuzkoan, egun, zortzi baratze osatzen dute sare hori. Donostian, Lezon, Errenterian, Hernanin... daude. "Udaletik prest gaude apustu hori egiteko, baina jakin nahi dugu zenbat herritar dauden gertu bidelagun izatera", esan du Oxel Erostarbe alkateak.



Alegiako baratze-kide Garikoitz Zubillaga herritar bati gida ematen. | L.Z.

Baratze-zaintza ekologikoa

Kutxa Ekoguneako Landa Garapeneren teknikari Amalia Virtok azaldu du baratze-kideei partzela txiki bat eskaintzen zaiela baratze-zaintza egiteko. "Etzerako adinako barazkiak ateratzeko", zehaztu du. Baratze-zaintzak ekologikoa behar du, eta azpiegitura guztien erabilerrarako da. Hau da, taldean erabiltzekoak dira ura hartzeko lekua, arropa aldatzeko lekua, materiala gordetzeko lekua... "Azken urteotan hainbat herritar etorri dira udaletxera ortua edukitzeko interesa dutela esatera", jakinarazi du Erostarbek. "Udal lur publikoak ez dira asko. Horregatik, zerbait egituratuagoa egitea da gure

asmoa. Ekoparkeen bitartez Ekoguneak aukera emango liguke eskaera horri erantzuna emateko". Interesatuek udaletxean eman behar dute izena.

Gaur, jolasak eta erakusketa

Aste Berdearen barruan, umeendako jolasak eta konpostari buruzko erakusketa izango dira gaur, 18:30ean.

Auzo-konpost guneak egoera onean

Joseba Sanchez teknikariak herriko auzo-konpost guneak aztertu ditu, eta eguaztenean azaldu zuen "oso ongi" aurkitu dituela. Ohikoak diren hiru arazo detektatu dituela esan zuen: eltxoak, hezetan larregi eta, kasuren batean, usain txarra. Hitzaldian, arazo horiek konpontzeko neurriak azaldu zituen. Auzo-konpost guneetara eraman zituen entzuleak ariketa praktikoak egitera.

Martin Elortza gotzain elgetarrari omenaldia

Domekan egingo dituzte ekitaldi nagusiak; argazki erakusketa ere ipini dute Espaloia kafe antzokian

L.Z. | ELGETA

Pasiotarren ordenak antolatuta, domekan omenduko dute Martin Elortza elgetarra (1899-1966). Meza esango dute, 12:00etan. Ondoren,

ekitaldia egingo dute Andra Mari plazako monumentuan eta bazkaria, 14:30ean, kiroldegian. Txartelak salgai daude Ugari dendan eta bolatoki tabernan.

Argazki erakusketa

Martin Elortza nor izan zen gogora ekartzeko argazki erakusketa ere prestatu dute. Domekan hamazortzi panel ipiniko dituzte ikusgai antzokian, 11:00etatik 21:00etara. Datorren aste bukaeran ere ikusgai egongo da barikutik domekara. Antolatzaileek Elortzaren senitartekoen laguntza eskertu dute, bai argazki erakusketa prestatzeko zein ekitaldiok antolatze-ko. Zabalik da Elortzaren beati-fikazio prozesua.

LEINTZ GATZAGA

Tabako bako filosofiarekin bat eginda, hainbat ekimen

Bi asteotan informazioa emango dute, eta aukera emango dute erretzaileen azterketa egiteko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Tabako kontuetan kontzientziario handiagoa lortzea eta tabako-mendekotasuna gainditzeko bidean herritarrei laguntzeko aukeren berri ematea dira *Euskadi tabako kerik gabe* izeneko programaren barruan sortu gura duten lan-dinamikaren bi helburuak.

Joan den maiatzaren 31n izan zen tabakorik gabeko munduko eguna, eta, hala, haren bueltan hainbat ekimen egin dituzte Debagoieneko udalerrietan; bada, egun eta helburu horrekin bat egin,

eta Gatzagan ere hala egingo dute datozen bi asteotan.

Erretzailearen pasaporte

Hain justu ere, Udaletik jakinarazi dute ekainaren 10ean eta ekainaren 17an (martitzenak), 12:00etatik 13:00etara bitartean, *Euskadi tabako kerik gabe* programa ezagutarazteko informazio eskuorriak eskuratu ahal izango direla Ongizate Sailera joanez gero. Eta horrez gainera, Ainara Gabilondok, Udaleko Gizarte langileak, aditzera eman du auke-

ra izango dela, baita ere, "osasun zentroko erizainaren eskutik karbono monoxidoaren determinazioak egiteko eta baita erretzailearen pasaporte egiteko eta biriketako adina kalkulatzeko ere", besteak beste.

Erretzeari uzteko eskaintza

Programaren helburu orokorrei dagokienez, berriz, batetik, zabaldu gura dute ze abantaila dituen maila indibidualean nahiz sozialean tabakorik gabeko bizimoduak: "Kontzientziario-maila handiagoa lortu nahi dugu erretzeari uzteak dituen onurez eta tabako kerik gabeko inguruneak edukitzeko beharraz, bai ariketa pertsonal modura, bai gure gertuenekiko eta, oro har, populazio osoarekin dugun erantzukizun modura".

Eta horren osagarri modura, Osakidetzak Debagoieneko uda-

Erronka, aurten ere, gisatu onena prestatzea

L.Z. | ELGETA

Datorren zapatuan, hilak 14, izango da Kuadrillen Eguna. Aurten ere gisatu lehiaketa, herri bazkaria eta erromeria antolatu ditu Udalak.

Aurrekoetan moduan, Udalak ipiniko ditu kazuelak eta kuadrilla bakoitzak hamar lagunendako gisatua prestatu behar du, 14:00etarako. Zaporea eta itxura baloratuko dira. Iaz hamar kuadrillak hartu zuten parte, eta Mili-zianoek irabazi zuten.

KUADRILLEN EGUNA

EKAINAK 14, ZAPATUA

10:30 Plazan, gisatu lehiaketa.

14:30 Plazan, sari banaketa.

14:30 Plazan, herri bazkaria.

17:30 Plazan, erromeria Haitzama taldearekin.

Ikasturte amaierako irteerak eta ikuskizunak eskolan

Ikasturtea azken txanpan da. 2, 3 eta 4 urteko geletako haurrak Atxondora joan dira gaur, barikua, goiz-pasa egitera. Astelehenean eta martitzenean, berriz, jaieguna dute ikastetxean, eta barikuan ikasturte amaierako ikuskizuna egingo dute ikasleek, 15:00etan, Espaloian. 5 urtetik gorakoak Arrikruz kobak ikustera joango dira hilaren 19an, eguna. Biharamunean ikasturte amaierako bazkaria egingo dute guztiek batera.

Gure Esku Dago lantaldeak autobusa antolatu du Bergarara

Domekan, ekainak 8, egingo dute erabakitze eskubidearen aldeko giza katea, Durango eta Iruñea artean. Elgetarrei Antzuolatik gertu dagoen 37. kilometroan egotea egokitu zaie, eta atxikimenduak lortzeko herrian egindako ekimen sortaren ostean Elgetako Gure Esku Dago lantaldeak autobusa antolatu du Antzuolarako joan-etorria egiteko. Autobusa 09:30ean abiatuko da herriko plazatik, eta ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.

OHARRAK

PELOTAKADAZ PELOTAKADA

Ekainaren 13rako, *Pelotakadaz Pelotakada preso eta errefuxiatuak etxera* lelopean jaialdia antolatu dute frontoian. Gaur, barikua, kamisetak salduko dituzte, Ozkarbipean, 19:30etik 20:30era.

JUAN TAMARIZ, ESPALIOAN

Gaur eta bihar, 22:30ean. (Ikus kultura orriak)

LAN ESKAINTZA

Udalak peoia behar du eta sei hilabeterako kontratua eskaintzen du. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago ekainaren 9ra arte.

AUTOMOBIL KLASIKOAK

Ekainaren 15erako, domeka, ibilgailu klasikoekin topaketa iragarri dute, 11:30ean hasita. Turismo Sailak antolatuta.

LEINTZ GATZAGA

Udalekuetarako eta abuztuko irteerako izen-emate datak

Datozen asteotan egingo diren hainbat ekimenetarako izen-emate epeak laster bukatuko dira. Alde batetik, gaur da, egubakoitza, Zuhatzako uhartera egingo den irteerara joateko izena emateko azkeneko eguna. Labidean eman behar da izena. Familiei zuzendutako irteera da hori, abuztuaren 29tik 31ra bitartean egingo dena.

Eta bestetik, ekainaren 30etik uztailaren 18ra bitartean egingo diren udalekuetarako izen-ematea ekainaren 13ra bitartean dago zabalik (egubakoitza). Labidean egin behar da hori, edo ludotekan.



Aitor Arregi. | XABIER URZELAI



Beñat Rezusta. | X.U.

ELITE MAILAKO KIROLARIAK

Arregi eta Rezusta bergararrak, kirol lorpen handiak eskuratzeko atarian

- ▶ Eibarko futbol jokalaria Bigarren Mailako txapeldun izan daiteke Sorian
- ▶ Aspeko pilotariak promesen mailako txapela jantz dezake bigarrenez

XABIER URZELAI | BERGARA

Bergararrak dira biak, eta kirolari profesionalak. Eurak, baina, kirolari apalen multzoan daude. Telebista fokuek itsutu barik profesional modura lehenengo urteak egiten dabilta; alegia, kirol ibilbide luze baten ametsen, hasierako harriak jartzen.

Aitor Arregik (Bergara, 1990) ospakizunetan eman du astea; Eibarko taldearekin Lehenengo Mailara igo da, eta jaia barru-barrutik bizi izaten dabil; joan den astean Lugoren kontrako garai-penean 90 minutuak jokatu zituen Ipuruan. Eta epaileak partiduen amaiera adierazi zuenean Eibarko jai *eroan* murgildu zen hura

ere. Azken asteotan iritsi zaio orain arte izan ez duen protagonismoa, berdegunekoa, jokalariek gehien amesten duten hori.

Baina joan den astean Goienari aitortu moduan, ez dira igoerarekin konformatzen, txapeldun izan nahi dute: "Ez dugu bigarren postua sinatzen". Pauso batera dute balentria hori, eta asteburuan Numantziari irabazi egin beharko diote horretarako. Aurrerago egongo da astia etorkizunaz arduratzeko.

Arregiren Eibar Ligako txapeldun izan daiteke Sorian irabazten baldin badu

Rezustak datorren astean jokatu du finala, Ibai Zabalen kontra

Rezusta, finalaren zain

Beñat Rezusta (Bergara, 1993) sekulako denboraldia egiten dabil. Lehenengo du Aspeko pilotari moduan, eta, konturatu orduko, urteko bigarren finalaren atarian da. Finalera bidea, baina, partiduz partidu egiten da, eta horietako askotan erakutsi du kontrarioak goitik behera menderatzeko gauza dela, bai ezker eskuaz pilotari ematen dion moduagatik, eta baita kantxatik mugitzeko duen azkartasunagatik.

Arregik baino astebete gehiago itxaron beharko du Rezustak ospakizunetan murgiltzeko. Lehena, baina, Ibai Zabala izango du zain, finalean.

PILOTA

Astelehenean jokatuko dituzte Bergara Hiriko finalak

X.U. | ARRASATE

Jaietan murgilduta daudela jokatuko dituzte Bergara Hiriko finalak, astelehenean. Hain zuzen ere, promesen mailan, Errandoneak eta Martinezek Arteagaren eta Erasunen kontra jokatuko dute. Eta nagusien kategorian, berriz, Arrietak eta Gorrotxategik Santxo eta Urrusola izango dituzte aurrez aurre.

Aste barruan jokatuako finalerdietan, Arteagak eta Erasunek erraz irabazi zuten (22-10). Seniorretan, aldiz, lehia parekatuagoa egon zen. Altuna bikain ibili zen, baina Irustak pilota mordo galdu zituen (22-18).

AUTOMOBILISMOA

Zabaleta eta Cestafe izan ziren Aian azkarrenak

X.U. | ARRASATE

Zapatuan egin zuten Aiako igoeraren zazpigarren edizioa. Aitor Zabaletak irabazi zuen jarleku bakarreko ibilgailuen kategoriako lasterketa, eta Markel Cestafe izan zen garai-ale autoen kategorian, Euskadiko Mendi Txapelketako hirugarren proban. Hala, bi bergarar aurre-aurrean.

Gainera, Aiako igoerako errekorra gainditzeko lau hamarrenera gelditu zen Aitor Zabaleta, Lola BMW autoarekin. Bigarren postua lehiatua egon zen, Arkaitz Ordokiren eta Joseba Iraolaren artean. Ordokirentzat izan zen.

TXIRRINDULARITZA

Etxabetarrak, Pentekoste sarian aurrean ibiltzeko hautagaiak

Domekan egingo dute lasterketa, Bergaran, Lehendakari Txapelketa barruan

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Asteburu gogorra izango dute afizionatuen mailako ziklistek, Lehendakari Torneorako puntuagarri diren bi lasterketa baituzte aurretik. Lehenengo Beasainen izango da, zapatuan, eta horrek dezent baldintzatuko du domekan Bergaran jokatu duen Pentekoste saria; lehen lasterketan indar guztia xahutzen dutenek zail izango dute domekan ere aurrean ibiltzea. Indarrak ondo neurtu behar, horrenbestez. Bergarakoak 79. edizioa du, eta helmugatik lehenengo pasatzen denak 1951n Loroñok, 1985ean Indurainek edota 1989an Usabiagak eskuratutako garai-pena berdintzea lortuko du, batzuk aipatzearen.

badituzte ere, erabakigarrienak 73.etik aurrerakoak izango dira. Izan ere, Asentzioko gaina igoko dute (10:30 aldera) eta indartsuenek bakarrik egin ahal izango dute aurrera, handik aurrera kilometro gutxi geratuko dira eta; justu Uberatik jaitsi eta Bergararainokoak (11:00).

09:00etan hasita

Lasterketa 09:00etan hasiko da, Amillaga kalean, eta bi ordu inguruan 86 kilometro egingo dituzte txirrindulariek. Ibilbidea Bergaran hasi eta bukatuko dute, eta, kilometro gehienak Zubillaga eta Elgoibar artean egingo

Lasterketan izango dira Gipuzkoako eta Debabarrenako ordezkari bergararrak, baita Ziraunako ziklista debagoiendarrak ere. Adi Etxabe anaiekin, etxeko proban aurrean ibil daitezke eta.

Lasterketan izango dira Gipuzkoako eta Debabarrenako ordezkari bergararrak, baita Ziraunako ziklista debagoiendarrak ere. Adi Etxabe anaiekin, etxeko proban aurrean ibil daitezke eta.



Beñat Etxabe, Gorlako Igoeran, aurreko taldean. | X.U.

ERRUGBIA

"Bera Berak zazpikoan jokatzeko talde ona izaten du, azkarrak dira"

Zapatuan, 15:00etan hasita, Mojategik nazioarteko txapelketa hartuko du

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Iaz egin genuen moduan, aurten ere finalera iristea zaila izango da eta helburua, gainera, ez da lehiatzea bakarrik. Azkenean, errugbian jokatzeko lagunartean gustura ibiltzea da gura duguna", adierazi du Igor Isasi entrenatzaileak aste barruan. Arrasateren indarra ez da sekula *Seven*-ean egon; etxeko txapelketan ez, behintzat. Izan ere, jokalariek berdegunean lehiatzeaz batera lan egin behar izaten dute Garagardo Jaia antolatzen. Eta kontrarioak fresko iristen dira beti, maila oneko jokalariek azkarrekin, gainera.

Gakoa, azkartasunean

Hor dago txapelketa txukuna egitearen gakoa: "Jokalariek handiek ez dute parte hartu nahi izaten, zazpikoan ondo moldatzeko ezinbestekoa delako korrika egitea". Korrika asko, eta azkar: "Baina animatzeko esaten diet, lehia ez delako helburu bakarra. Hori bai, denok nahi izaten dugu lan txukuna egin".

Hala, lazko finalera iristeko gakoa garbi du Isasik, jokalariek asko izan zituela eskura: "Arrasateko eta Elorrioko jokalariekin talde bakarra osatu genuen, eta



lazko txapelketa, Mojategin. | IMANOL SORIANO

guztira 24 jokalariek inguru izango nituen jokatzeko zain. Noski, aldaketak egiten genituen momentuan talde osoa sartzen zen fresko. Eta hori igarri egin zen". Horregatik, aurten gaitzagoa izango da finalera iristea: "Elorriok talde propioa

ekarriko du, eta tartean izango dira, baita ere, Ordizia edo Bera Bera moduko taldeak". Eta normalean eurak izaten dira faborito. Zapaturako, gainera, bero handia iragarri dute. Berdegunean, ura; garagardoa, ondoren.



Muruamendiaren eta Garin, Estalan, joan den astean. | ANTZUOLA KE

FUTBOLA

Antzuolak eta Aloña Mendik nobedadeak izango dituzte aulkian

X.U. | ARRASATE

Liga txapelketak amaitu badiuzte ere, hainbat futbol talde-tako zuzendaritzak lanean dabil-tza datorren urteari begira. Entrenatzaileei dagokienez, orokorrean, ez dira aldaketa handiak egongo, Aretxabaletan eta Bergaran Gorka Vallek eta Aitor Arratek jarraituko dute -eta -euren lantaldeekin-. Eta Erregional Preferenteko Mondran ere beste horrenbeste, Gotzon Urzelaik iaz abiatutako proiektuaz segituko du-eta.

Ziklo baten amaiera

Kontrara, baina, Antzuolan eta Aloña Mendin ziklo berri bati ekingo diote. Juanina Garaik lau denboraldi emankor egin

ditu Antzuolan; tartean, igoera historiko batekin. Eta hark utzitako hutsunea bi arrasatearrek beteko dute: Jon Muruamendiaren eta Ekain Garinek. Urtetan Mondrako elastikoa jokalariek moduan jantzi ostean denboraldi batez Mondra entrenatu zuten Iker Zaitegirekin batera, 2012an. Orain, Estala izango da euren etxea.

Oñati aldean ere aldaketak izango dituzte. Andoni Azkargortarekin urte oso txukunak egin ditu Aloña Mendik, eta, nahiz eta hainbat eskaintza izan dituen, Antzuolakoak urtebetez atsedean hartzea erabaki du; hala, oñatiarrek Idiazabalgo Igor Serrano fitxatu dute datorren denboraldirako.



ALMACENES ARRASATE

MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

BOSCH eta AEG
Deskontu bereziak!



BERME
2
URTE

1000 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-853

245 €

Balay



BERME
2
URTE

1100 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-865EG

280 €

Balay



BERME
2
URTE

1200 b/min
6 Kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ZWG-6120K

299 €

ZANUSSI



BERME
2
URTE

1200 b/min
7 Kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA VTO-712D12

330 €

Otsein



BERME
2
URTE

1200 b/min
8 Kg

A⁺⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA DYN-8124

375 €

Otsein



BERME
2
URTE

A⁺ Sailkapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA ZDF 3014

315 €

ZANUSSI



BERME
2
URTE

1600
x
550
x
600

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA FT2 321

299 €

teka



BERME
2
URTE

1700
x
600
x
600

A⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA 3KF-6400B

375 €

Balay



BERME
2
URTE

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

INDUKZIO PLAKA EHH6232F0K

360 €

Electrolux



BERME
2
URTE

A⁺ Sailkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA EEC2400BOX

360 €

Electrolux

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A⁺ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

KULTURA

Ermita, musika areto bihurtuta

Formatu txikiko kontzertu handiak, gaurtik hasita, Aramaion, Sastiñaren aurrealdean

A. ARANBURUZABALA | ARAMAIO
Sastiñako bosgarren musika jaialdia abiaraziko du gaur, egubakoitza, Aramaio Udalak. Ekaineko egubakoitz guztietan zuzeneko musika areto bihurtuko dute herriko plazako ermitaren ingurua. Eguraldiaren arabera, kalean beharrean ermita barruan egingo dituzte emanaldiak.

Gasteizko Jam Pak in Purple taldeak zabalduko du aurtengo egitaraua, 20:00etan.

Ekainean eta Irailean

Kultura eskaintza areagotzeko asmoz sortu zuten 2010ean Sastiñako jaialdia. "Sekulako harre-ra izan du lehenengo urtetik, eta, harrezkero, antolatzen jarraitu dugu bi zatitan banatutako jaialdia; ekaineko eta iraileko egubakoitzetan, 20:00etan dira kontzertu guztiak. Polita da askotariko herritarrak elkarrekin musikaz gozatzeko ikustea. Leku pribilegiatua da horretarako, Sastiña" azaldu du Itxaso Aspiazuk, Aramaio Kultura teknikariak.

Ordutegiari eta publiko zabalari ondo egokitzen zaizkien askotariko estiloetako formatu txikiko taldeak gonbidatzen dituzte. "Aurtengoa Gasteizko XabiGune Kultur Music elkartearen laguntzarekin osatu dugu. Askorentzako ezezagunak diren taldeak diren arren, maila handiko musikari profesionalak dira guztiak. Aukeraketa egiterakoan, musika lasaiaren aldeko apustua egiten dugu", esan du Aspiazuk.

Herriko taldeei ere, aukera

Asko dira herrian dauden kultura taldeak, eta horiei lekua egiten saiatzen da Udala; iaz Papargorri abesbatza izan zen eta aurtengoa Lagun Artean dantza taldeak egingo du saioa. "Herrian talde asko daude, baina ez dira guztiak ondo egokitzen jaialdiaren ezaugarrietara. Dantza taldearen proposamena jasota, egoiki ikusi genuen ekainaren 20rako gidatutako dantza saioa egitea", gaineratu du antolatzaileak.



Bergarako Belceblues taldea 2012ko ekainean izan zen Sastiñako jaialdian. | GOIENA

GOIATZ BURGI
LAGUN ARTEAN

"Herritarrek dantzatu gura genuke"

Aramaio taldeak gidatuko du ekainaren 20ko saioa.



Begiratzeko baino gehiago, parte hartzeko saioa izango da.

Dantza herrikoiak dantzatzeko aukera eman nahi genuen. Edozeinek dantzatzeko modukoak izango dira; fandango eta arin-arinak, korruan dantzatzekoak... Horrez gainera, tabernatxo bat jarriko dugu pintxoekin eta edariekin, taldearentzako dirua batzeko.

Zer deritozue Sastiñako jaialdian bertako taldeei ere aukera emateari?

Oso ondo dago. Ohiko hitzorduetara mugatzen gara bestela. Oso ondo egokituta dagoen tokia da Sastiña, eta herrian sekulako giroa sortzen duen jaialdia.

Ekaineko egubakoitzetan izango diren musika taldeak

JAM PAK IN PURPLE Jazz, soul, bossa eta blues doinuak jorratzen ditu Gasteizko talde horrek. 2009. urtean egin zituzten lehenengo urratsak, Gasteizko Luis Aramburu Musika Eskolaren Combo saioetan. Ikasgeletatik taberna eta areto txikietara egin zuten ondoren salto eta orain dela bi urte Sastiñako jaialdian izan zuten esperientzia ona errepikatuzera datoz, gaur. Askotariko taldeetan ibilitako kideek osatzen dute, eta, bakoitzaren ibilbidea ezberdina den arren, Jam Pak in Purple taldean aurkitu dute, bat-bateko musika sorkuntza landuz, askotariko musika tresnekin doinu eta melodien topagunea.



Jam Pak in Purple, gaur. | XABIGUNE MUSIC ELKARTEA

THE ICER COMPANY Arima Sutan taldeko abeslari ohi Iker Ziaren proiektu pertsonala da hori. Garai zail bat bizi izan ondoren, etxean grabatutako formatu akustikoko kantuen bilduma osatu zuten. Grabaketa horiek gertuko musikari eta lagun batzuen esku eta belarrietara heldu ziren gero; Kerobia, Arima Sutan eta Soñadores taldeko kide ohiengana, hain zuzen ere. Ziaren kantuak gustuko zituztela-eta, berriz grabatu zituzten eta beste kantu batzuekin batera osatu zuten *La expedición a las aguas abisales* lana. Adituen esanetan, folk-pop estiloko bidaia zaindua, ederra eta barnekoia da.



The Icer Company, ekainaren 13an. | X.M.E.

NAKED BLUES Jazzaren esparruan eskarmentua duten Jaime Alvallosek (gitarra eta ahotsa) eta Alejandro Mingotek (dobro eta gitarra) osatzen dute musika beltza tradizionala oinarri duen bikote akustikoa. Musikene, Euskal Herriko Musika Ikastegian ezagutu zuten elkar. Ikasketak bukatu eta irakasle lanetan hasi zen Mingote Musikenean, eta, besteak beste, Alvallosi eman zizkion eskolak. Harrezkero, noizbehinkako harremana izan zuten, hainbat jam saiotan elkarrekin parte hartuta; bada, iaz Iruñeko Animal Blues jaialdian erabaki zuten bluesa oinarri duen Naked Blues sortzea.



Naked Blues, ekainaren 27an. | X.M.E.

ESANAK

"Musika lasaiaren aldeko apustua egiten dugu jaialdian"

ITXASO ASPIAZU | ANTOLATZAILEA

Juan Tamariz | Magoa

"Beti bururatzen zait zerbait, amets txikiak sortzen nago etengabe"

Juan Tamariz magoa Elgetako Espaloian izango da gaur eta bihar, 22:30ean

ANE ELORDI | ELGETA

Mundu mailan onenetakoa den Tamariz magoa Elgetara itzuliko da. Orain dela hiru urteko Magia Mostran hartu zuen parte, eta orduko oroitzapen onak dituela adierazi du. Debagoienera itzultzeko gogotsu dago: "Polita da Elgeta bezalako herri txiki batek magari garrantzia ematea, ez baita ohikoena".

Nolakoak izango dira Elgetako emanaldiak?

Komunikazio jaialdi bezala, ikusleek eta nik elkarrekin amets egiteko jaialdia izango da. Guztion ametsak elkartuko diren saioa, non guztia posible izango den. Norbaitek zerbait desagerrarazi nahi badu, desagerraraztea, edota gauzak tokiz aldatzea. Ikuski-zun gozagarria izango da; izan ere, tresna txikiekin egiten dut magia, adibidez, txanpon eta kartekin, eta holakoetan publikoa ez da ikusle soila, parte hartzailea ere bada. Niretzat, ikuslearen parte-hartzea oinarritzakoa da.

Emanaldiak egituratzeko orduan, zer izaten duzu gogoan?

Ez dut egitura konkreturik jarraitzen, gustuko dut aldaketak egi-



Juan Tamariz, Elgetan, 2011ko Magia Mostran. | GOIENA

tea. Horretarako, biolin ikusezinenaren kutxa joko betetik eramaten dut saioa. Bost orduko saioa egiteko jokoak eramaten ditut emanaldietara, nahiz eta orubete inguru iraun. Ez dut programa zehatzik jarraitzen, gorputzak eskatzen didana egiten dut, eta momenturako egokienak diren jokoak ateratzen ditut.

Ikuskizunen aurretik prestaketa berezirik egiten duzu?

Ez dut erritualik egiten. Beharrezkoak diren gauzak prestatzen

ditut, eta une batez pentsatzen jartzen naiz, ikusleek eta nik elkarrekin tarte alai bat pasatuko dugula. Helburua ez da txalo zaparradak jasotzea, tarte atsegin

"Helburua ez da txaloak jasotzea, tarte atsegin bat pasatzea baizik"

bat pasatzea baizik, ikusleek eta nik elkarrekin jai alai eta jostagarria sortzea.

Zerk erakartzen zaitu gehien karta bidezko magiatik?

Bereziki, ikusleekin komunikatzea dut gustuko, eta horretarako kartak baliatzea oso erakargarria da. Izan ere, zuhaitzetik datozen 52 karta dira, guztiak desberdinak baina aldi berean multzo oso polita eratzen dutenak, eta askotariko erabileradunak. Ikuslea erakartzeko oso baliagarriak dira kartak; zenbat eta gertuago izan, orduan eta errazagoa da publikoaren sentsazioak eragitea.

Magoen giltzarrietako bat berrikuntza etengabea da.

Bai, hala da. Nik egunero 6, 7 edo 8 ordu egiten ditut kartak eskuan ditudala, joko eta triki-mailu berriak asmatzeko asmoz. Beti bururatzen zait zerbait, amets txikiak sortzen nago etengabe.

Egoera oparoa bizi du magiaren munduak egun?

Bai, oso egoera ona da. Mago gazte asko daude, eta askotariko arloak lantzen dituztenak, esaterako, ilusio handiak edo telebista bidezko magia. Duela 20 edo 30 urtetik hona magiarekiko interesa hazi egin da, eta asko dira ikasi nahi dutenak. Ilusioz eta gogoz dauden gazte asko daude. Nire eginbeharretako bat haiei erakustea da, munduan zehar ibiltzen naiz hitzaldiak eta ikastaroak eskaintzen; azkena Japonian egin dut. Magoen bilerak dibertigarriak dira, elkarri azken berrikuntzak egiten dizkiogu.

Giza katea dela eta, Gose, Esne Beltza eta Emon, Bergaran

ANE ELORDI | BERGARA

Gure Esku Dago ekimenak hainbat ekintza antolatu ditu Bergarako Udalaren eta Xaxau konpartsaren laguntzarekin. Giza katea eguerdiko hamabietatik aurrera egingo da, eta 14:00etan jai giroan murgilduko da Bergara.

Musika emanaldiak izango dira, musikari debagoienarren eskutik. San Martin plazan finkatuko da gazteen gunea; eta bertan, Gose talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du, 15:30ean hasita. Hirukoteak elektronika, rocka eta trikitiaren doinuak nahasita aurkeztuko ditu. Ondoren, Esne Beltza taldea igoko da taula gainera, 17:30ean. Xabi Solano gidari duen taldeak askotariko estiloak landuko ditu, hip-hopetik folkeraino. Bestalde, arinago, 13:00etan, Udala Musika Bandak ere saioa eskainiko du.

Eguna borobiltzeko ardurara Emon taldeak izango du. Bideberrin izango da kontzertua, 19:30ean, eta ska, cumbia, pop-rock zein euskal doinuak entzuteko aukera egongo da bergararren eskutik.

GIZA KATEAREN JARRAIPEN BEREZIA

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

Ekainak 8: Saio berezia, 21:00etan.

GOIENA.NET | UNEOROKO JARRAIPENA

Ekainak 8: Jarraipena, momentuero, zehatz eta zabal, Goiena.net-en.

GOIENA PAPER | ERREPORTAJE BEREZIA

Ekainak 9: Kronika zabala.

TWITTER SARE SOZIALEAN | UNEOROKO JARRAIPENA

Jarraitu @goiena erabiltzailea.



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Ez Dok Amairuren kontuak eta kantuak umore giroan gaur Arkupen

'Koka-kola eta Barea' antzezlanarekin datoz Ramon Agirre eta Inazio Tolosa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ray eta Nick bikotearen pasadizoak iritsiko dira gaur Arkupera, 22:00etan. *Koka-kola eta Barea* lanarekin Ez dok Amairu taldearen gaineko kontuak eta kantuak gogoraraziko dituzte, betiere umorea lagun.

Meritua aitortzera

Xentimorik gabe ibili ziren Ray eta Nick, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa, aurreko lanarekin munduan zehar, eta orain etxeko kontuekin datoz. Euskal kantagintzaren eta kulturaren historian zeresan handia izan zuen taldearen kontuak. "Ez Dok Amairuren aurkezpenean, argazkia atera zutenean, huts egin zuten bi lagunek eta orain euren garrantzia errebendikatzen datoz, meritua aitor diezaietela eskatzera, liburu bat eskuartean hartuta. Liburu horretan euren istorio guztia jaso dute", jakinarazi du Ramon Agirre aktoreak. Eta horixe da aitzakia Ez Dok Amairuren garaia-ri errepasoa egiteko: "Umora giroan eta kantuan, Ez Dok Amairuren hastapenei errepasoa egingo diegu, kantuak lardaskatuta, parodiatuta", gaineratu du.

Konplizitate handiko bikotea

Konplizitate handia dago Agirre-
ren eta Tolosaren artean, eta horrek emaitza bikainak eman dizkiela onartu du Agirrek: "Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta oso ondo konpontzen gara; izan ere, musikarekiko eta antzerkia-



Inazio Tolosa eta Ramon Agirre. | GOOGLE

rekiko antzeko sentsibilitatea dugu, eta hortik, lanean ondo baino hobeto moldatzea".

Antzezlana aurkeztu zutenetik 40 baino toki gehiagotan egon dira, eta jakinarazi du oso harre-
ra ona izan dutela guztietan: "Aurreko emanaldia [*Xentimorik gabe*] arrakastatsua izan zen,

baina hau oraindik gehiago esango nuke, gaia geureagoa delako, beharbada". Hala ere, badaki ez dela samurra aretoak jendez betetzea, eta aretxabaletarrak gonbidatu ditu gaur gaueko ekitaldira: "Lasai-lasai afaldu eta gero etor daitezela; oso ondo pasatuko dute-
la ziurtatzen diet".

ESANAK

"Ez Dok Amairuren hastapenei errepasoa da"

"Umora giroan egingo dugu, kantuak lardaskatuta"

RAMON AGIRRE | AKTOREA



Finaleko bertsolariak Maddi Sarasua erdian dela. | PLAZATIK GAZTETXERA

Goigana eta Bergara nagusi Plazatik Gaztetzera

Antzuolan hasitako XIII. bertso txapelketa bukatu da Maddi Sarasua finalean izan dela

M.A. | SORALUZE

Maiatzaren 9an Antzuolan 32 bikotek hasitako Plazatik Gaztetzera XIII. bertso txapelketak baditu irabazleak: Manu Goigana eta Jokin Bergara. Aretxabaletan bizi den Maddi Sarasua lapurtarra ere izan zen Soralezeko finalean, Manex Astigarragarekin batera.

Bertsotan fresko

Lau bikote, zortzi bertsolari, elkartu ziren Soraluzen finala jokatzeko. Zortziko handiko ariketarekin eman zioten hasiera saio puntuagarriari, eta horrez gain, ariketa hauek egin behar izan zituzten bertsolariak: zortziko txikian; oinak emanda eta azken aurreko puntua emanda bertso bana; puntu erantzunak; koplaka; eta bakarka. "Hasieratik bukaeraino saioari eustea lortu zuten zortzi

bertsolariak, eta entzuleek ere ez zuten hutsik egin, bertsoaldiak gogotsu txalotuz eta giro ederra sortuz", jakinarazi dute antolatzaileak. Gainera, Goigana eta Bergara bikote txapeladuna nabarmendu gura izan dute: "Bertsotan ederki egin zuten, fresko nabaritu genituen eta arrazoietan eta azken kolpean asmatuz". Hala, buruz burukoa jokatu beharrik gabe izan ziren saioko lehenak. Txapeladunek Eibar eta Markina-Xemeingo kanporaketetan erakutsitako joera mantendu zuten. Horien atzetik geratu ziren Asier Azpiroz eta Adur Gorostidi.

Maddi Sarasuak eta Manex Astigarragak ere txapelketa polita jokatu dute. Debako kanporaketa pasatu zuten, baita finalerdia ere, baina Soraluzen ezin izan zuten borobildu ordu-
ra arte egindako lana.

Mixel Ducau | Bidaia taldeko abeslaria

"Momentu goxo bat pasatzen dugu entzuleok eta geuk elkarrekin kontzertuan"

'Iparraldea Bergaran' kontzertuan parte hartuko du, Duhalderekin eta Martikorenarekin batera

UBANE MADERA | BERGARA

Iparraldeari gau berezia eskaini, eta Pazkoetarako kontzertua antolatu du Bergarako Udalak. Bihar, zapatua, 23:00etan. Mixel Ducauk aurreratu ditu xehetasunak.

**Errobiren garaian kantu klasikoe-
tan ibili ostean, Bidaia taldearekin munduko folklore kantuak ere txertatu dituzue zuen diskoetan; Bergarara zer ekarriko duzue?**

Bidaia taldearekin hiru disko egin ditugu eta hiruretatik kantuak hartuko ditugu, baita ere zaharrago batzuk; adibidez, Zal-
dibobo garaiko *Lurra* kantua; noizbehinka *Erribera* ere kan-

tatzen dugu Carolinarekin [Phi-
lips]...

**Horrenbestez, entzuleei zer esango diegu: joateko eserita, lasai eta abesten egoteko pentsamenduar-
ekin?**

Bai, gurekin normalki horrela pasatzen da: jendea eseri egiten da, eta entzuten egoten da. Momentu goxo bat pasatzen dugu elkarrekin. Kantu batzuk dantzagarriak dira, nahi badute jaiki eta dantzatu pixka bat; baina ohituraz, jendeak, eseri, entzun eta kantu batzuk gurekin kantatzen ditu.

Gozotasuna da, akaso, zuen emanaldien ezaugarri nagusia, beraz?



Mixel Ducau. | MIXEL DUCAU

Bai; entseatzeko zela ezarri publikoaren eta gure artean halako intimotasun bat, konplizitatea, eta elkarrekin kantatzea; kantu batzuk errazak dira errepikatze-
ko, eta, normalean, jendeak gogotsu kantatzen du gurekin. Ziburun horixe egin dugu orain dela gutxi festa handi batean, eta

horrela gertatu da. Helburua da momentu lasai bat pasatzea elkarrekin.

Anje Duhalde ere bertan egongo dela kontuan hartuta, sustraietara (Errobi) jotzeko ere aprobetxatuko duzue elkarrekin abestuz edo?

Zergatik ez. Arratsaldean elkartuko gara soinu probak egiteko; beraz, seguru aski, bai, konponduko dugu zerbait, elkarrekin egiteko kanturen bat. Hori erraza da guretzat, memoria hor dago eta ez da ahazten hori.

Bidaia taldearen beste ezaugarri bat ere bada ezohiko instrumentuak erabiltzen dituzuela, ezta?

Pixka bat bai. Erabiltzen dugu, bereziki, zanfoña; hori ez dago oso ikusia Euskal Herrian. Bai, berriz, Gaztelan, Frantziako erdian eta Italian... Beraz, berezitasuna badu, eta biziki ongi ezkontzen da nire gitarrarekin. Eta nik jotzen dut, baita ere, banbuzko klarinetea, oso soinu goxo eta intimua ematen duena.

Besterik gura baduzu gaineratu...

Espero dugu Iparraldeko isla on bat, eta nahiz eta ez garen gaztedi berria [Barre], pozik elkarrekin egongo garela Bergarako festetan.

Munduari bira emango diote "80 kaxatan", Aretxabaletan

U.M. | ARETXABALETA

Biltegitik irten gabe, globoz, itsasontziz edo gameluz, istorio horretako protagonistek munduari bira emango diote 80 kaxatan. Jules Vernerren *Munduari itzulua 80 egunetan* abentura bidaia abiapuntu duen istorioa da.

Horixe da Markeliñe konpainiaren *Kartoibiraka* antzezlanean oinarria, datorren domekan (ekainaren 15ean) Aretxabaletara ekarriko dutena, Zاراia aretora. 17:00etan hasiko da ikuskizuna, ordu-bete iraungo du eta sarreraren prezioa hiru euro da.

Istorio horren bitartez, Markeliñe konpainiak zera ere azpimarratu gura du: pertsona makinatik bereizten duen ezaugarria dela jolasteko eta sortzeko duen gaitasuna.

PAZKOAK 2014



**Bergara
jaietan!**



Irudietan,
Bergarako
erraldoiak.

JAIETAKO EGITARUA | TXOSNAGUNEA | BAKAILAO LEHIAKETA | REYES AZKOITIARI ELKARRIZKETA | ERRALDOIEN JAI
ERREKORTADORE DESAFIOA | ARGAZKI ZAHARRAK | KANPOAN BIZI DIREN BERGARARRAK | MUSIKA ESKAINTZA | 'IPARRALDEA BERGARAN'

IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ALTZARIAK





PENTEKOSTE JAIK 2014 BERGARA

Ekainaren 6tik 10era arte

ondo
pasau
jaixetan!

Ariznoa • Azpeitxi • Bule • Etxagi • Euxebio II
Irish Pub Galways • Kayak • Pol Pol • Toki Ona • Usua

AGURRA

JAIONE ISAZELAIA
Bergarako alkatea



Alkatearen agurra

Jai-batzordiak gertatu dau programa dotoria: kultura, kirol, musika eskaintza paregabia. Badu piperra ta gatza ta badauka koloria, baina ez da obra amaitua soilik da borradoria; herriak izan behar du jai hontako aktoria, irten kalera ematera indarra ta adoria, jaixari erantsi poza kantua ta umoria, ta egitarau berez ona bihurtuko da hobia.

Tirolinan zintzilika agur keinuak eginez, Bitorianatxo jaitxi da betiko asmo berdinez. Aurten bada berri onik? galdetu dau jakin-minez; Kanto, Miren ta Enrike gurekin dira atseginez, hala be penatan gaude denak eduki ezinez. Mozolotegitik dator juergarako gogo finez balerua betia ta moño dotoria zinez, antosiñaz bustitzera guztiok jai-zipriztifez.

Ilusiño berezixa dakar jai-aurreko txanpak, orduagatik galdezka etxeko neska matrakak, Zenbat paga, zein erropa? urduritasun galantak, kuadrilako lehenbiziko gaupasa ta jai-estampak, hainbat oroimen ta kontu txaranga eta barrakak; helduak bakallaua ta gaztiak berriz bokatak, ikustekuak beste behin gure ohiko zalapartak; pasa ditzagun guztiok Pazko jai-egun apartak.

JAIETAKO EGITARAUUA

EGUBAKOITZA

6

15:00 Ikasle bazkaria txosnetan.

18:00 - 20:30 AROZTEGI ARETOAN Eibarko pintura elkarteko margolarien lanen erakusketa.

20:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA (Reyes Azkoitiak botako du) eta Bitorianatxoren jaitsiera, San Martin plazan.

Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, herriguneko kaleetan, San Martin plazatik irtenda. *Txun-da-ta, txun-da-ta...*

20:30 Elektrotarangarekin kalejira San Martin plazatik irtenda. Antolatzailea: Txosna batzordea.

Iluntzean Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA.

23:00 DANTZALDIA Imuntzo eta Beloki taldearekin San Martin plazan. *Trikitolariak gara eta harro gaude!*

23:00 KONTZERTUA Bideberrin: Glaukoma, Kashbad, Adams Party, eta abar.

ZAPATUA

7

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro. *Dira, dira zezenak dira... harrapatzen bazaitu!*

10:00 34. HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA, Beart Bergarako arte elkartearen laguntzarekin, San Martin plazan.

10:00 DIANA. Bolutik Bergarako trikitilariak; Labegarietatik

Elgoibarko dultzaineroak; Oxirondotik Udal Txistulari Banda. Ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 Herriko elkartearen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Sukaldarietzako lapiko eta

amantalak: Lacor-ek emandakoak. Herritarrentzako mokadua etxe hauei eskerrak: Konde, Mizpildi, Ogiberri Elkoarti, Ogizun eta Olabe okindegiak; Comercial Miner, Lopez-Ojeda (Atxega), Manso Hermanos eta Txomin Zubeldia edari banatzaileak; Antia, Igartza,

Joseba, Sebastian Imaz, Urzelai, Leturia eta Rezola harategiak.

11:00 TALOAK egiteko umeentzako tailerra, San Martin plazan. *Um... ze goxua!*

11:30 Pentekosteetara ONGI TORRIA emateko ekitaldia, iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren bergarako txikitxoei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren argazki bateratua aterako dute udaletxearen kanpoaldean, artxibo aldeko eskaileretan.

12:00 - 14:00 eta 18:00 - 20:30 AROZTEGI ARETOAN Eibarko pintura elkarteko margolarien lanen erakusketa.

12:30 Bergarako, Kataluniako, Mutrikuko eta Hernaniko ERRALDOIEN KONPARTSAKO KALEJIRA Bergarako kaleetan. *Gigantes, gigantes, vestidos elegantes...*



Bitorianatxo, San Martin plazara bidean, jaiak hasteko. | GOIENA

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



RPS: 266/13

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia.
- Ortodontzia.
- Odontologia orokorra.
- Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.
- **Estetika eta hortzen zuritzea teknika bereziarekin.**

Aseguruak: PADI (Osakidetza), AEGON

24 urtez BERGARAN zuekin. Eskerrik asko denoi!

ONDO PASAU JAIXETAN!

13:30 Bakailao lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

13:45 Haur eta gazteen plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

14:30 BAZKARIXA Fermin Valencia kantautorearekin, txosnetan.

16:00 GOITIBEHERA TXAPELKETA San Martzialgo bidean.

18:00 Bergarako, Kataluniako, Mutrikuko eta Hernaniko ERRALDOIEN KONPARTSEN KALEJIRA Bergarako kaleetan Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurtzeta, Ramon M. Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herri Lagunak, D. Irala, Barrenkale, San Martin plaza.

18:00 ROCK maratona Irizarko lorategian.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA 16 urtetik beherakoentzat, eta ondoren 16-20 urte bitarteko ERREKORTADORE GAZTEEN TXAPELKETA Seminarioko zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

21:00 La Jodedera, TXOSNETAN.

23:00 DJ AMAIA TXINTXURRETAREKIN jaialdia zezen-plazan (euria eginez gero Seminarioko karpan). 12-16 urte bitartekoentzat.

23:00 IPARRALDEA BERGARAN: Anje Duhalde, Erramun Martikorena eta Mixel Ducau eta Caroline Philipsen kantaldia San Martin plazan (euria eginez gero Udal Pilotalekuan). Aulkiak izango dira.

23:15 ROCK kontzertua txosnetan: Mc Onak eta Arkada Social.

DOMEKA GURE ESKU DAGO EGUNA

8

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

09:00 Pentekosteetako XAKE txapelketa udaletxeko bilkuren aretoan.

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA, Pentekosteetako Saria Lehendakari trofeoa.



Gure Esku Dagok ekitaldi berezia egingo du domekan, hilak 8. Argazkian, Bergarako beste ekitaldi bat. | GOIENA

Antolatzailea: Lokatzam Ziklismo Eskola.

10:00 KEDADA. Ondoren txosnetatik musika animazioarekin eta San Martin plazatik Udal Txistulari Bandarekin eta Musika Eskolako Txistulari eta trikitilariarekin irteera Labegaraietarantz.

12:00-12:30 Gure Esku Dago GIZA KATEA.

12:00 - 14:00 AROZTEGI ARETOAN Eibarko pintura elkarteko margolarien lanen erakusketa.

13:00 Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoioan.

Egitaraua: 'ALTZASU' (Martxa), A. Gz. Chirlaque. Bere 50. urteurrenean

'LA BELLE HÉLÈNE' (Obertura), J. Offenbach

'EUSKAL HERRIA KANTUZ', A. Gz. Chirlaque

'BEAUTY AND THE BEAST' (Musikala), A. Menken

'LOUIS ARMSTRONG MEDLEY', Arr: N. Iwai

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

14:00 GURE ESKU DAGO ekitaldi berezia San Martin plazan.

14:00 - 19:00 SLIDE txirrista erraldoia eta puzgarriak Oxirondo plazan.

15:30 GOSE taldearen kontzertua San Martin plazan.

16:00 IRRIVEN LAGUNAK txosnagunean.

17:30 HERRIXA DANTZAN txosnagunean.

17:30 ESNE BELTZA taldearen kontzertua San Martin plazan.

17:30 APAR festa Oxirondo plazan.

18:30 EUSKAL HERRIKO ERREKORTADORE TXAPELKETA zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

19:30 EMON taldearen kontzertua txosnagunean.

ASTELEHENA KUADRILEN EGUNA

9

11:30 TABERNEN ETA KUADRILEN ARTEKO HERRI KIROLEN TXAPELKETA zezen-plazan, Xapre



Umeak, gustura barraketan. | JOSETXO ARANTZABAL

ibili

1942a ezker

San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net



IBILI app berria eskuragarri



IBILI menaje




Ondo pasa jaiak!

PESCADERIA
JOXAN
ARRAINDEGIA

Orain, Super Amaran ere bai!

Ondo pasa Pazkoetan!

Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29



eta Zarra trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA Nuevo Talisman orkestrarekin Espoioan.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan (euria egiten badu, Labegarietako kiroldegian).

Adingabeei bazkarian ez zaie alkoholun edaririk banatuko. Kuadrillaka jarri nahi duzenok denok taldean agertu beharko duzue bazkaltzera, mahaien antolaketa ez oztopatzeko.

18:00 POMPER xaboi-penpen ikuskizuna eta tailerra Munibe plazan.

18:30 GAZTETXOENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO ZEZENTXOAK ETA BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

19:00 BERGARA HIRIA PILOTA PARTIDUETAKO FINALAK Udal Pilotalekuan. Antolatzailea: BKEren pilota saila. *Mil colorau! Mil colorau!*

20:00 Laket-en KONTZERTUA Bideberrin.

23:00 CAMP DANTZALDIA Vulkano Orkestra taldearekin Espoioan.

23:00 KONTZERTUA Bideberrin: 2 Bala. Tajon Prieto eta Kuajaloteak.

MARTITZENA UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

10

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00 - 14:00 HAURRENTZAKO JOLASPARKEA Ipintza II-ko patioan. Puzgarriak, zirkuitu tibetarra, pendulua...

12:00 HERRI KIROL ERAKUSTALDIA San Martin plazan.



Esne Beltza taldearen kontzertua izango da. | GOIENA

Joxe Mari Olasagasti, Donato Larretxea, Alex Txikon eta Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkoran, eta Joseba Ostolaza eta Idoia Etxeberria harri jasotzen. Ondoren herri kirolen tailerrak ikusleentzat. *Zaasssttt! Eman hor aizkorakada gozo-gozoooo! Azpi-azpitiooo...!!!*

12:30 - 14:00 ARANTZA ETA PANTXOren kantu emanaldia Domingo Martinez de Irala kalean.

17:00 - 20:00 HAURRENTZAKO JOLASPARKEA Ipintza II-ko patioan.

17:00 Aspe pilota enpresak antolatutako 1. mailako PILOTA JAIALDI PROFESIONALA. *Mil azul, mil azul...*

18:00 BINGO herrikoia Munibe plazan (euria eginez gero, San Martin plazako arkupeetan).

18:00 BERTSO saioa txosnetan.

18:00 - 20:00 AROZTEGI ARETOAN Eibarko pintura elkarteko margolarien lanen erakusketa.



Goitibehera txapelketan, gaztea zitzu bizian. | JOSETXO ARANTZABAL

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA ZEZENTXOekin zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

20:00 - 21:00 eta 22:30-00:30 DJ FESTA DJ Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

20:00 ROCK kontzertua txosnetan: Bidelapurrak.

22:00 FILM LABURREN lehiaketa txosnetan.

00:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

ZAPATUA

14

12:00 - 14:00 eta 18:00 - 20:30 AROZTEGI ARETOAN Eibarko pintura elkarteko margolarien lanen erakusketa.

14:30-15:30 Entrenamendua

Ondoren MOTO-KROS txapelketa Angiozarrera bidean dagoen zirkuituan. Antolatzailea: Bergara Off Road.

DOMEKA EUSKAL HERRIKO BEHI SUHARRAREN EGUNA

15

Egun osoan EKITALDIAK zezen-plazan eta Seminarioko patioan. Egun osoko sarrera: 10 euro.


12:00 - 14:00 AROZTEGI ARETOAN Eibarko pintura elkarteko margolarien lanen erakusketa.

autopullmans
Araba



Ondo pasa jaiak!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta juridikoak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Ondo pasa jaiak!

Txosnagunea gertu jaizaleak hartzeko

Herri Mugimenduak sekula baino jai indartsuagoak antolatu ditu, lau egunetik bostera pasatuta

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Txosnagunea gertu eta Herri Mugimenduko kideak jaiak has-teko gogoz. Xaxau birusak, beste urte batez, ekitaldiz beteko du txosnagunea. Aurten, gainera, sekula baino jai indartsuagoak gertatu dituzte, lau egunetik bostera pasatuta; horretan jardun dute herriko zazpi eragilek azken hilabeteotan. Jaiak girotu eta osatu egingo dituzte egitarau propioarekin, egitarau euskaldun, herrikoi eta osatuarekin. Izan ere, antolatu dituzte bazkariak, bertso saioa, film labur lehiaketa... eta, zelan ez, gura beste kontzertu, mila estilotakoak.

Txosnagunearen irekiera ekitaldia gaur, egubakoitza, izango da elektrotzarangak lagun egin-da. Bitorianatxori ongietorria egin ondoren Bideberriraino joko dute, eta herri guztia jaietan murgildu dela iragarri. Hori baino lehen, baina, ikasleen bazkaria izango da eguerdian, azken urteotan legez. Gaua, osterara, jaietako lehen kontzertuak girotuko du estilo guztiz ezberdinetako hiru talde elkartuta: Glaukoma, Kashbad eta Adams Party.

Bazkariarekin Fermin Valencia

Bihar, zapatua, elkartasun bazkariak irekiko du txosnagunea. Aurten, gainera, Fermin Valencia kantautore nafarrak egingo die lagun; Nafarroari, askatasunari eta frankismoaren biktimei eskainitako abestiek girotuko du hark bazkalostea.



Herritarrek txosnagunean, iaz egindako bazkarian. | IMANOL SORIANO

Arratsaldean, osterara, herriko rock taldeen txanda izango da eta bi gunetan elkartuko dira. Eta afalaurretik Karibeko doinu alai eta dantzagarriak ekarriko ditu La Jodera laukoteak. Gau

parte rockarendako izango da, beste behin, eta oraingoan McOnak eta Arkada Social taldeak izango dira oholtza gainean.

Domeka da aparteko eguna, ekainaren 8a. Izan ere, Gure Esku

Dago jaialdiarekin bat egingo dute Pazkoek. Udalarekin elkarlanean jardun du Herri Mugimenduak antolakuntza lanetan, eta ekitaldiak plazan eta txosnagunean izango dira.

Astelehenean ere ez da musika falta izango txosnagunean, eta iluntzean Laket taldearekin erromeria giroa topatuko dute hurbiltzen direnek. Gaua bertso doinuek hasiko dute, Iñaki Gurrutxagak eta Aitzol Barandiaranek sortutako 2 Bala proiektuak, hain zuzen ere. Eta ondoren, dantzarako ordua iritsiko da Tajon Prieto eta Kuajaloteak taldearekin; Kuajalotour 2014 bira barruan geldialdia egingo dute nafarrek.

Emakumeak nagusi bertsoetan

Azken egunean, martitzena, bertso saioa izango da protagonista. Amaia Agirrek jarritako gaiei erantzungo diete Alaia Martin, Oihana Bartra, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertsolariak. Jarraian, Bidelpurak bikoteak Ameriketako Estatu Batuetako kantu tradizioan oinarritutako doinu akustikoak ekarriko ditu.

Jaiok agurtzeko, film laburren lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute.

Txosnetan, edan eta jan

Bideberrin hiru txosna daude, eta, edatekoaz gain, jatekoa ere egongo da, horietako batean ogi-tartekoak emango dituzte-eta. Plazako txosna ere, aurten, Herri Mugimenduen ardurapean dago. Eta bertako kideek dei egin dute edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko jaiotan, txosnetan zein gainerako tabernetan.

Kontzertuen berri zabalagoa 48. eta 49. orrietan.

Film laburren lehiaketa hirugarrenez

Herri Mugimenduak hirugarrenez deitu du Pazkoetako film laburren lehiaketa, eta herritarrei animatzeko dei egin die. Izan ere, edonork parte hartu ahal izango du, eta saria eskuratu. Filmaren gaia norberak aukeratu du, ez dago inolako baldintzarik. Luzerari dagokionez, osterara, gehienez zortzi minutu izango ditu.

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Pazkoetako martitzenean, ekainak 10, emango dituzte, txosnagunean, 22:30ean. Sariak ere bertan erabakiko dituzte ikusleek.

Argibide gehiagorako, honako helbidera idatzi: xaxaukonpartsa@gmail.com. Edo 615 73 45 53 telefono zenbakira deitu (Jone).

|||
GOKI ERREFORMAK, S.L.

Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.


Ondo ibili jaixetan!

Irizar Ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.es



Bergarako Udala

Ondo pasau jaixak!

San Martin plaza

www.bergara.net • bergara@bergara.net

Tel.: 943 77 91 00 – Faxa: 943 77 91 63



UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarteuroztegia.com



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



Saunier Duval

GUIPUZCOA
Sematec

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21
20570 Bergara

Tel.: 943 76 06 61

www.sematecguip.com
bergara@ofisat.net

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

Bederatziren artekoa izango da aurten lehia

Bihar zapatuan da, San Martin plazan, elkarten arteko bakailao lehiaketa; 13:30ean jakingo dira irabazleak

MIREN ARREGI | BERGARA

Pentekosteetako bakailao lehiaketak 22. aldia du aurten. Bihar izango da hori, San Martin plazako arkupeetan. 11:00etarako lanean hasita beharko dute parte-hartzaileek eta 12:45ean entregatuko dute

bakailaoa. Epaimahaiak onena zein den erabaki beharko du 13:30erako; orduan izango da sari banaketa.

Bederatzi elkarte

Elkarteen arteko lehiaketa izango da biharkoa. Hain zuzen ere, parte

hartuko duten bikoteek elkarte bana ordezkatzuko dute: bederatziren artekoa izango da aurten lehia. Hemen parte hartuko dutenak: Aizpe, Artatse, Basalgo, Danok Bat, Gorla, Pertxa, San Juan, Santa Ana eta Toki Eder.



Jenny Higuera eta Toño Gonzalez. | T. GONZALEZ

AIZPE ELKARTEA

"Amak egiten zuen erara" prestatuta

Aizpe elkartearen Toño Gonzalezek eta Jenny Higuera hiru gurekin hartuko dute parte bakailao lehiaketan: "Oso ondo pasatzen dugu eta urtetik urtera hobetuz goaz, gainera. Aurten, irabaztea da erronka", diote. Horretarako bakailaoak ona izan behar duela gaineratu dute eta garrantzitsua dela ondo gezatzea. "Amak primerakoa egiten zuen. Guk ere hala egingo dugu", dio Gonzalezek.

BAKAILAO ONA EGITEKO...

"Bakailaoak izan behar du txuri-txuria"



Jose Mari Ilarduia eta Mikel Gomez. | M. GOMEZ

ARTATSE ELKARTEA

Sekretuak sekretu izaten segitzen du

Mikel Gomez eta Jose Mari Ilarduia eskarmentudun lehiakideak dira. "Urteak daramatzagu parte hartzen eta bi bider irabazi ere egin dugu", diote. Eta gaineratu: "Klabea da jenero ona. Bakailaoa Eibartik ekartzen dugu egunean bertan. Olioak izan behar du birjina estra eta berakatzak, gorria. Horretaz aparte, saltsa ondo loditzea da garrantzitsua. Gure sekretua ez dugu hemen esango...".

BAKAILAO ONA EGITEKO...

"Jenero ona izatea da oso garrantzitsua"

PERTXA ELKARTEA

Irabaztea ez, parte hartzea

Hiru-lau bat urte daramatzate Joxe Mari eta Josune Perez aita-alabek bakailao lehiaketan Pertxa elkartearen ordezkatzeko. 2013ko bikote irabazlea da, gainera: "Aurtengoa ere irabazten badugu pozuko gara, baina ez da hori helburua, parte hartzea baizik", dio Jose Mari Perezek.

Bakailao irabazle batek izan behar dituen ezaugarriez galdetuta dio garrantzitsua dela "gatza ondo kentzea eta saltsa ona lortzea. Horretarako, eragin eta eragin egin behar da. Oliba olio on batek ere garrantzia handia du".



Jose Mari eta Josune Perez, aita-alabak. | J.M. PEREZ

BAKAILAO ONA EGITEKO...

"Eragin eta eragin, saltsa ona lortzeko"



Raizabal

gozotegia

1908tik zuekin
eskerrik asko guztioi

eta ondo pasau jaixak!

Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83



Ondo ibili jaietan!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Reyes Azkoitia | Pilota taldeko entrenatzailea

"Urte askoan egindako lana errekonozituko dute gaur"

Pilota taldeko entrenatzaileak botako du gaur balkoitik txupina



Reyes Azkoitia, udaletxeko balkoian. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREN ARREGI | BERGARA

Arratsaldeko zortzietan udaletxeko balkoitik botako duten txupinarekin eta Bitorianatxoren jaitsierarekin batera hasiko dira gaur 2014ko Pentekoste jaiak. Datozen bost egunotan atsedenerako tarte gutxi izango da Bergaran; jaietako emango dien txupina botatzeko ardura pilota taldeko Reyes Azkoitia izango du aurten.

Jaiei hasiera emateko ardura zurea da aurten. Polita, ala?

Sorpresaz hartu nuen Kultura zinegotziaren deia. Duela pare bat aste deitu zidaten. Momentuan bertan ez nuen jakin zer esan, zer erantzun. Une oso txarrak pasatzen dihardugu, taldeko delegatu Luis Mari Gutierrezek iktus

bat izan zuenetik, eta horrela harrapatu ninduen, triste samar.

Zalantzak izan zenituen, beraz?

Egia esan, bai. Ez ninduen gogotsu harrapatu. Frontoiaren erabilera dela-eta ere izan ditugu gaizki-ulertuak Udalarekin eta horrek ere sortzen zizkidan zalantzak. Udal ordezkariarekin eurekin izandako bilera baten ondoren konbentzitu nintzen guztiz.

"Sorpresaz hartu nuen gonbita; momentuan ez nuen zer erantzun jakin"

Azken finean, pilota taldean egindako lanaren errekonozimendua da hau.

Ez dut niganako errekonozimendu moduan hartzen. Niri, pertsonalki, ez zaizkit horrelakoak askorik gustatzen. Animatu banaiz izan da pilotako talde guztiari egiten zaion errekonozimendu moduan ulertzen dudalako; eguneroko jardunean buru-belarri aritu garen taldekide guztioi egiten zaigun omenaldi txikia. Urte asko daramatzagu lanean, nirekin batera hasi ziren orain taldean dauden beste guztiak ere. Oso lantalde polita osatzen dugu eta gurako nuke horrela jarraitu beste urte askotan. Hori horrela izanik, pentsatu nuen garrantzitsua zela gaur hor egotea.

Ondo lagunduta egongo zara, gainera. Pilotako gaztetxo inguratuta, alegia.

Bai, bai. Horrek ere animatu ninduen txupina botatzera. Pilota taldeko neska-mutikoak nirekin egongo dira balkoian eta nire bilobak ere izango ditut ondoan. Eurak izango dira globoak eta serpentinak botako dituztenak. Ilusio handia egiten dit umez lagunduta egoteak.

"Pilota taldeko gaztetxo inguratuta egongo naiz gaur"

Ume eta gaztetxo inguratuta, udaletxeko balkoian seguru izango duzula norbait buruan.

Zalantza barik, Luis Mari Gutierrez. Arrasaten dago maiztaren 1a ezkerreko. Asko gogoratzen naiz berataz eta gaur txupina botatzeko momentuan ere hala izango da. Errehabilitazioarekin-eta asko ari da hobetzen eta ondo jarriko den esperantza handia daukagu. Animo asko hemendik!

Zerbait gehitu gurako zenuke?

Esan dut gaizki-ulertu batzuk izan ditudula Udalarekin eta gaineratu gurako nuke gu gertu gaudela elkarlanerako eta arazoak daudenean berba egiteko. Frontoiaren erabilerari dagokionez, baina, eskertuko genuke sentimendua pixka batekin jokatzea.

Bergaran guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

BERGARAN FORD MUGARRI LASTER INAUGURAZIOA

Amillaga 5ean izango duzu zure Ford zerbitzu berria

MUGARRI AUTOAK Amillaga 5. BERGARA. 670 82 71 86



Ibon Unamuno | Erraldoien Taldeko kidea

"Aurten 24 bat erraldoi izango gara gaiteroekin kalejiran"

Molins de Rei, Hernani eta Mutrikutik etorritakoak izango dituzte lagun

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Bihar, zapatua, erraldoien eguna izango da; dantza, buelta eta jira, kalean gora eta kalean behera ibiliko diren pertsonaia handien eguna. Goizean (12:30) eta arratsaldean (18:00) izango dira kalean umeen gozagarri diren konpartsak. Aurten, gainera, Bergarako Erraldoi Taldea ez da bakarrik ibiliko, kanpotik etorritako lagunak izango dituzte inguruan: Molins de Rei herrikoak (Bartzelona), Hernanikoak eta Mutrikukoak.

Bergarako taldean zenbat erraldoi dituzue?

Hamar; sei handiak: Joxe Bixente eta Mari Kattalin; Madalena eta Ximon; eta Peru eta Marixa. Bi ertainak: Felisin eta Guti. Eta bi txikiak: Elhuyar anaia.

Aurtengo jaietan, gainera, ez zarete bakarrik ibiliko, ezta?

Ez; Molins de Rei herritik, Hernanitik eta Mutrikutik etorritakoak izango ditugu lagun, guztira, 24 bat erraldoi.

Eta horiek dantzan jartzeko zenbat lagun zaudete Bergaran?

24 bat heldu eta beste horrenbeste ume ibili izan gara.

Zuk zeuk zein erabiltzen dituzu? Handienak, Madalena eta Ximon; pisutsuenak direlako.

Horiekin dantzatzea samurra da?

Bai; bi horiek 48 kiloren bueltan dituzte. Bi zaharrenek, Joxe Bixentek eta Mari Kattalinekin, osterara, 22 kilo, baina samurragoa da pisutsuenak erabiltzea. Pisua, pisua da; baina zaharrek pisurik handiena buruan dute, eta oreka mantentzea gehiago kostatzen da. Nork berea dauka...

Eta umeen artean zeinek du arrakasta handien?

Horretan ez dago zalantzarik, Gutiri eta Felisini egindako ipotxek; askogatik, gainera. Ez bakarrik Bergaran, hemendik kanpo ere bai, Donostian, Bilboko Aste Nagusian...

Baina umeek ez dituzte eroaten horiek, ezta?

Ez, orain arte ez, gutxienez metro eta erdiko garaiera behar delako horiek ibiltzeko. Gure asmoa da umeendako apropos egindako Elhuyar anaiekin hastea lehe-

"Zalantza barik, Guti eta Felisin ipotxak dira arrakasta handien dutenak"



Ibon Unamuno, Bergarako kalean. | JAGOBA DOMINGO

nengo, gero Gutirekin eta Felisinekin jarraitu eta azkenean erraldoi handietara iritsi.

Jaietan lan egin behar izatea nekagarria da?

Ez, zapatuan bakarrik ibiltzen gara-eta. Gainera, talde guztia elkarrekin afaltzera joaten gara bukatutakoan.

Umeen gozagarri dira erraldoiak; horrek ematen du poztasunik?

Bai, horixe. Orain dela hamabi urte hasi ginen gu, eta geroz eta jende gehiago datorrela gure atzetik ikusi dugu. Eta umeendako sortutako erraldoiekin, oraindik eta gehiago. Hala, jarraipena izango dugu...

Erraldoiak eguraldi onaren lagun dira; jaietan inoiz etxean geratu beharrik izan dizue?

Behin. Iazko Pazkoetan pilotalekuan babestu behar izan ginen. Eta aurtengo Inauterietan ezin izan gara irten, hamabi urteotan lehenengoz.

Aurtengo jaietarako, badaezpada, bigarren planik pentsatu duzue; jendea kanpotik etorrita tristea litzateke ezin irten geratzea...

Oraindik ez dugu ezer pentsatu, baina zapatu arratsaldean pilotalekua libre egoten da, eta pentsatzen dut han sartuko garela.

Eta, betiko legez, Elgoibarko gaiteroak izango dituzue lagun?

Bai, bai; zoritxarrez herrian ez dugu gaiterorik eta Elgoibarkoak ditugu *geuretako hartuta*.

Irailean Molins de Rei herrira joateko asmoa duzue?

Bai, irailaren 27an eta 28an joango gara bisita bueltatzera.

"Orain dela hamabi urte hasi, eta geroz eta jende gehiago dator atzetik"



Pazkoa jai zoriontsuak

08:30etik - 20:30era zabalik

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92



RPS: 327/13

AGIRRE
HORTZ KLINIKA

ONDO
PASAU
JAIXAK!

Finantzazio era ezberdinak
INFORMA ZAITEZ!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea



Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 - 665 72 36 28 Ordutegia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).


SIMS
SERVIMASA
 Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
 Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
 Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
 E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
 103 industria poligonoa
 Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
 www.servimasa.com



**Ondo
 pasa
 Pazkoetan!**



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!



**Ondo
 pasau
 jaixetan**

**50
 urte**

metagra

gure aukera

Zezenek ere lekua izango dute jaietan

Promesen eta beteranoen arteko errektadore desafioa izango da saio nagusia Pentekosteetan

JULEN APERRIBAI | BERGARA

Zezenzaleek gozatzeko aukera izango dute aurten ere Pentekosteetan. Ekainaren 8an, domeka, errektadore gazteek eta beteranoek zezen-plazan egingo duten desafioa izango da saio nagusia. Askotariko joko eta ariketak egingo dituzte bi taldeetako partaideek, eta zezenak Iñigo Almorzaren Bergarako Zezenak gaudutegiak jarriko ditu.

Beteranoen taldean ariko dira Unai Arana *Xurra* (Bergara, 1980) eta Iker Agirre *Txili* (Bergara, 1981). Makina bat urte daramate biek ere errektadore. Zezenak beti gustatu izan zaizkie eta zaletasun horrek "Euskal Herriko hainbat herritan uztaixapelketak" antolatzen eraman zituela gogoraraten dute, baita "mundu horretan sartzera ere".

Urte hauetan hainbat herri-tatik pasa dira bi bergarar horiek. Zezenaren aurrean jartzeak beldurra eragiten dien galdetuta,

"beldurra baino gehiago errespetua" sorrarazten diela argi dute. Honela dio Aranak: "Beldurra duena ez da zezenaren parean jarriko, guk egiten duguna lehenengo pertsonan bizi dutenek soilik dakite guretzat hori zer den", Durangoko uztaixapelketan batean hartutako kolpe bat gogora ekarri duen bitartean. Hain zuzen ere, Agirrek beste kirol arriskutsu batek norbaiti eragin diezaiokien "adrenalina igoera"-rekin konparatzen du eurek egiten dutena.

Herriko gazteentzako aukera

Desafioari eta zezenen inguruan egingo diren ikuskizunei begira ilusioz dira bi errektadoreak. Eguraldi ona eginez gero, zapatuan eta domekan plaza jendez beteko den esperantza dute.

Haurrak eta gazteak ariko dira zapatuan. 16 urtez azpikoen eta 16-20 urte artekoen txapelketak egingo dira. Bigarren txapel-



Iker Agirre (zutik ezkerrean) eta Unai Arana (zutik eskuinean), Jon Maiztegi eta Julen Murgiondo gazteekin. | GOIENA

keta horretako lehen bi sailkatuek promesekin aritzeko aukera izango dute hurrengo egunean. Herriko bi gazte ere aukeratu dituzte promesekin lehiatzeko. "Hasiera

-hasieratik gurekin ibili diren gazteak dira eta desafioan parte hartzea nahi genuen, maila ona erakutsi dute eta bertan aritzeko gai dira", dio Aranak.

Egitarau zabala

Jaietarako antolatutako gaitzarako ekintzetan herritarren parte-hartzea lortu nahi dute Aranak eta Agirrek. Bi errektadoreak antolatzaile lanetan ibili diren arren, herritarren inplikazioa beharrezkoa dela deritzote. Egitarauan horretarako aukera zabala egongo dela dio Agirrek: "Goizetan egunero egongo dira zezen bolaztatuak, astelehenean, Kuadrillen Egunean, izan ezik. Arratsaldeetan, berriz, zapatu eta domekakoaz gain, astelehenean eta martitzenean haur eta gaztetxoentzako zezen-txoak egongo dira".

ESANAK

"Errektadore direnek soilik dakite guretzat hau zer den"

UNAI ARANA | ERREKTADOREA

"Entrenamendu onena herriz herri zezenetan ibiltzea da"

IKER AGIRRE | ERREKTADOREA



AGORROSIN

OSTALARITZA

Boni Laskurain 21 • 943 77 70 30



ondo pasau jaixak!



San Juan Auzoa. Larramendi Industrialdea, Partzela I-1
 Posta Kutxa, 5
 20570 Bergara
 Tel.: 943 82 94 83 - Faxe: 943 76 41 85
 embalan3@embalan3.com
 www.embalan3.com

ondo pasau jaixak!



Saioa Etxabbarri Mujika
Kol. Zenb. 1500
RPS: 297/13



Felsinee

FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA:

- Fisioterapia orokorra
- Drainatze linfatikoa
- Kirol fisioterapia
- Tekarterapia
- Fisioterapia perineala
- Fisioterapia obstetrikoa (Haurdunaldiko minak - Erditze aurreko eta ostekoa)
- Metodo Hipopresiboa
- R.P.G-S.G.A.
- Elikadura eta Nutrizioa

PODOLOGIA

GIZA-ELIKADURA , DIETETIKA eta NUTRIZIOA

NATUROPATIA eta BIOMAGNETISMO MEDIKOA

**ondo
pasau
jaixak!**

ASEGURUEKIN ERE LAN EGITEN DUGU

Ibargarai Etorbidea 17, behea • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 53 44 53 • www.felsinee.net

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik



Pazkoetan mantendutako eta galdutako ohiturak iruditan

Tradizioak eta berrikuntzak batzen jakin dute bergararrek jaietan

JON MOÑUX | BERGARA

Bergaran, aspalditik ospatzen dituzte udaberri garaian Pentekoste jaiak, Pazkoak bezala eza-gunagoak bergararren artean. Urteak joan eta urteak etorri, ohitura eta ospakizun berriak agertuz joan dira eta beste batzuk, berriz, jaietako programetatik desagertu dira.

Bergarar asko gogoratuko dira estanpen lehiaketaz, Txibistoren eta Xirulariren jaitsieraz edota blusa lehiaketaz. Gaur egungo haur eta gazteei urruti gelditzen zaizkien ospakizunak dira horiek. Hala ere, beste ohitura asko sortu edo mantendu dira. Herri bazkaria, baltsa jaitsiera eta tabernen arteko jolasak, esaterako, urteroko ohitura bilakatu dira Pazkoetan.

Argazki zaharrak gogora


Gaztetxoek lehengo jaiak eza-gutzeko eta nagusiagoei iraganeko irudiak gogora ekartzeko, 1973. eta 1995. urteen artean Pentekoste jaietan ateratako argazki zaharrak bildu dira bi orrialde hauetan. Hain zuzen, lehenengo eta azkenengo erretratuak Bergarako Udal Artxiboarenak dira eta beste hirurak, berriz, Berrigara aldizkarian argitaratutako argazkiak dira.

Bitorianatxoren jaitsieraren aurrekariak

1979ko ekainaren 1ean, Txibistoren jaitsierak eman zien hasiera pazkoei San Martin plazan. Urtebete geroago, berriz, Xirulariren jaitsiera egin zuten. Eskumako erretratuak, hain zuzen, 1980an egin zuten Xirulariren jaitsieraren argazki bat da. 1981ko ekainaren 5ean egin zuen lehen aldiz jaitsiera gaur egun bergarar guztiek ezagutzen duten Bitorianatxok. Harrezkero, hogeita hamalau urtetan zehar, urtero eman die hasiera eta bukaera Pazkoei pertsonaia horrek.

Argazkia: Bergarako Udal Artxiboa. BKE fondoak (Ariz Ondo).

Egilea: Foto Uribe (Bergara).



Urtero legez, txosnak Bideberrin jarriko dituzte

Herri bazkariak gero eta jende gehiago biltzen du plazan

Betidanik sortu dute giro atsegina bergararrek herri bazkarian, eta urtetik urtera kuadrilla gehiago erakartzen ditu. 1995ekoa da argazki hori, eta 150 lagun inguru bildu ziren Jardunek eta Olinpiada Batzordeak antolatutako bazkarian. Kuadrillen artean jai giroa eta umorea izan ziren protagonistak. Bazkalostean kuadrillek kalejira egin zuten herriko kaleak alaituz, baina orain, txarangarekin batera egiten dute. Aurten, 700 txartel jarri dituzte salgai herri bazkarirako, eta, eskaera oso handia izanenez, herritar askok ez dute lekurik lortu.

Argazkia: Berrigara 195. zenbakia,

ELUSU
CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK S.A.



Tel.: 943 76 45 50 - 679 00 40 89
Arruriaga 5
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
eluseraikuntzak@telefonica.net
www.construccioneselusu.com

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Lokal komertzialak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak
- Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak
- Gremioen koordinazioa
- Proiektuak

10eko
DESKONTUAK!



Zorionak, bergarar guztioi!

eaaj
PNV



Ondo pasa pentekoste jaietan!



Bideberrin jarritako txosnen inguruan bildu ziren Bergarako gazteak 1992an, eta, aurten ere, txosnetako giroa tinko mantenduko da toki berean. Garai batean txosna kopurua handiagoa

bazen ere, oraingoan, bi txosna txiki eta handi bat nahikoa izango dira bazkaria, kontzertuak eta bestelakoak animatzeko.

Argazkia: Berrigara 67. zenbakia.



Blusa lehiaketa, iraganean gelditu den ohitura

Bertan ikusten da 1992an jaietako blusa lehiaketan parte hartu zuen kuadriletako bat. Lehiaketa hartan parte hartzen zuten kuadrillek jaietako blusa bat, kuadrillaren argazki dotorea

eta esaldi bat euskaraz aurkeztu behar izaten zituzten. Egun, ordea, tradizio hori galduta dago bergararren artean.

Argazkia: Berrigara 63. zenbakia.




Estanpen lehiaketa, desagertutako ohitura zaharra

Orain dela berrogei bat urte arte, Pentekoste jaietan aspalditik ohitura zen estanpen lehiaketa ospatzen zen. Mozorroturik, herriko kuadrillek satiraz eta ironiaz baliatutako karrozak

kaleratzen zituzten. Goiko irudia *La censura española* estanparen argazkia da, 1973koa.

Argazkia: Bergarako Udal Artxiboa.
Egilea: Roman Larrañaga.



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Ondo
pasau
jaixak!

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16
Faxa: 943 76 09 32



Pazko jaiak, herritik kanpora bizi direnen bergararren begitara

- ▶ Bailarako beste herrietan bizi diren bergarar gehienak jaioterrira itzultzen dira jaietan
- ▶ Umeekin zerikusia duten ekitaldietan hartzen dute parte, batez ere; gau giroa albo batera utzita



Erik Linazisoro,
Aretxabaleta
atzean duela.



Tzeitel Martin,
Antzuolako plazan.

TZEITEL MARTIN
ANTZUOLA

"Kalean izaten den giroa dut gustukoen"

Bergaran bizi nintzenean bezala jarraitzen dut Bergarako jaietz disfrutatzen. Urtero joaten gara, eta egunero: umearekin barraketara, familiarekin bazkaltzera edo lagunekin afariren batera. Bestalde, Bergarako Udal Bandan ere jotzen dut, eta, beraz, bandako ekitaldietan ere izaten gara. Kalean izaten den giro ona da gehien gustatzen zaidana"6.

MIKEL ARANTZABAL
ARAMAIO

"Jende asko izaten da, nire gusturako"

Ezkonberritan eta umeak txikiak zirenean joan ohi ginen jaietz disfrutatzen. Azken urteotan, ordea, ez naiz festetan izan. Jende asko pilatzen da, nire gusturako. Horretaz gain, ez naiz oso festazalea. Nahiago izaten dut beste egun batzuetan joan, lagunekin lasai egoteko. Hala ere, badut Errege bezperan, Erramu Zapatuan eta San Martin egunean joateko ohitura".



GOIENA Komunikazio Taldeak
bergarar guztioi
Pentekoste jai zoriontsuak
opa dizkizue!



ERIK LINAZISORO
ARETXABALETA

"Umeekin gozatzeko aukerak badira"

"Badut Bergarako jaietara joateko ohitura. Zapatuetan joaten gara, normalean, umeekin. Goizean izaten den marrazki lehiaketara eta arratsaldean barraketara. Guk beste ordutegi bat dugu orain. Egia esan, badira umeekin disfrutatzeko aukerak; adibidez, buruhaundiak edo bonba japoniarrak. Gustura joaten gara; aldi berean, herria bisitatzen dugu".

IRATI GOITIA



Edurne Agirre,
Oñatiko Foruen plazan.

EDURNE AGIRRE
OÑATI

"Maleta eta guzti joan ohi ginen jaietara"

"Garai batean, semea txikia zenean, maleta eta guzti joan ohi ginen Pentekoste jaietara. Zapatua eta domeka egiten genituen bertan, amaren etxean. Semeari asko gustatzen zaitzaion joatea, barraketan ibili ohi zen. Orain, domeketan joaten naiz. Amari ilusio handia egiten dio familia elkartzak. Gainera, sukaldari oso ona da! Gustura joaten naiz".

I.G.



Mikel Arantzabal,
Aramaioko plazan.

I.G.

ONINTZA EGAÑA
ELGETA

"Bitorianatxoren jaitsiera oso polita da"

"Badut Pentekoste jaietara joateko ohitura, Elgetan bizi arren. Gainera, astelehena eta martitzena jai hartzen ditut. Ez dut gau giroaz disfrutatzeko aukerarik, umea jaio zenetik, baina egunez ibiltzen gara, adibidez, barraketan. Bitorianatxoren jaitsiera da gehien gustatzen zaidan gauzetako bat. Astelehena ere, Kuadrillen Eguna, asko gustatzen zitzaidan lehen".



Onintza Egaña,
Elgetan.

LARRAITZ ZEBERIO



K21

- ATEAK
- LEIHOAK
- HORMA-ARMAIRUAK
- TARIMAK
- PARKET FLOTATZAILEAK
- SUKALDEAK



FINANTZAKETA MODU ERRAZAK!

Eskatu orain aurrekontua eta 3, 6 edo 12 hilabeteen ordaindu ahal izango duzu.

Zerekin gozatu izango dute musikazaleek

Musika klasikoak, bakarlariak, elektronikak, erritmo karibetarrek eta punk-rock estiloak lekua izango dute



Arkada Social, Hil orduko bizi diskorako argazkian. | JOSU TXINTXURRETA

EGUBAKOITZA

6

Glaukoma, Kashbad eta Addams Party

Txosnagunean | 23:00etan

Bitorianatxok jaei hasiera eman ostean, txosnagunea musikazaleen bilgune izango da, beste urte batez. Lehenengo gauean, rap, reggae, rock eta elektronika estiloak izango dira protagonista.

Glaukoma eta Kashbad taldeak besapean disko berriarekin helduko dira Bergarara, gainera. Lehenengoak, *Vol2* lanarekin. Estreinako lana rap eta reggae estiloetan oinarritzen bazen, *Vol2* honetan haratago joan direla diote taldekideek. Euren alderdi ilun eta gogorrena landu dute Bonberenean grabaturiko diskoan eta jungle eta dubstep estiloetan barneratu dira oraingoan. Zuzeneko biziengatik da ezaguna Glaukoma, eta Bergaran zergatia argi utziko dute.

Hamabost urteren ostean, Kashbad oreretarrak ere disko berriarekin datoz Bergarara,

Arrakalan. 90eko hamarkadan Fermin Muguruzak babesean hartutako taldeak hainbat urtez hibernatu ostean, indarberrituta eta kantu berriekin dator. Sorkun abeslariak gidatutako laukoteak bederatzi kantuz osaturiko disko berria aurkeztuko du.

Gauari amaiera emateko, musika elektronikoak hartuko du txosnagunea. Addams Partyko, bergararrek osaturiko elektronika elkarteko, Josu eta Kepa disko-jartzaileek egingo dute saioa Pentekoste jaietan.



Glaukoma. | GLAUKOMA

Go Bang!: Franco Cinelli, Kasper eta Asier Galiano

Tartufo | 02:00etan

Go Bang! elkarteak antolatuta, mundu mailan ezaguna den Franco Cinelli argentinarra Tartufon egongo da diskoak jartzen. Europan barrena egingo duen biran murgilduta, Bergaran egingo du geldialdia Cinellik. Hala ere, saioan ez da bakarririk egongo. Rosariokoarekin batera, Go Bang! elkarteko Asier Galianok eta Kasperrek saioa egingo dute.



Turboshit bergararrak. | GOIENA

ZAPATUA

7

Rock maratoia

Étxagi kanpoan eta Munibe plazan | 18:00etan

Bergarako taldeek ere izango dute erakusleioa herriko jaietan. Horretarako, rock maratoia antolatu dute txosna batzordekoek, eta sei taldek joko dute bi gunetan.

Étxagi tabernaren kanpoaldean, Behi Bi Blues, La-Tox eta Gangs of London taldeek joko dute. Munibe plazan, ostera, El Mene eta La TB rap kantari gazteak eta Turboshit taldeak igoko dira oholtzara.

DJ Amaia Txintxurreta

Zezen plazan | 23:00etan

Amaia Txintxurretak neska-mutikoentzako disko-jartzaile eta abeslari lanak egingo ditu.

La Jodedera

Txosnagunean | 21:00etan

Euskal Herriko eta Kubako musikariek sortutako taldea da La

Jodedera. Laukotearen etxeko berezitasuna erritmo karibetarrek dira. Txorromorro eta Bap!-eko Kasares eta Jomes musikari ohiek Mandi Cienfuegosekin eta Oscar kubatarrekin *Karibe Kanturi Kantari* diskoa kaleratu zuten joan den urtean Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Kontzertu ezberdin eta dibertigarria izango da, zalantzarik gabe.

McOnak eta Arkada Social

Txosnagunean | 23:15ean

Gaua, ordea, Mauka musikagintzako ordezkariera izango da. McOnak bizkaitarrak izango dira oholtzara igotzen lehenak. Talde gaztea izan arren, *Piraten matxinada* diskoak Euskal Herriko eszenan jarri ditu. The Pogues irlandarren ikasbideak jarraituz, jai giroa bermatuko dute *pirata* garagardozaileek.

Horren ostean, Arkada Social arrasatearren txanda helduko da. Duela hilabete batzuk Higain estudioan grabaturiko *Hil orduko bizi* diskoa kaleratu zutenetik laukotea ez da geldi egon eta sasoi betean daudela argi utziko dute Bergaran.

PAZKOAK 2014

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | JAIK: PAZKOAK 2014, BERGARAKO JAIK
ASTELEHENA ETA ASTEARTEA, EKAINAK 9 ETA 10, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINA AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: PAZKOAK 2014, BERGARAKO JAIK
EGUBAKOITZA, EKAINAK 13, 19:30 ETA 22:00





Gose, zuzenean. | GOIENA

and the Beast eta Louis Armstrong jazz tronpeta-jotzailearen eta abeslariaren medley bat entzun ahal izango dira San Martin plazan.

Gose eta Esne Beltza

San Martin plazan | 15:30ean

Giza katea egin ostean, ospakizunei hasiera emango die Gose hirukote arrasatearrak. Duela hilabete Bonberenea Sessions zuzeneko aurkeztu du hirukoteak, eta Gure Esku Dago eguna ondo baino hobeto girotuko du elektronikari, rocka eta trikitia nahasten dituen taldeak.

Horren ostean, 17:30ean, Esne Beltza igoko da San Martin plazako taulara. Xabier Solanok gidatutako familiak ikuskizun bizia eta alai bermatuko du; hip-hop estilotik soul eta folkera joanda.

Emon

Txosnetan | 19:30ean

Eguna borobiltzeko arduradunak Emon bergararrak izango dira. Txosnagunea ska, cumbia, pop-rock eta euskal musikarekin bikain girotuko dute. 2013ko otsailean kaleratutako *Konfeti kolore* diskoko kantuez gain, duela aste batzuk aurkeztu zuten *Eltzetik altzora* kantua ere lehenengoz joko dute etxean. Joan den urtean Euskal Herriko txosnak nahastu ostean, aurten berriz ere ekin diote udako birari, esperientzia handiagoz. *Mahoneroek* barruak ustuko dituzte, ziur.



Anje Duhalde. | GOIENA



Erramun Martikorena. | GOIENA

Iparraldeko handiak, zapatuan

Anje Duhalde, Erramun Martikorena, Mixel Ducau eta Caroline Phillips; ez da edonolako kartela. Zapatu gaueko erromeriak azken urteotan beherakada izan duela ikusi ostean, Bergarako Udalak formulaz aldatzeko erabakia hartu du eta *Iparraldea Bergaran* da emaitza.

Horretarako, Iparraldeko lau bakarleri ekarriko ditu San Martin plazara; Euskal Herrian

lehenengo mailan jokatzeko dutenak, gainera. Duhalde aurreko urtean utzi zuen zapate onarekin errepikatzen saiatuko da, eta, ziur asko, lortu egingo du. Duhaldez gain, Martikorenak, Ducauk eta Phillipsek gau ahaztezina oparituko diete bergarrei *Erribera*, *Zureztat*, *Eperra* eta halako klasikoekin.

San Martin plazan 23:00



Mixel Ducau eta Caroline Phillips. | MUSIKA ZUZENEAN

ASTELEHENA

9

Laket, 2 Bala eta Tajon Prieto eta Kuajalotes

Txosnagunean | 20:00etan eta 23:00etan

Laket erromeriak girotuko du Kuadrilen Egunen iluntzea. Gero, 2 Bala eta Tajon Prieto eta Kuajalotes igoko dira oholtzara.

Nuevo Talisman

Espoloiari | 12:30ean eta 23:00etan

Nostalgikoei ere izango dute zerekin gozatu; izan ere, 70eko eta 80ko hamarkadetakako kantu ezagunekin osaturiko dantzaldia eskainiko du Nuevo Talisman orkestra errioxarrak.

MARTITZENA

10

DJ Oihan Vega

San Martin Plazan | 21:00etan

Seigarren urtez Oihan Vega bergararrak disko-jartzaile lanak egingo ditu Pentekoste jaietan.

Bidelapurak

Txosnetan | 20:00etan

AEBetako folka du oinarri Ubera eta Solozabal bikoteak; banjo, gitarra akustiko eta perkusioarekin.

Jean Louis David

Ile Apain

Astelehen, astearte eta azteazkenetan

%20ko

deskontua ile-apaindegian*

...eta mutilek ere %20ko deskontua ostegunetan

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48

www.jeanlouisdavid.com

Astelehenetik Ostegunera:


09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30

Ostirala: 09:30 - 18:30

Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.
Jai bezperatan ez da aplikagarria.

Ondo pasau Pazkoetan!



ZAINZAKO EMAKUME PROFESIONALEN LAN BALDINTZAK EZ DIRA HOBETU DIRA.

* GFaren proposamena, Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako hitzarmen kolektiboetan, estatuko lan erreformari aurre egiteko.

** LPDaren esparruan (Laguntza Pertsonalerako Diru Laguntza), zaintza pertsonaleko lan baldintzak erregulatzera bideratutako proposamenaren aurrerapena.

*** Zerga pizgarrietarako proposamena, sozietateen mozkinen gaineko zergaren aurreproiektuan, emakumeen gainordezkaritza bat dagoen sektoreetako lan baldintzak hobetzeko.

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 6	ZAPATUA, 7	DOMEKA, 8	ASTELEHENA, 9	MARTITZENA, 10	EGUAZTENA, 11	EGUENA, 12
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Kantari	10:00 Amaia DJ	12:00 Giza katea Debagoienean	12:00 Harmailatik	12:00 Aho bizarrrik gabe	12:00 Harira
12:30 Pausoan	10:30 Jaiak	10:30 Zorion Agurrak	13:30 Debagoiena zuzenean	12:30 Tripa-zorri	12:55 Onein	13:00 Giza katea Debagoienean
13:00 Ikusmira	11:00 Debagoiena zuzenean	10:35 7 Akorde	14:30 Berriak	13:00 7 Akorde	13:25 Harmailatik	13:55 Zorion Agurrak
13:30 Zorion Agurrak	12:00 Amaia DJ	11:00 Tertulia	15:00 Giza katea Debagoienean	13:25 Amaia DJ	13:55 Zorion Agurrak	14:00 Debagoiena zuzenean
13:35 Kantari	12:30 Zorion Agurrak	12:00 Gazta zati bat	16:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak
14:00 Debagoiena zuzenean	12:35 Onein	13:40 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	14:30 Berriak	15:00 Giza katea Debagoienean	15:00 7 Akorde
14:30 Berriak	13:00 Aho bizarrrik gabe	13:45 Astea iruditzen	17:00 Kantari	15:00 Harmailatik	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Amaia DJ	14:00 Tertulia	13:50 Debagoiena zuzenean	17:30 Giza katea Debagoienean	15:55 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	16:30 Berriak
15:30 Onein	14:55 Astea iruditzen	14:50 Zorion Agurrak	18:25 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Kantari	17:00 Jaiak
16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Amaia DJ	18:30 Berriak	16:30 Berriak	17:30 Tripa-zorri	17:30 Harira
16:30 Berriak	16:00 Kantari	15:00 Amaia DJ	19:00 Amaia DJ	16:55 Giza katea Debagoienean	18:10 Giza katea Debagoienean	18:30 Berriak
17:00 Zegama Aizkorri	16:30 Tripa-zorri	15:00 Amaia DJ	19:30 Harmailatik	18:25 Zorion Agurrak	18:30 Berriak	19:00 7 Akorde
17:45 Ur eta lur	17:10 Jaiak	15:30 Aho bizarrrik gabe	20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	19:00 Amaia DJ	19:30 Amaia DJ
18:15 Ikusmira	17:40 7 Akorde	16:30 Jaiak	20:30 Berriak	19:00 Kantari	19:30 Harira	20:00 Debagoiena zuzenean
18:25 Zorion Agurrak	18:10 Atik Zra	17:00 7 Akorde	21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 7 Akorde	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
18:30 Berriak	18:45 Amaia DJ	18:30 Astea iruditzen	21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
19:00 Amaia DJ	19:15 Debagoiena zuzenean	18:35 Zorion Agurrak	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:30 Berriak
19:30 Jaiak	20:15 Astea iruditzen	18:40 Amaia DJ	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:00 Harira	22:00 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean	20:20 Jaiak	19:15 Gazta zati bat	23:00 Berriak	22:00 7 Akorde	22:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	21:45 Tertulia	00:25 Astea iruditzen	23:30 Gurean gaur	22:30 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:00 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	22:45 Gazta zati bat	01:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Gurean gaur	23:30 Gurean gaur	23:30 Gurean gaur
21:30 Berriak	00:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Giza katea Debagoienean	00:30 Harmailatik	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Jaiak	01:30 Ikusi irratia			00:30 7 Akorde	00:30 Harira	00:30 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean	02:15 7 Akorde					
23:00 Berriak	02:45 Debagoiena zuzenean					
23:30 Gurean gaur						
00:00 Debagoiena zuzenean						
00:30 Jaiak						

ARRASATE IRRATIA

Disco sorta zozketatuko da Arrasate Irratian

Egubakoitzero egiten da zozketa 107.7ko uhinetan eta datorren asteeko egubakoitzean disco sorta bat zozketatuko da parte hartzen duten guztien artean. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi irratia@goiena.com helbidera. Animatu eta zorte on!

Aste gainbegiratu zazu eta domekan 10:00etatik aurrera

Astean irratan izandako elkarrizketak berreskuratuko dira asteburuan. Besteak beste, Arrasate Zientzia Elkarte Xabier Bengoa kidea izango da gaur, egubakoitza, zabalduko den *Mondragoe beirazko plaketan* erakusketari buruz hitz egiten. Garagardo festaz ere egingo da berba.



David eta Alazne

David Gorriz eta Alazne Garcia ekainaren 7an ezkonduko dira Iruñean. Kua-drillakoen partetik, "urte askotarako eta oso zoriontsu izan zaitezte!".



Julen eta Neritzel

Maiatzaren 31n Julen eta Neritzel ezkondu ziren. Familiaren eta, batez ere, Landerren partetik, "zorionak, eta ondo ibili Malaysian".



Mirian eta Jokin

Mirian Robledo aramaioarra eta Jokin Balanzategi arrasatearra ekainaren 7an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean, eta horren ostean, Etxe-Aundi jatetxean bazkalduta ospatuko dute. Familiaren eta lagunaren partetik, "ondo-ondo ibili eta zoriontsu izan, bikote!".



Maritere eta Honorio

Maiatzaren 31n Bergarako Maritere Etxanizek eta Honorio Sampietrok 56. ezkontza urteurrena ospatu zuten. "Zorionak, bikote, eta musu handi bana, familia osoaren partetik!".



Juanita eta Jesus

Juanita Altube eta Jesus Elorza oñatiarrak ezkondu zirela 50 urte bete ziren maiatzaren 30ean. Biharamunean ospatu zuten euren anaia-arreba, seme-alaba eta ilobekin batera. "Zorionak bioi, etxeko eta, batez ere, iloben partetik. Segi horrela!".



URTEURRENA

Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria

2010eko ekainaren 8an hil zen.

Laugarren urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 8an, 11:00etan, Bergarako San Pedro parrokian

Beti izango zara gura bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2014ko ekainaren 6an.

URTEURRENA

Jesus Arregi Irastorza

2013ko ekainaren 7an hil zen, 67 urte zituela.

Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango.

Antzuolan-Urretxun, 2014ko ekainaren 6an.

URTEURRENA

Carlos Ezkibel Urtaza

2013ko ekainaren 8an hil zen, Oñatin.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 8an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

URTEURRENA

Jose Luis Abaunz Ezquibel

2013ko ekainaren 8an hil zen, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Asko maite zaitugu. Beti izango zara gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA

Angel Jauregi Loiti



Aramaion hil zen 2014ko maiatzaren 30ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aramaion, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA



Imanol Kerejeta Barrutia



Arrasaten hil zen 2014ko ekainaren 4an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aitatxo, gure maisua eta laguna izan zara. Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Gero arte.

Zure seme-alabak: Nekane, Asier eta Unai. Arrasaten, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA

Jesusa Lete Aldai



Eskoriatzan hil zen 2014ko maiatzaren 31n, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Beti gogoan izango zaitugu.

Eskoriatzan, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA



Martin Larrañaga Albisua



Ekainaren 4an hil zen, 92 urte zituela.

Martinen familiak bihotzez eskertzen ditu une latz honetan erakutsitako maitasuna eta babesa. Bihotz-bihotzez eskertu nahi dizkizuegu.

Bergaran, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA

Jose Antonio Kortabarria Elorza



Oñatin hil zen 2014ko maiatzaren 24an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko ondrea meza zapatuan izango da, ekainaren 7an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA

Eusebio Anduaga Irizar




Oñatin hil zen 2014ko maiatzaren 29an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Haren aldeko ondrea meza zapatuan izango da, ekainaren 7an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA



Lander Elorza Garcia



Angiozarren hil zen 2014ko ekainaren 2an, 18 hilabete zituela.

Etxeko argia itzali zaigu. Eskerrik asko emandako maitasun ta bizi-pozagatik. Bapo, bihotza.

Eskerrak baita gure ondoan egon zareten guztioi.

Elorza - Garcia familiak. Bergaran (Angiozar), 2014ko ekainaren 6an.

OROIGARRIA

Lander Elorza Garcia



Angiozarren hil zen 2014ko ekainaren 2an, 18 hilabete zituela.

Bizi-bizi salto eta brinko gure artean a ze mutiko!

Zorigaitzak baina aldendu zaitu hartazu gure partez mila musu.



Aranzadi ikastolako guraso, ikasle eta langileak. Bergaran, 2014ko ekainaren 6an.

ESKER ONA

Eusebio Anduaga Irizar



Oñatin hil zen 2014ko maiatzaren 29an, 94 urte zituela.

Gure ondoan ez egon arren, guregan zaudete, aitona.

Igor eta Mireia, Iñigo eta Mirari, Andoni, Eñaut eta Maddi, Ibai, Uxue, Julen eta Xabier. Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

OROIGARRIA

Lander Elorza Garcia



Angiozarren hil zen 2014ko ekainaren 2an, 18 hilabete zituela.

Angiozar ilun-ilun geratu da gure artean ixil-ixilik joan zara. Zure irifarra, alaitasuna eta bihurrikeriak beti gogoan, ez ditugu ahaztuko.

Iñdar gutxi eta zer esan ez dakigula zure amaxo, aitaxo eta familiari laguntasuna ematea besterik ez zaigu geratzen. Zuk utzitako hutsunea betetzea zaila izango da. Besarkada eta patxo handi bat, maitxia!

Angiozarko lagunak. Bergaran (Angiozar), 2014ko ekainaren 6an.

OROIGARRIA

Lander Elorza Garcia



Angiozarren hil zen 2014ko ekainaren 2an, 18 hilabete zituela.

Kalera irten gara eta hutsik dago zure bila aritu gara eta ez zaitugu aurkitu baina beti egongo zara gure jolasetan.

Zure lagunak: Egoitz, Oier, Beñat eta Amaia. Bergaran, 2014ko ekainaren 6an.

HILETA

Facundo Garay Txintxurreta



Bedoñako Iturrixa baserrikoa

2014ko ekainaren 5ean hil zen, 82 urte zituela.

Bere emaztea: Carmen Elizaran; seme-alabak: Jesus eta Maite, Jose eta Koro, Javier eta Izaskun, Elena eta Zorion; bilobak: Aritz, Ane, Maialen, Ibai, Maider, Julen, Unai, Jone eta Maite. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta beste senide guztiak.

Bere oroimenez azken agurreko elizkizuna gaur ostirala, 19:00etan, Bedoñako Santa Eulalia elizan, gorpua bertan dela, egingo da.

Oharra: hilbela Arrasateko beilatokian egingo da gaur 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Bertaratuko zaretenoi aurrez eskerrak. Arrasaten, 2014ko ekainaren 6an.

URTEURRENA

Fabian Bermejo Montero



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 7an, 19:00etan, Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Joan zinenetik egun bat ez da igaro zurekin gogoratu ez garenik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

URTEURRENA

Juan Carlos Igartua Moyua



2013ko ekainaren 8an hil zen, 51 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Zure sendia. Oñatin, 2014ko ekainaren 6an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: **NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ARRASATE Sumission City Blues eta Yacuzas taldeak

Bi taldeek hitzei garrantzia ematen diete eta kantu oso pertsonalak egiten dituzte. Sumission City Blues gasteiztarrek *Golden* delako diskoa aurkeztuko dute eta Yacuzas madrildarrek, *Matogrosso* lana. Kontzertua gaztetxean izango da eta sarrerak bost eurotan salduko dituzte leihatilan. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.



SUMISSION CITY BLUES



OPCIONDEVIDA.NET

OÑATI Gatillazo eta beste hiru talde Olakuan

Evaristoren taldeak kontzertua egingo du Oñatiko Olakua auzoko jaietan. Eurekin batera egongo dira txosnaguneko oholtzan Drakes oñatiarrak, Ultimos Reyes nafarrak eta SHAKTALE taldea. Sarrera, doan.

Gaur, egubakoitza, Olakuako txosnagunean, 21:00etan.

MUSIKA**ARAMAIO** Jam Park In Purple

Jazz, soul, bossa eta blues musika entzuteko aukera, doan. Gaur, egubakoitza, Sastifian, 20:00etan.

ARRASATE Perkusio ikasleen saioa

Musika eskolako perkusio ikasleen kontzertua, Gorka eta Hilario irakasleen aginduetara. Gaur, egubakoitza, musika eskolan, 18:00etan.

BERGARA DJ emanaldia

Amaia Txintxurretak 12-16 urte artekoendako emanaldia egingo du. Euria egiten badu, Seminarioko karpan egingo dute DJ emanaldia.

Bihar, zapatua, zezen-plazan, 23:00etan.

BERGARA Kashbad, Glaukoma eta Addams party

Bergarako Pazkoetako kontzertua txosnagunean. Sarrera, doan. Gaur, egubakoitza, txosnagunean, 23:00etan.

OÑATI Korrontzi taldea

Oñatiko Olakua auzoko jaietan kontzertua egingo dute. Bihar, zapatua, Olakuan, 22:30etan.

BERGARA La Jodedera, McOnak eta Arkada Social

Bergarako Pazkoetako kontzertua txosnagunean. Sarrera, doan. Bihar, zapatua, txosnagunean, 23:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 6
EKAINA 12**BERGARA** Rock maratoia

Herriko taldeak ezagutzera emateko emanaldia. Gangs of London, Behi bi Blues, La Tox, Turboshit, El Menez Rap eta La Tb Rap taldeak arituko dira bi tokitan: Arrano eta Etxagi tabernen arteko kalean.

Bihar, zapatua, kalean, 19:00etan.

BERGARA Esne Beltza, Gose eta Emon

Bergarako Pazkoetako kontzertua txosnagunean. Sarrera, doan. Etzi, domeka, txosnagunean, 23:00etan.

ARETXABALETA Gitarra emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleek gitarra emanaldia egingo dute. Ekainaren 10ean, Arkupen, 18:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARRASATE** Ikasturte amaierako jaiak

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarateak ikasturte amaierako

festan askotariko ekintzak egingo ditu; besteak beste, magia eta musika tailerrak, eskulanak, grafitiak... Bestalde, oilasko izterrak eta hanburgesatxoak jateko aukera egongo da.

Gaur, egubakoitza, Biteri plazan, 16:30ean.

ARETXABALETA Kurtzebarri eskolako jaiak

Kurtzebarri eskolako kideek ikasturte bukaerako jaiak ospatuko dute. Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, batukadarekin kalejira, bazkaria, tarta lehiaketako sari banaketa, dantzaldia eta Potx eta Motx pailazozen saioa egongo dira.

Bihar, zapatua, Aretxabaletan, 11:00etan.

ELGETA Omenaldia Martin Elortza gotzainari

Pasiotarren ordenak omenaldia egingo dio Martin Elortza zenari. Meza, omenaldia, argazki erakusketa eta lagunarteko bazkaria egingo dituzte.

Etzi, domeka, Elgetan, 12:00etan.

ARRASATE Garagardo Azoka

Arrasateko Herriko Plazan dagoen karpan garagardoa eta janari alemana probatzeko aukera egongo da. Zazpiko Errugbi Txapelketa ere jokatu dute zapatuan, Mojategin.

Domekara arte, Herriko plazan eta Mojategin.

ANTZERKIA**ARETXABALETA** 'Koka kola eta barea' antzezlanak

Inaxio Tolosa eta Ramon Agirre Ray eta Nik *showman*-ak dira. Euskal Kantagintzaren Olinpoan euren lekua "merezi" dutela diote eta leku hori berreskuratzeko *Urrutiko intxaurrak* ikuskizuna erakutsiko diete ikus-entzuleei. Gaur, egubakoitza, Zaria aretoan, 22:00etan.

ARETXABALETA 'Tomaxen abenturak: Txipli-Txapla'

Neska-mutikoei Tomax ezagutzeko aukera izango dute. Asko-

tariko abenturak bizi izango ditu umeei. Sarrera, 3 euro. Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

JAIK**OÑATI** Olakua auzoko jaiak

Askotariko ekintzak egingo dituzte. Gaur, taloak, bertso-poteoa eta rock kontzertua; bihar, haurrendako jolasak eta antzezlanak, txakurren erakustaldia eta txorizo eta sagardo dastatzea; eta etzi, meza, txirrindulari lasterketa, poesia errezitaldia eta jolasak. Gaurtik domekara arte, Olakua auzoan.

TOPAKETA**OÑATI** 'Arantzazu, Afrikarekiko topaleku' jardunaldiak

Jarraian dago egitaraua: 10:30ean, *Subira* film laburra; 10:45etik 12:30era, *Afrikako komunikabideak (Nollywood)* eta genero berdintasuna: *irudien, aurreiritzien eta autorrepresentazioaren artean* delako berbaldia; 12:30etik 13:00etara, Gineako zortzi emakume egindako 23 argazkiz osatutako *Emakumeak begira* erakusketa; 13:30ean bazkaria; 16:00etan *Notre étrangère* pelikula; eta 17:20etik 18:00etara, Fadhila Mammari,

Zorionak denoi!

Juan Tamariz magoa ikusteko Goiena Klubak zozketatutako sarreren irabazleak:

Iñaki Olalde Altelai (Oñati)
Loreto Anduaga (Aretxabaleta)
Unai Gisasola Unamuno (Bergara)
Ruben Horrillo Corral (Arrasate)

**GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:**

Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.
Goiena papera: Astelehenera ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.
Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskala guztietan.

Urteko kuota: 50 € | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



goiena

2014-06-06

BUKATZEKO

Kirolaren bitartez, integrazioa lantzen

- ▶ Euskadiko Txapelketako finalerdia jokatu du gaur San Juan de Dios ospitaleko areto futbol taldeak
- ▶ Zazpi urte daramatzate txapelketetan parte hartzen; aste barruan entrenamendu saioak egiten dituzte

MIREN ARREGI | ARRASATE

Elite mailako kirolariak miresten ditugu. Euren ahalegina, nor bere mugak gainditzeko ahalmena, irmotasuna eta indarra. Eta ez da gutxiagorako. Baina badira beste-lako mailatan dabilzan kirolariak ere, horren ezagunak ez direnak, eta goi mailakoei diegun begirune hori bera merezi dutenak.

Arrasateko San Juan de Dios ospitale psikiatrikoan duela zazpi urte osatu zen futbol taldea, eta ordutik, zentro psikiatrikoen arteko Euskadi mailako areto futbol txapelketa jokatzen dute. Ospitaleko hamazazpi pazientez osatzen da taldea eta hamabostean behin partidua izaten dute: "Normalean, kanpoan jokatzen dugu; Bizkaian, bereziki. Talde ona gara, bi urtean irabazi dugu liga", dio ospitaleko langile eta taldeko entrenatzaile Amaia Garatek. Horren adierazle, gaur bertan Zamudion jokatu duen Euskadiko txapelketako finalerdia: "Manuene zentrokoen kontra egingo dugu. Irabaztea ez da erraza izango, baina seguru bikain pasatuko dugula".

Normaltasunera bidean

Hamabostean behin jokatzen duten partiduez gain, entrenamenduak egiten ditu taldeak. "Oso momen-



San Juan de Dios ospitale psikiatrikoko areto futbol taldea, Almerian. | EMILIO MARTIN

tu politikak dira eurendako eta errehabilitaziorako oso garrantzitsuak da", dio Garatek, integrazioaren eta normaltasunaren bidean txapelketek duten garrantzia azpimarratuta. Izan ere, gaitasun fisikoak lantzeaz gain, kirol jarduerak

gaixotasunaren sintoma batzuk hobetzen laguntzen du; hala nola bizi ohitura osasungarriak eta gaitasun sozialak garatzen, taldean lan egiten eta estigma sozialak desagerrarazten, pazienteen irudi positiboa emanda.

Almerian, Europa mailakoan

Euskadiko mailakoez gain, beste-lako txapelketak ere jokatzen dituzte Arrasateko taldekoek. Esaterako, Europa mailako txapelketa baten izan ziren maiatzean Almerian, eta han ere lan bikaina egin zuten.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Gure esku

Betidanik pitatu dit belarrian autodeterminazio eskubideak. Ezinbestean eskatzen du onartzea diskurtso trinko bat –nazio bat gara, konkistatua izan zen kolonia– eta uste dut trinkotasun hori kaltegarri zaiola aldarriaren hedapenari.

Aldiz, oso argia egiten zait erabakitze eskubidea, oinarria duelako demokratikoki azaldutako borondatean. Bere horretan badu aitortza nazioarteko legedian; eta, batez ere, lehen lerroan jartzen du demokrazia, historiaren edo identitatearen aurretik. Beraz, aukera ematen dio edonori eskubide hau aldarrikatzeko. Zentzu horretan eredugarria da Gemma Zabaleta sozialistak egin duen hautu argia.

Domekan Kanpanzarren ibiliko naiz giza katean laguntzaile lanetan. Nekez aurkituko nukeen kokapen egokia-gorik, Gipuzkoa eta Bizkaia-aren mugan, mugen gainetik eskuak lotzen eta borondateak batzen.

Izan dadila honaino ekarri gaituen bidea lehen txanpa bat herrigintza berrian, eta bidean aurrera gaintitu ditza-gula hamarkada luzeotako lubakiak, gorrotoak eta mesfidantzak. Demokrazia bidezko askapenak indar handia eskatuko du eta hori soilik elkar hartzetik etor daiteke. Gure esku dago eta jadanik bidean gaude.

grupo
amuebladora
mondragonesa

Ekainerako zuretzat prestatu ditugun
ESKAITZA ETA PROMOZIOAK
aprobetxa itzazu!!!

ARRASATE

943 71 10 11

943 71 10 12

kaltxoi
leku

Sofa
leku

BANAK
Imparta

centro hogar MUEBLES

